


berria

2019 - 12 - 15
XVII. urtea.
5.121. zenbakia
1,80€

GAUR
kioskoan

+12€

Igandea



Herrialde bat, interes gehiegi: gerra nagusi

2

Siriak zortzi urteko gerra luzea bizi du. Urrian, Turkiak Rojava inbaditu zuenean, fase berri batean sartu zen. Munduko potentzia militar handienek dituzte interesak bertan, eta mundu gerra baten itxura hartu du horregatik.

Beñat Gaztelumendik jantzi du txapela

31

Bigarren aldiz irabazi du Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, eta aitak jantzi dio txapela. Agin Labururekin lehiatu da buruz buruzkoan.

TxepeLara

«36ko gerrako irabazleek segitzen dute botere militar eta judizialean»

Elkarrizketa • 42

GAUR
Gehigarri
berezia



BERRIA

GORKA RUBIO / FOKU



XXI. MENDEKO GERRA NAGUSIA

Joan den urrian Turkiak Rojavako inbasioa hasi zuenetik, Siriako gerra bertze fase batean sartu da. Zortzi urte baino gehiago bete ditu gerrak. Gatazkaren berezitasunen artean daude hagitz fase ezberdinak eduki dituela bilakaeran, eta munduko potentzia militar nagusiek esku hartu dutela.

Mikel Rodriguez

Zortzi urte baino gehiago bete dira Sirian gerra hasi zenetik. Martxoaren 15a hartu ohi da urteurrentzat, 2011ko egun horretan egin baitzuten Baxar al-Assad presidentearen aurkako lehenbiziko manifestazioa. Turkiak joan den urrian Siriako Kurdistanen (Rojavan) hasi zuen inbasioaren ondoren, lorpen diplomatiko handi bat beharko litzateke gerrak bederatzigarren urteurrena ez betetzeko. Siriakoa XXI. mendeko gerra nagusia dela erran liteke, nahiz eta ez den hil gehien eragin dituen, ezta gehien iraun duena ere. Baina bertze dimentsio bat du. Arrazoiak argiak dira: Ekialde Hurbilean dago, munduko petrolio erreserben %48 eta gas naturalaren erreserben %38 dituen eremuan, eta gatazka guztiek plano geopolitikoa astintzen duten tokian. Zer erranik ez munduko potentzia nagusiak sartzen badira; izan ere, Bigarren Mundu Gerraz geroztik lehenbiziko aldiz (1945), AEBek eta Errusiak zuzenean parte hartu dute gerra berean.

Mundu gerra txiki horren ondorioek apokalipsia eragin dute Sirian. Masa hilketak, hiriguneen bonbardaketak, desplazamendu uholdeak, populazioaren ordezkapen etnikoa, ekexuzioak –anizteta ikuskizun mediatiko bihurtuak–, desagerrarazteak eta hobi komunak, esklabotza, sexu indarkeria, eraso kimikoak, muturreko islamismoaren hedape-

na, ekonomiaren eta oinarritzko zerbitzuen hondoratzea... la konstatzen ezinezkoa da Siriako herri-tarrek pairatu dituzten sufrikarioen zerrrenda. Ondorioak zenbatzea hagitz lan zaila izan da urteotan, Siriako eremu anitz baktartuta egon baitira, eta alde guztiek kontrol zorrotza ezarri nahi izan baitziote informazioari.

Gerrak desegituratuta utzi du herrialdea. UNHCR Iheslari-entzako Nazio Batuen Goi Mandatar-riaren arabera, iheslarien krisiaren unerik okerrerean Siriako 24 milioi biztanleen erdiak zeuden etxetik alde eginda. Horieta 6,6 milioi Siriako bertze eremu batzuetan babestu dira, eta bertze 5,6 milioi inguruk atzerrira egin dute ihesi. Atzerrian zeuden batzuk itzuli dira; alde batetik, eremu batzuetan segurtasun egoera hobetu delako, eta, bertzetik, babeslekutatz zituzten herrialdeak itzulera sustatzen hasi direlako, baina ez dirudi mugimendu handirik gertatu denik.

Izan ere, gerran jarraitzen du herrialdeak, eta etorkizuna ez da ziurra. Jeremy Bowen Erresuma Batuko BBC kateko berriemaileak 2016an Damaskora egin zuen bidaia batean idatzi zuen armadako jeneral batek erran ziola gerrak «hamar urte gehiago» iraun zezakeela. «Defentsa Ministerioan, Siriako jeneral batek erran zi- dan ongi baino hobekizketela Li- banon gerrak hamasei urte iraun zuela».


MATXINADA

Urruti gelditu da 2011ko martxo-ko testuinguru hura. Herrialde arabiarrek eltze bat bezala bor-

borka ari ziren, 2010eko aben- duan Tunisian piztu zen matxi- nadak sortu zuen erreakzio kate- aren ondoren. Testuinguru hor- retan deitu zuen protestara Siriako Iraultza izeneko ekinbide batek, Facebook bidez. Damas- kon antolatu zuen deialdia. Ehunka lagun elkartu ziren, es- katzeko bertze herrialde arabiar- rretan eskatu zituzten antzeko erreforma politikoak, eta ken ze- zatela 1963tik indarrean zegoen larrialdi egoera. Handik hiru egu- nera, Poliziak lau manifestari hil zituen tiroz Daraa hirian. Orain- dik bukatu ez den biolentzia soka luzearen hasiera izan zen.


Siria berehalakoan murgildu zen krisi eta ezegonkortasuna poli- tikoan. Lehenbiziko hilabetee- tan, bertze herrialde arabiarren matxinaden testuinguruari lotuta egon zen, eta, gehienbat, Libiako gerra bilhurtu zen ispilu. Afrika iparraldeko herrialde horretan NATOk esku hartu zuen Muam- mar Gaddafiren aurka eta haren kontra matxinatu ziren talde ar- matuen alde. Talde horiek 2011ko abuztuan Tripoli hiriburua kon- kistatu zuten, eta, urrian, Gaddafi harrapatu eta hil egin zuten. Gad- dafi bezala, Al-Assad estu hartu zuten Mendebaldeak eta haren aliatuek, baina, espekulatu arren, ez zuten esku hartze militarrik egin, Siria Libiaren arrunt ezber- dina baitzen: lau aldiz biztanle gehiago zituen, etnikoki eta erli- jiosoki plurala zen, Ekialde Hur- bilean aliantza sistema baten par- te zen –Iranekin, Libanoko Hez- bollah alderdi xiitarekin eta hainbat mugimendu palestina- rrekin batera–, eta Errusiaren

- Siriako Gobernua
- FSA Siriako Armada Askea
- Al-Nusra eta beste matxinoak
- Turkia eta haren taldeak
- El Estatu Islamikoa
- Kurduen miliziak eta aliatuak
- Siriako Gobernua eta kurduen miliziak
- AEBek babesten dituzten milizia arabiarrek




Siria
Gatazka bidegurutzean


2015eko urtarriila




2015eko iraila



2019ko martxoa



Gaur egun



base militar bat zuen –Tartus portuan–, potentzia horrek herrialde sobietar ohi batetik kanpo zuen bakarra.

Hain zuzen, Errusiak, ahalegin diplomatikoan, Siriako Gobernu aktiboago defendatu zuen Libiakoa baino, eta esku hartze eta zigor proposamen guztiak blokeatu zituen NBERen Seguratasun Kontseiluan –Txinarekin batera–. Barrerean, berriz, 2011ko udaberrian, Al-Assadek zenbait neurri hartu eta erreformak agindu zituen protesta mugimendua baretzeko, matxinada kutsua hartu baitzuen, baina ez zuen egoera onbiderratu. Gainera, gobernuak hiri batzuk militarizatu zituen egoera kontrolpean hartzeko –Daraa, Homs, Hama...–, eta boterearen aurkako ekintzek manifestazio soil izateari utzi zitoten. 2011ko ekainean, talde armatuak erasoak eta inbasioak eginen hasi ziren ipar-mendebaldeko Idlib probintzian. FSA Siriako Armada Askea siglekin jarduten zuten brigada multzo ezezagun bat ziren. Paraleloan, SNC Siriako Kontseilu Nazionala sortu zen atzerrian, Libiako kontseiluaren antzera oposizioa bateratu eta indarrean zegoen erregimenaren alternatiba izanen zen aginte bat osatzeko. Gaur egundik begiratuta, urrutian gelditu diren sigla ahantziak.

GERRA IREKIA

2012rako, Sirian ez zegoen ez herri matxinadarik, ez manifestazio mugimendurik; gerra irekia zen nagusi. FSA siglak errealitate lauso bat bihurtu ziren, eta talde armatuen sail bat agertu zen; gehienek muturreko islamismo sunita zuten ideologiatzat. Muturreko biolentzia ekintzak eta sarraskiak ugari egin ziren; hilak dozena milaka hasi ziren kontatzen, eta errefuxiatuak, berriz, ehunka milaka. 2012an hasi ziren mendebaldeko hiritako bataila eta setio handiak: Alepon, Damaskoren kanpoaldean, Darayan, Homsen...

Nazioarteko lehenbiziko ahalegin diplomatikoak gerraren hasapeneko aro honetan sortu ziren. Arabiar Ligaren bake plana hila-bete baten buruan zapuztu zen. NBEk eta Arabiar Ligak bitartekari izendatu zuten Kofi Annan, NBEko idazkari nagusi ohia, baina 2012ko abuzturako dimisioa eman zuen, etsita. Nazioarteko eragileak bertze modu batera ere inplikatu ziren. Siriako Gobernuak behin eta berriz salatu zuen Golkoko monarkiak talde armatuak finantzatzeko eta antolatzen ari zirela. Turkia ere salatu zuen, bertzeak bertze, horietako talde



Armadaren tanke suntsitu bat Azaz hirian, 2012an. CHRISTIAAN TRIEBERT



Al-Assaden aurkako manifestazio bat Homsen, 2011ko apirilean. BO YASER

antitez ez baitzuten arazorik muga zeharkatzeko. Gainera, Turkiako armadak bombardaketak egin zituen, eta Patriot misilak ezartzeko eskatu zion NATOrri. Israelek ere 2012an egin zituen Sirian aurkako lehenbiziko bombardaketak, eta, ordutik, urterto egin ditu hainbat. Baina Siriako Gobernu ez zegoen bakarrik, eta, haren larritasuna ikusita, Irakek eta Hezbollahk gerran sartzea erabaki zuten 2013an.

Gerrak izan dituen gertakari handietako bat hasierako fase horretan gertatu zen: 2012ko uztailean, FSA eta matxino islamistak Rojavako hiriak hartu nahian hasi zirenean, armadak alde egin zuten kurduen lurraldeetatik, eta YPG Herriaren Babes Unitatearen miliziek hartu zuten haren tokia. PYD Batasun Demokratikoaren Alderdia buru zela, Kurduen Batzorde Gorena sortu zuten, eta horrela jaio zen Siriako kurduen eremu autonomoa.

Gerraren lehenbiziko fasea 2013ko udan bukatu zen. Damasko ondoko Duma hirian eraso bat egin zuten arma kimikoekin, eta ehunka zibil hil zituzten. AEBek Siriako armadari leporatu zitoten eraso egin izana, eta hango gobernuaren aurkako esku

hartzeko bat prestatzen hasi ziren. Errusiak makineria diplomatikoa martxan paratu zuen orduan, eta akordio bat egin zuen Washingtonetik: Siriako armategi kimikoa deuseztatuko zuten, AEBek erasoaldia bertan behera uztearen truke. OPCW Arma Kimikoak Debeatzeko Erakundea arduratu zen armategiaren deuseztatzea gain egin dituzten. Baina ezin izan zuten frogatu nork egin zuen Dumako eraso. Arma kimikoen erabilerraren inguruko salaketa antz egin dira urteotan, eta AEBek iaz Siriako armadaren aurka bonbardaketa batzuk egiteko justifikazioz erabili zuten.

KALIFA HERRIA

Gerra irekiaren lehenbiziko fasearen bukaera markatu zuen bertze gertakari nagusia muturreko bi talde islamistaren hazkunde izan zen: Al-Nusra Frontea, eta, nagusiki, ISI Irakeko Estatu Islamikoa.

2013an, Siriako armadak herrialdearen ekialdeko hiri nagu

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

(Aurreko orrialdetik dator)

sialk galdu zituen, eta 2014ko urtarrilean ISIk bertze talde armatuei gailentzea lortu zuen, Raqqa hiria konkistatuta. Urte hartako ekainean, berriz, Irakeko Mosul hiria konkistatu, eta kalifa herria aldarrikatu zuen: El Estatu Islamikoa deitu zion bere buruari, Abu Bakr al-Baghdadi liderrak kalifa izendatu zuen bere burua, eta, halaxe, estatu gisa funtzionatzeko ahalegina egin zuen.

Gerra etengabean zegoen estatu bat, ordea, eta etsaitzat jotako kolektiboak desagerrarazteko asmo deklaratu zuena. Kalifa herriaren aldarrikapenak ia mundu osoa astindu zuen. Ia kontinente guztietako muturreko talde armatu eta norbanako islamista sunita anitzek Elren jarraitzaile izendatu zuten beren burua, eta atentatuak egin zituzten haren izenean –gaur egun hari horiez da eten oraindik–. Potentzia nagusi guztiek etsaitzat izendatu zuten EI, lehen mailako mehatxutzat.

Praktikan, muturreko taldeak ezabatu egin zuen Iraken eta Siriaren arteko muga, eta, horren ondorioz, handitu egin zen bi herrialdeetako gatazkek elkarrengan zuten eragina. Sirian, EI iparralderantz hedatu zen, eta desagertzeko arrisku larriaren paratu zuen kurdien autonomia. 2014ko irailean Kobane hiria setiatu zuen, Turkiaren menpeko Kurdistanen mugan. Urrian, YPG miliziak hiria galtzeko zorian zirenean, AEBek Sirian esku hartzea erabaki zuten. Gerraren bertze aldaketa erabakigarrietako bat. Nazioarteko koalizio bat sortu zuten Elren aurka, eta, YPGekin aliantza bat eginda, muturreko talde islamistaren aurkako kontraerasoa hasi zuten. Kobane 2015eko urtarrilean askatu zuten, eta YPGk, AEBen laguntzarekin, kalifa herria deuseztatzeko kontraerasoa hasi zuten. Hala ere, kalifa herriak 2015eko urtarrilean eta ekainean bitartean lortu zuen zabal-kunde geografikorik handiena. Siriaren mendebaldean, Elk fronte gehiago ireki zituen, kasu horietan armadaren aurka –Pal-mira hiri historikoan, Damaskoko Yarmuk palestinarren kanpalekuan, Libanoko mugan, Alepo probintzian...–.

Ezgonkortasuna inoiz baino handiagoa zen Sirian, eta, horren eraginez, gerrako errefuxiatu exodorik handiena gertatu zuen. Milioi bat iheslari inguru sartu ziren EB Europako Batasunean 2015ean, gehienak Siriakoak.

ATZERRIKO ERAGILEAK



AEB

Munduko potentzia nagusiarentzat Ekialde Hurbila eremu estrategikoa da, eta badira hamar-kadak han esku hartzen ari dela. Israelen babesle eta Iran-Siria-Hezbollah ardatzaren etsaia da. Baxar al-Assad boteretik kentzeko presio egin du gerra hasi zenetik, eta 2014an esku hartzen hasi zen Estatu Islamikoaren aurka. Nazioarteko koalizio bat sortu zuen horretarako. Rojavan zituen tropak erretiratu ditu.



Errusia

Siriako Gobernuaren aliatu nagusia da. 2015ean hasi zen esku hartzen, eta Al-Assadek hari esker eutsi dio botereari. Sobietar eremu ohitik kanpo egin duen lehen interbertzioa da Siriakoak.



Turkia

2011n harremanak hautsi zituen Siriako Gobernuarekin, eta Al-Assad boteretik kentzeko eskatu zuen. Siriako kurdien autonomia du etsai nagusi, Turkiako Errepublikarentzat mehatxu existentsial gisara ikusten baitu, Turkiako kurdien burujabetza mugimendua indartu lezakeelakoan. Mugaren bestaldeko eremu asko inbaditu ditu; azkenak, iragan urrian, Rojave. Hiru milioi errefuxiatu daua Turkian.



Iran

Siriako Gobernuaren babesle handia da. Militarki esku hartu du haren alde, miliziak, estrategia eta trebatzaileak bidalita. Sau-

Erreakzio xenofobo handia sortu zen, eta migrazioaren gaiak EBko herrialde anitzetako egoera politikoa astindu zuen. 2015eko udakoa izan zen NBek gerran hildakoei buruz eman zuen azken zifra: 250.000 lagun 2011tik.

ERRUSIA GERRARA

2015eko udan, Siriako Gobernu gerra hasiz geroztiko egoerarik prekarioenean zegoen, eta zalan-zalan zegoen noiz arte eutsi ahalko zion. Irailaren 30ean, gerraren norabidea aldatu zuen iragarpen bat gertatu zen: «Buru-belarri sartu gara gatazka honetan. Has-teko, Siriako armadari lagunduko diogu terroristen aurkako borrokan». Vladimir Putin Errusiako presidentek adierazpena egin bezain pronto hasi zituen Errusiako armadak talde matxinoen aurkako bonbardaketak.

Erabaki historikoa izan zen, zeren, SESB Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasuna desegin ze-

di Arabiaren eta hark sustatzen duen islamismo sunitaren etsaia da, baita Israelena ere. Ekialde Hurbilean duen eragina handitu du Siriako gerraren ondorioz.



Saudi Arabia

Sirian boterearen monopolioa duen Baath alderdia etsai historikoa du, eta 2011z geroztik matxina babestu eta Al-Assad boteretik kentzeko eskatu du. Muturreko talde islamista sunitak babestu ditu. Estatu Islamikoa babestu izana egotzi zaio.



Israel

Gerraren hasieratik bonbardaketak eta aire erasoak egin ditu Siriako armadaren, Hezbollahen, miliziano xiiten eta mehatxutza jo duen edozein aurka. Iranen presentzia egonkor bat eragozteko helburu ofiziala. 1967tik inbadituta du Siriako Golango gainen zati gehiena.



Libano

Independentzia geroztik (1943), Siriak eragin handia izan du Libanon. Damaskok esku hartu zuen Libanoko gerra zibilean (1975-1991), eta tropak edukitu zituen 2005era arte. Siriarekiko jar-rerak Libanoko alderdiak banatzen ditu. Hezbollah alderdi xiitak milizianoak bidali ditu Al-Assaden alde. Siriako milioi bat errefuxiatu inguru hartzen ditu Libanok.



Qatar

Matxino islamisten mezenas handia izan da. Anaia Musulmanen babeslea da, eta oposizio-ko plataformak hartu izan ditu he-



Siria

Gatazka bidegurutzean

rialdean. Turkiaren estrategia babesten du.



Irak

Siriako Gobernu babesten du, eta Irakeko miliziano xiitek gerran parte hartu dute. Estatu Islamikoaren aurkako gatazka ondoz, askotan bi herrialdetako gerrek bat egin zuten.



Jordania

Al-Assaden aurka lerratuz, eta oposizio taldeak babestu izan ditu. AEBen koalizio kide da. 700.000 errefuxiatu inguru hartzen ditu.

EB Europako Batasuna

Al-Assaden aurka lerratuta dago, nahiz eta herrialde batzuek bertze batzuek baino jarrera gogorragoa duten haren, eta gerran duen inplikazioa ere ez den berdina. EBko kide guztiak AEBen koalizioaren parte dira. Arazotzat ikusten du Turkian dauden Siriako errefuxiatuak Europara etortzea.

NATO

AEBen koalizio kide da, eta sortu zenetik (1949) lehen aldiz esku hartu du Ekialde Hurbilean. Awacs zelatarako hegazkinak erabiltzea eta milizia eta armada aliatuak trebatzea da haren egitekoa. 2012tik, Patriot misilak hedatuak ditu Turkian.

Arabiar Liga

Eragin diplomatiko mugatua izan du. 2011tik bertan behera utzia du Siriak erakundearen zuten parte hartzea; 2011-2012an arrakastarik gabeko bake plan bat sustatu zuen.

Alepoko Meskita Handiaren irudi bat, gerran pairatu duen suntsipen larria erakusten duena. G. MENEGAZZI/EFE



Al-Assad eta Putin, 2017an, Errusiako Sobietar Hirian. MICHAEL KLIMENTIEV/EFE

Nazio Batuen Erakundeak hil diren kopuruari buruz eman duen azken zifra 2015ekoa da: 250.000

netik lehenbiziko aldiz, Errusia gerra batean sartu baitzen Sobietar eremu ohitik kanpo. AEBek eta haren aliatuek esku hartzea salatu zuten, eta hasieratik argi gelditu zen ez zutela elkarlanik

izanen etsai komunaren, Elren, aurka. Siriako armadarekin lurraldeak birkonkistatu eta estatuaren agintea berrezartzea zen Errusiaren helburua, eta mendebaldean hasi zuten ekinaldi hori. Batailarik handiena Alepo hiria berreskuratzea izan zen. La setiatuta zegoen Siriako armada; Errusiaren laguntzaz, 2016ko otsailean erasoaldia hasi, eta abenduaren 22an hiria ofizialki berreskuratutza jo zuen Siriako Gobernuak. Guztiz suntsituta gelditu zen hiria. Gerra hasi aitzinetik, bi milioi biztanle inguru zituen Alepok; 2016ko erasoaldian hasieran, NBek kalkulatu zuen 300.000 inguru gelditzen zirela, eta, erasoaldia bukatzean, berriz, 265.000 inguru.

KALIFA HERRIAREN AMAIERA

AEBen eta kurdien milizien ofentsibarekin eta Errusiaren esku hartzearekin, EI gibelera egiten hasi zen, eta 2017an kalifa



herriak herio kolpea jaso zuen. Iraken menpean zituen lurralde guztiak galdu zituen, eta Sirian Raqqaatik bidali zuten SDF Siriako Indar Demokratikoen YPG indar nagusizat zuten koalizioak. Siriako armadak, berriz, bertze probintziako hiriburu batetik, Deir ez-Zorretik bidali zuten. Baghuz izeneko hiria izan zen Elren kalifa herriaren azken lurraldea, Siriaren hego-ekialdeko muturrean, Irakeko mugan. Irteerarik gabeko erresistentzia batean zokoratuta, 2019ko martxoaren 23an SDFk kalifa herria desegintzat jo zuen, Baghuz osoa kontrolpean hartu ondoren.

Herrialdearen mendebaldean, berriz, Siriako armadak hirigune nagusiak berreskuratu zituen 2018an, eta, El mapatik ezabatuta, *statu quo* berri bat ezarri zen gerran: Eufirates ibaiaren ekialdea SDF Siriako Indar Demokratikoen kontrolpean; mendebalde gehiena Siriako Estatuaren agin-



YPGetako boluntario ingelesak Rojavan, 2017an. IFBAANTIFAMANCHESTER

Estatu Islamikoaren kalifa herria desagertu eta Al-Baghdadi hil bazuten ere, taldea bizirik dago oraindik

tepera itzultza; ipar-mendebaldeko Idlib probintzia Al-Nusraren eta bertze talde batzuen menpean; kurduen Afrin barrutia eta haren ekialdeko eskualdeak Turkiak inbadituta; eta, Jordaniako

mugako basamortuko eremua AEBen base batek gobernatua.

POTENTZIEKIN ARTEKO LEHIA

Aurtengo martxoan sortu zen galdera nagusia zen: zer gertatuko da orain? Hainbat korapilo zeuden askatzeko: Idlib probintziaren etorkizuna, Siriako Estatuaren eta SDFren arteko harremana, AEBen presentzia militarren etorkizuna, eta Turkiaren ambizioak. Egoerak argitu gabe segitzen du, baina joan den urrian gertatu zen mugimendu nabarmenak bata bertzearen gibeletik eragin die zalantza horiei. Donald Trump AEBetako presidentek urriaren 6an Rojavatik erretiratzeko agindua eman zien tropei, eta Turkiak inbasioa hasi zuen handik hiru egunera. Horren eraginez, SDFk Siriako Gobernuari eta Errusiari laguntza eskatu zien, eta honela gelditu da egoera: urriaren 18tik, indarrean dago sueten bat, nahiz eta Turkiak jarrai-

tu duen operazio militarrek egiten, dioenez, SDFk ez duelako menia errespetatu –Ankararen erasoei erantzutera mugatu dela dio koalizioak–; bertzelde, Siriako armada Turkiako mugan eta Rojavako bertze eremu batzuetan hedatu da –2012tik lehenbiziko aldiz–, eta Errusiak eta Turkiak zaintza patruila bateratuak hasi dituzte.

Horrez gain, Idliben Siriako armadak eta Errusiak su-eten bat eman zuten abuztuan, baina hila-bete honetan aire eraso handiak egin dituzte probintzian. Fronte guztiak behin-behinean daude, egoera hagitz korapilatsuetan. Turkiak bere lurraldean hartzen dituen Siriako errefuxiatuak inbaditutako eremuetara bidaltzea du helburuetako bat; hori egin du Afrinen, kurdu gehienek inbasioetik ihes egin eta errefuxiatu arabiarrek han ezarrita. SDFren posizioa, berriz, dezente ahuldu da, baina oraindik gaitasun militar handia du kontrolpean duen lurralde guztia bertzerik gabe emateko Siriako Estatuari. Eta, egoera borobiltzeko, AEBek, milizia arabiar batzuen babesarekin, Irakeko muga eta Damasko lotzen dituen hegoaldeko bidea kontrolatzen dituzte, eta ez dute handik erretiratzeko asmorik adierazi.

Potentzien lehia eta interes horiekin batera, kontuan hartu behar da Elren kalifa herria desagertu eta Al-Baghdadi hil bazuten ere –joan den urri bukaeran hil zuten AEBetako militarrek, Idlib probintzian–, muturreko talde islamista sunita bizirik dagoela oraindik, eta gerrilla borroka bat hasi du, nagusiki SDFren kontra.

Nazioarteko akordio bat egin ezean, zaila dirudi pentsatzeak gerra buka daitekeenik; alternatibak dira potentziak eta haien aliatuak elkarren aurka gerra ireki batean murgiltzea garaipen erabatekoak lortzeko –ez da probalea–, edo potentzia bakarrak eustea, bertzeak gerrak akituta erretiratuko direlako. Ekinaldi diplomatikoei dagokienez, alde batetik, martxoan dago Siriako Gobernuaren eta oposizioko ordezkari batzuen arteko batzorde konstituziogilea –duela hilabete elkartu zen azkenekoz–, eta, bertzetik, Errusiak, Iranek eta Turkiak duela bi urte hasi zituzten Astanako elkarrizketen hamalaugarren bilera egin berri dute. Bakerako bidean ez dute emaitza handirik lortu, oraingoz. Save The Children gobernuz kanpoko erakundearen arabera, gerra hasi zenetik bortz milioi haur inguru jaio dira Sirian. Gatazka bertzerik ezagutu ez duten belaunaldiak.

Jihadisten emazteak eta seme-alabak pilatuta daude Al-Holeko errefuxiatu eremuan. Atzerrian sortutakoak ere badira, eta damu dira asko; sorterrira itzuli nahi lukete, baina linbo batean daude lege aldetik. Inork ez daki zer gertatuko zaien.

«Terroristen» emazte damutuak

J.M. Lopez Al-Hol

Al-Hol: Siria iparraldeko errefuxiatu eremu handienetako bat. 73.000 pertsona inguru, ahal bezala bizi direnak, zerbitzu oinarrizkoenak ere falta dituztenak. Baina beste kontu bategatik da berezia eta ezohikoa: El Estatu Islamikoko jihadisten emazteak eta seme-alabak dira errefuxiatu eremuan bizi direnetako asko: 20.000 emakume eta 50.000 ume inguru. Ez dira denak jihadistak, baina asko bai. Eta ez dira denak Ekialde Hurbilekoak; senarrei «jarraika» kalifa herriaren promesen atzetik joan zirela diote atzerriko emakume askok. Europarrak dira haietako batzuk. Damututa ageri dira asko; etxera itzuli nahi dute, baina Europak ez ditu hartu nahi.

Al-Holera bere bi alabekin iritsi da Leonora Lemke. Habibak 16 hilabete ditu, eta Mariak 20 egun besterik ez. «Siriara etorri nintzenez, 15 urte nituen. Alemanian bizi nintzen, eta etxetik ihes egin nuen islamaren arauen pean bizi nahi nuelako, baina orain hasi naiz jabetzen hanka sartze bat izan zela», esan du, goibel. «Elk kontrolatutako lurraldera iritsi eta egun batzuetara ezkondu nintzen senararekin, baina bera ez da gudularia; ordenagailu eramangarriak konpontzen zituen, eta ni etxekoandrea nintzen», azaldu du, alaba zaharrena besoetan daukela.

Kontua da haren senarra kartzelan dagoela preso, eta etorkizuna ez dela oso itxaropentsua haientzat. Lemkeri eta haren senarrari, bie leporatu diete talde terroristaren parte izatea. Alemania, Europako beste herrialde asko bezala, mesfidati azaldu da haiek hartzeko. «Oso inozoa izan nintzen. Uste nuen kalifa herria estatu indartsua zela eta bere he-

rritarrek babestuko zituela. Azkenean, ez neukan jatekorik seme-alabentzat».

Atertu egin du, eta ortzadar erraldoi bat ageri da esparruko denden gainean, gero eta biziago. Jihadista atzerritarren emazteek leku bat gordea dute eremuan, beste zibilengandik bereizita. Oraingoz 566 familia daude erregiratuta atal horretan. 1.800 pertsona guztira, emakumeak eta haurrek, 40 nazionalitateak. Hainbeste kultura eta ideologia nahastuta, ez da harritzekoa lisakrak sortzea. Europako herrialdeetatik datozen emakumeak kezu dira Kaukasokoek eta Tuni-sikoek gorriak ikusarazten dizkietela eta. Jihadarekin bat egiten ez dutenak ere badira eremuan, eta haiek ere beldurrez bizi direla

lamikoa sortu baino urtebete lehenago. Hasieran, Raqqan bizi zen; gero, hiri batetik bestera aldatuz joan zen, kalifa herriak lurrrak galdu ahala; azkenean, Baghuzera iritsi zen. SDFk eta AEBek Baghuzen aurkako erasoak hasi zuten orduan; eraso hartatik ihesi, milaka lagun inguru iritsi ziren Al-Holera.

Damu da Andresson ere. «Senarrari jarraika iritsi nintzen hona, jendeari laguntzeko, ikusia bainuen nola zeuden ospitaleak; gero, egoera honetan harrapatuta geratu nintzen. Senarra ezagutu baino urtebete lehenago aldatu nintzen islamera. Orain, bera kartzelan dago», dio, seme-alabetako bat oinen artean jolasean dabilkiola. «Ez dut ulertzen jendeak zergatik esaten duen terrorista naizela; nik nire bizitza egin dut, besterik ez, eta ez daukat ezeren errurik. Behin barruan zaudela, ezin duzu borrokatuz alde egin; nik ihes egin nuen duela bi hilabete. Azkenean, ez genuen jatekorik, eta landako belarra janzera iratu dut bizirik».

Landan, egoera oso txarra izan zen joan den neguan; hotzaren, elikadura kaskarraren eta osasun arreta eskasaren ondorioz, ehun haur baino gehiago hil ziren, Erreskaterako Nazioarteko Batzordearen arabera. Azken hilabeteetan 24.000 lagun iritsi dira esparrura, nekaz eta desnutrizioak jota; populazioa hirukoiztu da. Andressonek urtebeteko alaba bat zuen, eta hil egin zitzaion joan den hilabetean. «Hona etorri izanaren alde on bakarra seme-alabak edukitzea izan da; haiek dira garrantzitsuenak niretzat. Aldatu egin naiz; beste pertsona bat naiz. Nire herrialdeko gazte horrek kontaktatu duenez, 2013an iritsi zen Siriara, Estatu Is-



Senarrari jarraika iritsi nintzen hona, jendeari laguntzeko; gero, egoera honetan harrapatuta geratu nintzen»

Lisa Andresson

Al-Holeko esparruan bizi den suediarra

«3 urteko seme bat dut; orain dena damutu zait. Ihes egiten saiatu naiz, eta bost hilabetean kartzelan izan nintzen»

Fatima

Al-Holeko esparruan bizi den txetxeniarra

esan ohi dute. SDF Siriako Indar Demokratikoaren milizia kurdu-arabiarretako 400 bat kidek zainatzen dute eremua. Turkiak Rojavaren kontrako erasoak hasi zutenetik, urriaren 9tik, tentsioa handitu egin da eremuan.

Damuaren zama

Lisa Andresson Suediako da. Haren begi berdeek eta azal zur-bilak sorlekua salatzen diote, nikabaren oihalen artetik. 29 urteko gazte horrek kontaktatu duenez, 2013an iritsi zen Siriara, Estatu Is-



Haurrak arduratzen dira ur bila joateaz Al-Holeko esparruan. J.M. LOPEZ

nahi. Egin nuena barkatzeko eskatzen dut, besterik ez. Esparru honetan, nire bizitza infernua da. Triste sentitzen naiz, umiliatua, adoregabeta», esan du, negar zotinka.

Senarrak hilak edo kartzelan izanik, emakume horiek eta haien seme-alabak lege aldetik linbo batean egotera kondenatuta daude. Inork ez daki noiz arte. Eremuko emakume gehienak siriarrak eta irakiarrak dira; europarraren artetik, gutxi aitortuko dute Estatu Islamikoarekin borrokatzea etorri zirela. Fatima du izena haietako batek, eta Txetxeniakoa da. «Kalifaldiaren parte izan nahi nuelako etorri nintzen. Berehala ezkondu nintzen, Mohammed Walid izeneko jihadista australiar batekin; hil egin zuten borroka batean. 3 urteko seme bat dut, eta orain dena damutu zait. Ihes egiten saiatu naiz, eta,

horregatik, kartzelan izan nintzen bost hilabetez».

Donald Trump AEBetako presidentek eta SDFk atzerriko estatuei eskatu izan diete beren herrialdeetako jihadistaren ardura har dezatela, edo nazioarteko auzitegi bat sor dezatela haiek epaitzeko. Ez dira Al-Holeko errefuxiatuak bakarrik; preso dauzkaten jihadistak ere hor daude. Oraingoz, oso gutxi itzuli dira sorterrira. Yolanda Martinez, Luna Fernandez eta Lubna Miludi Siriara joan ziren 2014an, beren senarrek. Ukatu egin dute talde terroristaren parte izatea, eta itzuli egin nahi dutela esana diote Espainiari. Bik hila dute senarra, eta besteak kartzelan du. Martinezek eta Fernandezek 30 urte bete berri dituzte, eta launa seme-alaba dituzte; Fernandez, gainera, haurdun dago. Miludik, berriz, hiru seme-alaba ditu.



Asko daude antzera. Shamina Begumena izango da, agian, kasurik entzutetsuena. Hura ere Al-Holen itxita egon zen. Gazte britainiar horrek etxetik alde egin zuen, 15 urte zituenean; Siriara joan zen, eta, handik egun gutxira, 27 urteko jihadistista herbeheretar batekin ezkondu zen, Raqqaan. Lau urtez kalifa herrian bizi izan ondoren, Baghuztik alde egin zuen duela aste batzuk. Ez dago damututa, baina bere herrialdeari exijitu dio bera onartzeko, eta auzitara jotzeko mehatxua egin die. Haur bat galdu zuen erditzen ari zela, eta beste bi seme-alaba ere hil zitzaizkion, desnutritzioaren ondorioz.

Haur talde bat lasterka dabil lokatzetan; zikin daude, gaizki jan-tza. Beste batzuk futbolearen ari dira, ate ikusezinak dituen zelai inprobisatu batean. Hemen ez daukate besterik egiteko; ez dago es-



Emakume bat, seme-alabekin, bere ondasunak mugitzen, Al-Holeko esparruan. JIM LOPEZ

kolarik, ezta irakaslerik ere. Bartzuek ura garraiatzen dute urbiltetik beren kanpadendetara, edozein edukiontzi erabiliz. Azal koloreek berresten dute askotariko nazionalitateak dituztela.

Begum Azerbaijandik iritsi zen Siriara, senarrarekin. Duela lau urte izan zen hori. Estatu Islamikoarekin bat egin nahi zuten. «Gure herrialdeak eskaintzen zizun baino bizimodu hobea baten bila etorri ginen; sinetsi egin genuen propaganda bideoetan esaten zutena. Senarra hil egin zidaten bombardaketa batean, eta nik bi ume ditut: haiengatik borrokatuko naiz», kontatu du, begirada lurrean galduta. «Duela bi hilabete iritsi nintzen esparrura, eta damu naiz, senarrak hartu baitzuen erabakia. Nik jarraitu egin nion, besterik ez. Orain etxera itzuli nahi dut, nire familiarengana eta lehengo bizimodura».



Orsola Casagrande

Ferda Çetin hainbat egunkari kurduren sortzailea da, besteak beste *Yeni Ulke*, *Ozgur Gundem* eta *Ozg Ur Ulke*rena, horiek guztiak Turkiak legez kanpo utzitakoak. Med TV satelite bidezko telebista kurdua sortzen ere parte hartu du. 1995etik, Europan bizi da, erbestean, eta Bruselatik dihardu Kurdistango Batzar Nazionalako nazioarteko lanak gidatzen. Siriako gerra, potentzien kokapena eta Turkiak kurduen kontra egin duen azken inbasioa izan ditu hizpide.

Turkiak Siriako iparraldean egindako inbasioaren azken helburua zein izan da?

Irailaren 24an, Turkiako presidente Recep Tayyip Erdoganek hitzaldia eman zuen bere planak iragarri, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusian. Mapa eskuan zuela iragarri zuen Siriaren menpeko kurduen eremua inbaditzeko asmoa. Esplizituki azaldu zuen garbiketa etnikoaren ideia.

Kurduak abandonatzeko AEBen erabakiak kritika asko jaso zituen, baita AEBetan ere.

Ez zen izan AEBetako administrazioak hartutako erabakibat, Trumpek bere kabuz hartutakoa baizik. James Jeffrey AEBek Sirian duten mandataria eta armadako hainbat kidek esan dute ez zietela aldeztirik horren berri eman. AEBetako Ordezkarien Ganberan, demokratek eta errepublikanoek kurduak babesa ematearen alde bozkatu zuten. Trumpen erabakiaren kontra onartu zen lege proposamenak erabateko onespina izan zuen: 354 alde eta 60 kontra. Azkenean, ordea, Trumpen erabakia onartu zuten, eta ateak zabaldu dizkio Turkiari Siria inbaditzeko.

Trumpek aldeztirik esana zuten tropak erretiratuko zituela Siriatik.

Bai. 2018ko abenduan esan zuen Siriako tropak erretiratuko zituela, baina komeni da gogoraraztea Trumpek iragarpen hori egin zuen egun berean Brett McGurkek dimisioa eman zuela, orduan AEBek Sirian zuten mandataria, eta haren ordez izendatu zuten James Jeffrey Ankarako enbaxadore ohia. Jeffreyk, izendatu zutenetik, McGurken oso bestelako ildo bati jarraitu dio. Babes horren adierazpenik zehatzena Segurtasun Eremua

«Ez dute gurea bezalako etsenplu demokratiko bat nahi Ekialde Hurbilean»

Ferda Çetin • Kurdistango Batzar Nazionalako nazioarteko arduraduna

Çetinek uste du Turkiak «kurduen garbiketa etnikoa» duela helburu, eta, nazioarteak gaitzetsi arren, NBEk, AEBek, EBk eta Errusiak «erabateko babesa eta onspena» ematen diotela Turkiaren okupazioari.

deitu diotena proposatzea izan zen, Ankarara bisitan joan zenean.

Bidaia horretan, Jeffreyk hainbat bilera ere egin zituen SDF Siriako Indar Demokratikoetako buruzagi militarrekin.

Ankaran izan zituen bileretan ez ezik, paraleloki SDF eta YPG Herriaren Babes Unitateekin ere egon zen. Abuztuaren segurtasun mekanismo bat garatu zuten segurtasun eremua sortzeko. SDFrekin egin zuten akordioak erreikusi zuten defentsen suntsiketara, tunelak edota arma astunak tarteko, mugatik bost kilometroraino. Eta SDFkoak erretiratu egingo ziren eremu horretatik. Akordioak errespetatuz, SDFk eta YPGk euren arma astunak erretiratu zituzten Serekaniyetik [Tel Abyad] eta Gire Spitik [Ras-al-Ain]. Mekanismo horri jarraikiz, Turkiak eta AEBek batera patruilatuko zuten kurduen kontrolpean, Siriako iparraldean.

Urriaren 16an su-eten bitxi bat hitzartu zuten, ordea, Turkiaren eta AEBen artean.

Ez da halakorik gertatu munduaren historian: elkarren artean borrokan ez diren biren artean su-eten bat hitzartzea.... Eremu berean dauden bi estatu, NATOk kideak biak. Agerikoa da akordioaren ironia. Hamahiru puntuko akordio bat egin zuten, okupazioari zilegitasuna emateko. Trumpek hau esan zuen: «Kurduak birkokatu egin dira, eta kontuan hartu behar du lukete petrolioaren lurretara joatea. Petrolio eremuak ziurtatu ditugu». Hori esanez, iradoki zuen kurduak bidali egin behar zirela mugako eremutik Deir ez-Zorrera. Akordioan, onartu egin zuten Turkiak Siriako lurretan egindako inbasioa, eta kurduak bizi diren guneen garbiketa aurreikusi. AEBek Turkia gerarazi nahi dute kurduak euren lurretatik botatzearen truke; ez dadila errusiarrengana asko gerturatu. Era berean, AEBek nahi dute Turkia euren gerturatzera, Iran estu hartzeko planean.

AEBek Turkia babesteak zer esan nahi du? Estatu Islamikoren kontra SDFren eta AEBen artean sortutako aliantzaren amaiera al da?

Urriaren 13an, Trumpek, Fox Newsentzat ari zela, hauxe esan zuen: «Turkiarrak eta kurduak borrokan aritu dira

mendeetan. Kurduak ezin diete eutsi Turkiaren aire erasoiei; mugatik erretiratu behar dute. Guri alde egiteko ordua heldu zaigu». Hitz horiek baieztatu egin zuten AEBen erabakia: Elren kontra 2014an sortutako aliantza hautsita zegoen.

Erdoganen erregimenak ondo irabazia du nazioarteko arbuioa giza eskubideen eta demokraziaren alorrean, baina ez dirudi arbuioa nahikoa denik bere planak geldiarazteko.

Behatzaile politiko, intelektual eta idazle askok bat egiten dute esaten dutenean Erdoganen administrazioa diktadura faxista bat dela, etenik gabeko gerraren kudeatzaile dela, etxean nahiz kanpoan. Gerran tematuta dago badakielako amaitzen duenean kurduen kontrako jazarpena bukatu dela. NBEk, AEBek, Errusiak eta Europako Batasunak erabateko onespena eta babesa ematen diote turkiarren okupazioari, eta Erdoganek babes eskuzabal hori erabiltzen du. Ekialde Hurbilean dagoen anabasa primerakoa da Erdoganentzat, kurduen kontrako genozidio planarekin aurrera egiteko. Erdoganek Kurdistango demografia aldatu nahi du.

Kurduak Siriako etorkizunari buruzko eztabaidatik at utzi dituzte orain arte, eta NBEk premisa hori onartu du.

NBEk ez du erabaki garrantzitsurik hartu Siriako gerran. AEBek eraginik gabeko erakunde bat bilakatu dute, eta inpartziala gainera. Kurduak hautatutako ordezkariek ez dituzte gonbidatu Genevan hilaren 8an izan den bilerara, eta, aldiz, komunitatean boteretik eta eraginik ez duten ordezkariek gonbidatu dituzte. Gainera, bilerok ez dutela emaitzarik ikusita, erakusten du AEBen ordezko pieza bihurtu dela. NBEk, AEBek eta Errusiak ez dute gizarte demokratikoan oinarritutako sistema nahi: ekologista, askatzaile, feminista eta politiko-etikoa, gure lider kurdu Abdullah Ocalanek teorizatu eta PKK-k [Kurdistango Langileen Alderdia] babestutakoa. Ez dute gurea bezalako etsenplu demokratiko bat existitzea nahi Ekialde Hurbilean.

Badago ezberdintasunik AEBen eta haien aliatu Europako Batasunaren artean?

EB nahasirik egon da Ei Estatu Islamikoaren kontrako gerran, Iraken eta Sirian. Europako estatuak, AEBek bezala, herrialde kurdua onartzen eta aintzat hartzen dute. Ez dute onartu, ordea, administrazio



AEBek Turkia gerarazi nahi dute kurduak euren lurretatik botatzearen truke; ez dadila errusiarrengana gerturatu»

«SESb desagertuta, Errusiak eragina galdu zuen Ekialde Hurbilean; Siriako gerrarekin berriz sartu zen jokoan»

autonomoa. Ebk normaltaz jotzen ditu, batetik, HDP Herrien Alderdi Demokratikoren kontra Erdoganen gobernuak ezartzen duen presioa eta, bestetik, udal kurduen lapurreta. Europak antzeko erantzuna izan du Kurdistango okupazioari buruz: «Kezkaturik gaude. Erasoa gaitzes-ten dugu». Baina, era berean,

Ebk honako hau esaten du: «Ulertzen dugu Turkiako estatuaren kezka, segurtasuna dela eta». Modu horretara, Ankararen terrorea babesten ari da.

Errusia nola dago kokatuta Ekialde Hurbilean?

Sobietar Batasuna desagertu ostean, Errusiak nagusitasuna eta eragina galdu zituen Ekialde Hurbilean. Siriako gerra zibilarekin, zeina 2011n hasi zen, Errusia berriz sartu zen jokoan. Errusia Sirian egoitea ez doa ezin legeren kontra, Siriako Estatuak izan baitzen

Errusiari eskatu ziona gerran esku hartzeko, eta Errusiak aukera baliatu zuen. Himeymen, Latakian, base militarra jarri zuen, eta 2.000 militar ditu han; borrokarako 32 hegazkin eta hamasei helikoptero dauzka han, eta, gainera, misilen kontrako lurreko defentsa sistema bat. Errusiak Mediterraneoan duen itsas

base bakarra Sirian dauka, Tartusen. 1.700 militar dauzka han.

Iranen kasuan, zein dira Sirian egoteko dituen interesak?

Bereziki estatubatuarren jazarpena ahultzeko mugimendua da Iranena. Iranen estrategia da AEBei aurre egitea bere mugetatik urrun, nahiz eta batzuetan ez den horren urrun, Yemenen, Libanon edo Iraken ikus daitekeenez. Irango soldadu entrenatu eta trebatuak Siriara iritsi ziren, Baxar al-Asadek deituta. Elren kontra borrokatu dira, Al-Nusra, Tahrir'ux Sam eta Siriako Armada Askearen kontra. Iranek bere politika ildoekin bat egingo duen gobernu bat nahi du, Siriako gerraostean.

Israel ere ez da ahaztu behar.

Israelek ez du administrazio arabiar sendo bat nahi Sirian, ezta administrazio sunita-salafista bat ere. Bere mugetatik gertu du, eta administrazio ahul bat nahi du, barne arazok izango dituen. Horregatik, haren jarduna Siriaren oreken arabera izaten da.

Deusto

Fisioterapia*
Gradu berria

**Fisioterapia* +
Jarduera Fisikoaren
eta Kirolaren Zientziak**
Gradu bikoitz berria

Informazio saioa

Abenduak 19, osteguna **19:00**

Loiola Centrum
Donostiako campusa

Eman izena!
donostiakosaiok.deusto.eus

* Egiaztatzeko bidean



Atzo, kontseilu politikoan egin zuten UPNk Iruñeko Blanca de Navarra hotolean. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

UPNk martxoaren 29an egingo du kongresua, gerorako erabakigarria

Datorren astean batzordeak osatuko dira barne funtzionamenduko araudiei, printzipioei eta egitarauari buruzko txostenak lantzeko

- Javier Esparzari aurre egiteko asmoa azaldu du Sergio Sayasek

Joxerra Senar Iruñea

Oraingo bidetik jarraitu edo eraberritu. Hautu hori egin beharko dute datozen hilabeteetan UPN alderdi barruan. Atzo goizean kontseilu politikoan bildu zen, eta, amaitu ostean ingorritako prentsa oharraren arabera, XII. kongresuari data jarri dio: martxoaren 29a. Lau urtean behin egin ohi dute biltzarra, eta, aurreko aldie-tan bezala, oraingo honek aurrera begirako ildoak eta alderdiaren lema hartuko duen zuzendaritza taldea aukeratzeko ditu. Dena den, beste legealdi batez oposizioan geratu ondoren, etorkizunera begira erabakigarri izan daiteke kongresua, batik bat Navarra Sumaren apustuarekin zer egin era-bakitzeko orduan.

Kongresu horri begira, dato-

rren astetik aurrera, hiru hilabete pasako eztabaida prozesu bati ekingo dio alderdiak. Lehenik eta behin, batzordeak osatuko dira, eta alderdiaren funtzionamendu araudiari, printzipio politikoei eta programa ekonomiko eta sozialari buruzko txostenak landuko dituzte.

Marxoaren 10etik 12ra

Onartutako prozeduraren arabera, txosten horiek landu ostean, kontseilu politikoak berak eztabaidatuko du haren edukia. Horren ondotik, Nafarroan barreirata diren egoitzetara zabalduko dituzte agiriak, militantziak irakurri eta zuzenketak aurkeztu dituzan. Prozesu hori amaitzen denean, alderdiaren goi kargudunak aukeratzeko epea irekiko da. Aurreko prozesu hori bide onetik

badoa, alderdiak espero du martxoaren 10 eta 12 artean izatea kargudunen aukeraketa.

Gaur egun, Javier Esparza da presidente, baina haren adibideak ondo islatzen du zein malkartsua izan daitekeen alderdiko buruzagitzara heltzeko bidea. Izan ere, Yolanda Barcinaren agintaldi amaieran, higadura handia jasan zuten UPNren gobernuak, eta orduko presidente Barcinak uko egin zion hauteskundeetako hautagai zateari. Bozei begirako lehia hartan Esparza gailendu zitzaion Alberto Catalan, baina aurreko aldaketa ez zen nahikoa izan: 2015eko maiatzeko foru hauteskundeetan, UPNk porrot egin zuten gobernu lortzeko helburuan, eta uda hartan Yolanda Barcinak alderdiko presidentetzara utzi zuten behin betiko.

Urte hartako irailaren 27an, alderdiko lema hartu zuten Esparzak behin-behinean, eta, handik hilabete batzuetara egin zen kongresuan, lau urterako hautatu zuten: militanteen %83ko babesa lortu zuten. Oraingo honetan ere presidentetzara aurkeztuko da, eta faborito nagusia da.

Ikusiko da alderdiaren lema hartzeko orduan lehiakiderik izango ote duen aurrean. Asteon, Sergio Sayas diputatuaren izena aipatu da. Oraindik bere hauta-gaitza ofizial egin ez badu ere, Sayas berak ez du aukera hori baztertu, Cope irratiak egindako elkarrizketan: «Alderdiko pertsonekin hitz egingo dut, eta horren arabera hartuko dut erabakia». Sayasen erabakian eragina izan dezakete kongresurako hautagaiak aukeratzeko hauteskunder primarioetako emaitzek. Navarra Sumaren zerrendako ordena erabakitzeko orduan, Carlos Garcia Adanerori gailendu zitzaion Sayas, nahiz eta azken horrek parlamentuko eledun gisa pisu berezia izan alderdi barruan. Iraganean, alderdia bi bloketan berezita zenean, Sayas Barcinaren taldekoa zen. Urteotan, zatiketa hori lausotu egin bada ere, Sayasen inguruan jarraitzen dute Maribel Garcia Malo parlamentariak eta Fermín Alonso Iruñeko hautetsiak, adibidez.

Lau urteotan, Esparzak Navarra Suma koalizioaren alde apustu egin du, eta aurpegi berriak sartu ditu parlamentu taldean eta alderdian. Horien artean daude Yolanda Ibañez egungo idazkari nagusia, Jorge Esparza Antolamendu idazkari eta parlamentaria, eta Maria Jesus Valdemoros parlamentuan gai ekonomikoen arduraduna. Halaber, asteon Enrique Maia Iruñeko alkateak baieztatu du ez duela hautagaitzarik aurkeztuko, eta Esparzari babesa adierazi dio.

Talde propioa eskatu dute

Biltzarraz harago, asteon UPNk Espainiako Kongresuan talde propioa erregistratu du, España Plural izenekoa –euskaraz, España Plurala–. Talde horretan UPNko bi diputatuez gain, Coalición Canaria, PRC Kantabriako alderdi erregionalista eta Teruel Existe leudeke. Halere, arazoak izan ditzakete Kongresuko mahaiaren oniritzia lortzeko –besteak beste, UPN Navarra Suma koalizioarekin aurkeztu zen, eta PPK eta Ciudadanosek taldea dute–. Senatuan, Alberto Catalan senatoriak antzeko eskaera egin zuten, baina mahaia ukatu egin zion. Egun, Vox-ekin dago, talde mistoan.



ANALISIA
Joxerra Senar

Navarra Suma gehiago edo gutxiago

Gu gara Navarra Suma. Hor harmailetan gauden hogeit hamar parlamentari horiek». Osteguneko osoko bilkuran, horrela mintzatu zitzaion Maria Jesus Valdemoros parlamentaria PSN-ri, hark UPN bide okerretik zihola adierazi nahi izan zionean. Anekdotak horrek adierazten du uneotan UPNko hamabost parlamentariak koalizioaren barruan urtuta daudela, eta oraingoz proiektu komun horrekin identifikatzen direla osorik.

Alta, diskurtso ofizialestatik harago, sakonean borborka dagoen alderdia izan behar du uneotan UPNk. Iruñeko Udala eta Nafarroako beste hainbat udal garrantzitsu berreskuratu ditu, bai; baina Nafarroako Gobernuak gabe geratu da, eta iraganeko boterea ziurtatu dien *gaztatxoaren* beste zatia, PSN, euren gaitz gero eta alenduago dago. Madrillgo bi alderdi nagusien eskutik, are eskuinera joateko bidaia hartu du, eta PSNk zentraltasuna bereganatu die.

Sozialisten kontraesanak azpimarratuz, gobernuak higatzen dihardu buru-belarri eskuineko koalizioak, baina legealdia aldatu dela ez da jabetu: gauza bat da Barkosen aurka egitea eta beste bat etorkizuneko balizko solaskide izan behar lukeena goiz eta egun kritikatzeko. PPri bost axola, baina... eta UPNri?

Oso ongi adierazi zuten hori Miguel Sanzek duela gutxi: «UPN-ren irudia apur bat nahasita dago Navarra Suman». Denborak aurrera egin ahala, gero eta lausoago izango da UPNren marka. Bidegurutze horretan dator orain batzarra. Zer egingo du: marka berria sendotu, euren proiektua arriskuan jarri, ala bide propio bat hartu? Hain garai aldakorren, ez du hautu erraza: Navarra Suma gehiago... edo gutxiago.

BASQUE RAILWAY

KURSAAL-DONOSTIA 2020

Abiadura handiko sareak martxan jartzearen erronkak



Datorren **urtarrilaren 22an** egingo den eta Eusko Jaurlaritzak, Euskotrenek eta ETS-k elkarrekin antolatzen duten **BASQUE RAILWAY**, **Nazioarteko IV. Trenbide Jardunaldian** parte hartzera gonbidatzen zaitugu.

EMAN IZENA

Informazio gehiago eta izen emateak
www.basquerailway.eus



Foro Sozialak preso en auzian pausoak eskatu dizkio Sanchezzi

Euskal presoek sakabanatuta eta gradu gogorretan segitzen dutela salatu dute txosten batean

Irati Urdalleta Lete Donostia

«Basoa erdi hutsik edo erdi beteta ikus daiteke, baina gure helburua guztiz betetzea da». Hori dio Foro Sozial Iraunkorrek euskal preso en egoeren bilakaerari buruz. Atzo aurkeztu zuten *Aurrerape-nak, trabatzeak eta atzerapenak* txostena, Donostian. Bertan, euskal preso en egoerak 2018ko uz-tailetik 2019ko azarora izan duen aldaketa jaso dute.

«Zintzilik daukagun gai hori konpondu beharra daukagu», ziurtatu dute. Horretarako, iruditzen zaie Espainiako Gobernuak pauso gehiago eman beharko litzukeela kartzelako graduen inguruan, bakartzean eta gerturazteetan. Orain arteko erritmoak «zuhurregiak» izan direla ohar-tarazi dute. Diotenez, baliteke Espainiako Gobernuan «gatibutasun printzipioa» nagusitu izana «legaltasun printzipioaren» gainetik.

Hala ere, txosteneko datuei erreparatuta, iruditzen zaie Espainiako Gobernuak eta presoek badaukatela borondatea, baita sendotu dela ere adostasun politiko-a, erakundeetako, sindikatuena eta soziala. Gainera, beste aldaketa bat ere nabarmendu dute: duela urtebete «gizatasun» arrazoiekin lotzen zela preso en auziaren irtenbidea, baina, gaur egun, eragile guztiak bat datozela arrazoizko epe batean konpon-bidea bilatu beharra dagoela, euskal preso en ohiko espetze politika ezarritik. «Izan ditugun kontak-tuengatik, esan dezakegu Espai-niako Kongresuaren gehiengo ados dagoela bi puntu horiekin»,



Foro Sozial Iraunkorren agerraldia, atzo, Donostian. JON URBE / FOKU

Euskal Elkargoa Baionako manifestazioan

+ Euskal Elkargoak aho batez babestu du urtarrila-ren 11n Baionan preso en alde egingo den manifestazioa. Beraz, Ipar Euskal Herriko alkate-ak kalera aterako dira, «makilak eskuetan hartuta». Horrela, preso en aldeko erabakiak babestu nahi dituztela esan dute. Aldi berean, Emmanuel Macron Frantziako presidenteari bake prozesuaren aldeko «hitz poli-tak» betetzeko eskatu diote.

DATUAK

EUSKAL HERRIKO, FRANTZIAKO ETA ESPAINIAKO PRESO EN EGOERA

	2018ko uztaila	2019ko azaroa
Preso kopurua	280	246
Gaixo dauden presoak	21	19

HEGO EUSKAL HERRIKO ETA ESPAINIAKO DATUAK

	2018ko uztaila	2019ko azaroa
Preso kopurua	222	210
Gaixo dauden presoak	18	17
Lehen gradua	204 (%92)	128 (%61)
Lehen gradua, 100.2 artikuluekin	0	34
Bigarren gradua	14	45
Gerturatzeak	0	27
Baimenak	1	8
Bide judicialari heldu diotenak	114 (%51)	159 (%75,7)

*Frantziako preso daudenen datuak urtarrilean emango dituzte

nabarmendu dute. Biktima gehienek izandako «eskuzabal-tasuna» ere eskertu dute.

Euskal presoek Espainiako kartzelatan izaten dituzten arazoak azaleratu dituzte txostenen. Sakabanaketa da nabarmen-etakoa. 148 preso Euskal Herri-tik 520 eta 1.100 kilometro artean dauzkate espeteratuta, 57 preso 520 kilometro baino gutxiagora daude, eta bost euskal preso daude Euskal Herrian, guz-tiak gaixorik. Urrunen dauden 65 preso guraso ere badira, eta bost gaixo daude. 2018ko uztailetik, 27 preso gerturatu dituzte, baina bat ere ez dute Euskal Herria ekarri.

Sakabanaketa ez ezik, bakar-dadea ere jasaten dute. Hamabi emakume daude beste euskal preso rik ez dagoen emakumeen modulu-tan. Sei gizonek ere ez daukate beste euskal preso gizo-nik beren kartzelatan. Gainera, lehen graduan dauden 128 preso-etatik 31 erregimen itxiko unitate berezietan dauzkate –bakartze egoeraren antzekoa–, Sevillan, Kordoban, Huelvan eta Estrem-e-ran (Madril). Beste 27 Puerto de Santa Marian (Andaluzia), Teixeiron (Galizia) eta Mansillan (Gazte-la eta Leon) daude, lehen graduko modulu-tan. Gainerako 70ak, ber-ri-z, bigarren graduko modulu-tan edo ohikoetan daude. «Bakartze moduluak zigorrak bete-zeko soilik dira, eta ez iraunkorki hor egoteko», esan dute. Hala ere, zenbait euskal preso-k horre-lako modulu-tan urteak daramat-zatela salatu dute.

Gaixorik dauden preso en dago-kienez, gehieneko egoera ez da aldatu, eta larri gaixo zeudelako, espetetik irten ziren hiru euskal preso hil dira 2019an. Hala ere, ontzat jo dute bi kondena etetea eta beste bati zigorra etxean bete-zeko aukera ematea.

Senideak ere ez daude salbu. Izan ere, zortzi istripu –iaz baino bat gehiago– izan dituzte presoak bisitatza zihozela.

berri-laguna



www.elortzabotika.com

ONLINE DENDA

ZURE FARMAZIA SAREAN

Juan Gisasola kalea, 18 • 20600 EIBAR
Tel.: 943-20 61 00 • info@elortzabotika.com

Nº REG.: 46/19

Uemako kide bilakatu da Alkiza, mankomunitateko urteko batzar nagusian

Tolosaldeko herriarekin, orain 87 dira Uema osatzen duten udalerririk
• Arnasguneen garrantzia gizarteratzeko lana nabarmendu dute

Gozton Hermosilla

Urte amaierako batzar nagusia egin dute Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea osatzen duten 86 udalerriek Usurbilen (Gipuzkoa), eta Alkizak (Gipuzkoa) egindako eskaera onartu dute. Horrela, Uemako 87. udalerrria bihurtu da Tolosaldeko herria. 250.000 biztanleko lurgune euskalduna osatzen dute orain 87 udalerrien artean.

Horrez gain, 2019an egindakoaren balantzea eta 2020rako egitasmo garrantzitsuenak ere onartu dituzte batzarkideek. Nabarmendu egin dituzte azken urtean arnasguneen garrantzia gizarteratzeko egindako urratsak, EAEko Udal Legea garatzeko dekretuak udalei hizkuntza politika ausartagoa egiteko eman dien babes eta Eragin Linguistikoaren Ebaluazioak hartu duen pisua.

Euskararen erabilera areagotzeko udal planak ere aztertu dituzte Usurbilen bildutako ehun bat alkate eta zinegotziek. Gabiriako Udalak egindakoa erakutsi



Uemako ordezkariak, atzo, Usurbilen. GORRIKA RUBIO / FOKU

dute eredutzat, eta «inertziak lan egiteari utzi, eta kontzientziak eta irizpide batzuen barruan lan egiten hasteko» egindako urratsa nabarmendu dute.

Alkiza, arnasgune

Urriaren 29an egindako udal osoko bilkuran erabaki zuen Alkizak Ueman sartzeko eskaera egitea. Inaki Irazabalbeitia alkatearen hitzetan, «Alkiza arnasgune izanik ere, ez dago euskararen nor-

malizazioak dituen desafioetatik libre. Uemako kide izateak desafio horiei aurre egiteko baliabideak eskainiko dizkigu, bai udalari berari dagozkion zereginetan, baita gizartean eragiteko unean ere».

2016an argitaratutako datuen arabera, euskaldunak %91,3 dira Alkizan, baina datuek beheranzko joera txiki bat adierazten dute, 1996an %96,9koa baitzen euskaldunen kopurua.

Gizon bat atxiki dute Orion, etxean itxi ondoren

ORIO • Ertzaintzak 75 urte inguruko gizon bat atxiki du Orion (Gipuzkoa), eta zerbitzu psikiatrikoetara eraman dute, haren etxetik atera eta gero. Eguerdian partean zarratu zen gizona bere etxean. Ezaguna da herria, tiro probetan ibilitakoa baita. Olinpiar Joko batzuetan ere parte hartu zuen, 1976an, eta bazekiten gizonak armak zituela etxean.

Ertzaintzak, gertakari berri jakin orduko, itxi egin zituen inguruko hiru kale: Baiaresen kalea, Eusko Gudarien kalea eta Arrantzale kalea. Poliziaren negoziatzaile bat ere joan zen gizona zarratutako etxera, eta harekin hizketan aritu zen telefonoz.

Etxean bakarrik zegoela eta eskuetan armarik ez zeukala egiaztatu zutenean, ertzain talde bat etxera sartu zen, eta atxiki egin zuten gizona. Atea bota zuten sartzekoan, eta gizonak ez zuten erresistentziarik jarri.

15:30 aldera gertatu zen hori, eta ambulanzian batean eraman zuten. BERRIAk kontsultatutako iturrien arabera, zerbitzu psikiatrikoetara eraman dute.

Jaurilaritzako Segurtasun Sailak baieztatu egin du gizonak armak zituela etxean. Antza denez, bizilagun batekin eztabaida izan ostean itxi zen gizonak bere etxean.

Amorruaz kutsaturik zegoen eria hil egin da

BARAKALDO • Gurutzetako ospitalean (Barakaldo, Bizkaia) amorruaz gaixoturik zegoen gizonak hil egin da, Osakidetza jakinarazi duenez. Atzerrian zela katu batek hozka eginda kutsatu zen gizonak. Osasun Publikoko Zuzendaritzak argi utzi du hemengo etxeko animaliek ez dutela amorruak.



Iruñeko ekitaldia. VILLAR LOPEZ / EFE

‘Bortxatzaile bat zure bidean’ Iruñera iritsi da

IRUÑEA • Dozenaka emakumeek Bortxatzaile bat zure bidean izeneko koreografia feminista egin dute Iruñean, feminizidioa eta indarkeria matxista salatuz. Performance horrek Txilen du jatorria, eta mundu osoan hartu du indarra. Txilen gertatzen ari diren «giza eskubideen urraketak» ere gaitzetsi dituzte.

Hilberriak

ESKELAK

(0034) 943-30 40 30
eskelak@bidera.eus

Jokin Sagarzazu

Euskal Herriko hainbat enpresatan gertatzen da; metalgintzakoetan, adibidez: lan bera egiteagatik, langile azpikontratatu batek hilean batez beste 500 euro gutxiago kobratzen ditu enpresa nagusikoak baino, eta lanegun gehiago izan ohi ditu. Baina badago beste ezberdintasun bat, oinarrizkoagoa: enpresa nagusiak beste azpikontrata bat hartuz gero, beste hori ez dago derrigor-tuta aurrekoaren beharginak hartzera. Hori ez da gehiago gertatuko Bizkaiko metalgintzako sektorean mantentze lanetako langileekin. Subrogazio eskubidea aitortzea lortu dute sektoreko lan hitzarmen berrian.

«Soldatak, seguruenik, ez dira berak izango, baina langile azpikontratatuak gainetik kenduko dute aldiro-aldiro kaleratuak izateko buruan zuten Damoklesen ezpata. Oso lorpen garrantzitsua da», azaldu du Xabier Ugarte-mendia LABeko negoziatzaile eta ekintza sindikaleko idazkariak.

Sindikatu guztiek azpimarratu dute Bizkaiko metalgintza izan dela lehenengoa Euskal Herriko industriaren sektorean subrogazio eskubidea jaso duena lan hitzarmen batean. Haien ustez, ez da «nolanahiko garaipena» izan, eremu horretako patronala betidanik izan baita «uzkurrena» eskubide hori aitortzen, «administrazio publikoarekin batera».

Lan ituna babestu ez duten sindikatuek ere txalotu dute lorpena. «Aurrerapauso bat izan da; besteak lortu duten akordiotik elementu positiboena hori da», onartu du Pello Igeregi ELAko negoziatzaile kolektiboko arduradunak.

Zortzi eguneko greba bat haste-ko zorian zeudela lortu zuten akordioa, eta, hain justu, subrogazioaren gaia izan da negoziatzaile etako «Gordio korapiloa», Garbiñe Espejo CCOOko ekintza sindikaleko arduradunaren arabera. Hala berretsi du Jose Luis Lopez FVEM patronalako presidentek ere. «Hori izan da punturik gatazkatsuenak», aitortu zion BERRIARI, atzo argitaratutako elkarrizketan.

Metalgintzan azpikontratatuakoen erdiei eragingo die neurriak, gutxi gorabehera; mantentze lanetan aritzen diren langileei. «Behargin horien artean izaten ziren egoera larrienak», azpimarratu du LABeko kideak. ELAkoak, berriaz, azaldu du bere sindikatuaren asmoa zela sektoreko azpikontra-



Mercedes-Benzek Gasteizen duen fabrikako bi langile.

RAUL BOGAJO / FOKU

LANA, BERA; ESKUBIDEAK, EZ

Bizkaiko metalgintzako hitzarmenak subrogazio eskubidea aitortuko die mantentze lanetan azpikontratatuak langileei, industria eremuko itun batean lehen aldiz. Sindikatuentzat, neurri horrek berebiziko garrantzia du prekaritatearen aurkako borrokan. Sektore guztietara zabaldu nahi dute.

tatu guztiei zabalzea eskubide hori, eta, bereziki, zerbitzu anitzeko enpresetakoiei. «Oso-oso egoera prekarioan dauden hainbat langile geratu dira akordiotik kanpo. Gehiago lortu zitekeen, egoera tenkatu izan bagenu.»

Beste bi sindikatu etako kideen ustez, «ate bat» zabalzea lortu dute, sektoreko beste langileentzat eta beste lurraldeetako lanituzentzat. Espejok iragarri du Gipuzkoako negoziatzaile mahaia ak-

tibatze eskatuko duela bihar CCOO. «Subrogazioaren gaia eramango dugu; ea noraino iristen garen.»

Denek aitortu dute ez dutela lan erraza izango. Eremuko patronalaren jarrera uzkuraren oinarrian industria sektorearen «berrezitasunak» daudelako. «Konkurrentzia handia dago, eta enpresek nola edo hala merkatu nahi dituzte kostuak. Lan asko kanporatzen dituzte, eta aldiro ari

dira aldatzen azpikontratez eta, beraz, langileez», azaldu du Igeregik. «Patronalak dio balio erantsia enpresek ematen dutela, eta ez langileek; Euskal Herria azpikontraten herri bat dela, eta, horrela ez bada, lehiakortasuna galtzeko arriskua dagoela. Hori ezin dugu onartu.»

Legearen mugetan

Subrogatorako eskubidea aspaldikoa da Hego Euskal Herrian

—1980ko Langileen Estatutuan jasota dago—, eta «arazo handirik gabe» bete izan da; bereziki, enpresetako jabeak aldatzen zirenean. Baina 2012. urteko lan erreformak eta, horrekin lotuta, azpikontratazio modu berriek eta horien gorakadak beste dimentsio bat eman diote auziari. Sindikatuek lan baldintzen prekaritatearekin lotzen dute zuzen-zuzenean: «Enpresa batean azpikontratatuak langileak izaten dira pre-



subrogazioaren aldeko lehen boroak; jantokietako langileak etorri ziren gero. Haiekin batera, Osakidetzako anbulantzia zerbitzuetako beharginak, telemerketinek, kiroldegietako begiraileak... lortu dute euren lan hitzarmenetan sartzea eskubide hori. Eta borrokan jarraitzen dute beste hainbat sektoretan: bulegoetako langileak, sorosleek... «Botila betetzen hasi gara. Zabalitzen diren negoziatio guztietan saiatzen gara sartzen», azaldu du Espejok.

Enpresetako jarduerak edota zerbitzuak kanpora ateratzeko hainbat era daude: aldi baterako lan enpresak (ABLE), azpikontrata arruntak, zerbitzu anitzeko enpresak eta *autonomo faltsuak*, esaterako. ABLE-ek zabaldu zuten bidea, 1990eko hamarkadan. Baina Europak hainbat mugajari dizkie; egun, ABLEetako beharginen lan baldintzek enpresa nagusikoen berberak izan behar dute.

Baina ez dago halako neuririk azpikontratetako langileentzat eta, bereziki, zerbitzu anitzetako enpresetakoentzat. Lan hitzarmen propioak izaten dituzte, eta hori izaten dute euren bezeroei ematen dieten abantailak; askotan, lan beragatik ia erdia pagatzen baitiete langileei. Soldataz harago, lan ordu eta jardunaldi partzial gehiago dituzte. Enpresa nagusiek, halaber, kanpoko zerbitzuak kontratatzean, erantzukizun batzuk kentzen dituzte gaineratik: kaleratzeen ingurukoak, adibidez.

Zerbitzu anitzeko enpresak

Are nabarmenagoa da hori zerbitzu anitzeko enpresen kasuan. Kasu askotan beren kabuz aukeratu dute zer hitzarmen ezarri langileari. «Normalean, merkeena», azpimarratu du Igeregik. «Guk esaten dugu sektoreko hitzarmena aplikatu behar dutela, eta haiek esaten dute zerbitzu enpresenarenak duela lehentasuna, edo estatukoak». Kasu horietako askok auzitegietan amaitu dutela gogoratu Espejok. «Hainbat sektore biltzen dituztenez, askotan ez dago modurik jakiteko zer hitzarmenekin dituzten langileak».

Eraikuntzako talde handiak daude zerbitzu anitzeko enpresa handienetako batzuen jatorrian: Acciona, ACS (Clece), FCC, Ferrovial, OHL (Ingesan), Sacyr... Eraikinen garbiketan, errepideen garbiketan, lorezaintzan, biltegi lanetan, segurtasunean eta beste hainbat alorretan aritzen dira. Eta azpiegituren, energiaren eta uraren sektoreetako azpikontrata publiko gehienak dituzte.

Gainera, beharginen baldintzak hobetzeko bide tradizionalak ez di-

SUBROGAZIO ESKUBIDEA

Zer da?

Kontratatzaile aldaketa bat dagoenean, berriak bere gain hartu behar ditu aurreko kontratatzaileak bere langileekin hitzartuak zituen betebeharrak eta baldintza guztiak. Bereziki, azpikontratetan du eragina subrogazioa. Enpresa itun batek jaso dezake subrogazio eskubidea, baina, enpresa biak lotzeko —nagusia eta azpikontratata—, sektore hitzarmena da berme bakarra.

Bestalde, subrogazioa ez da enpresa nagusiaren lan baldintza berberak ezartzea langile azpikontratatuari. Eskubideak parekatzea da hori, eta sektore hitzarmen batzuetan jasotzen da.

Motak

Enpresen segida. Subrogazio modu klasikoak. Langileen Estatutuaren 44. artikulua arabera, enpresa batean jabetza aldaketa ematen denean, kontratatzaile berriak bere gain hartu behar ditu langileak eta beren eskubide guztiak. Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren arabera, baina, kasuan-kasuan aztertu behar da segida dagoen ala ez eta, beraz, jabe berria subrogaziora behartuta dagoen ala ez.

Hitzarmenezkoa. Sektoreko hitzarmenean jasotzen denean langileen subrogazioa bermatu behar dela.

Zerbitzuen amaiera. Azpikontratari kontratua amaitu eta berria egitean, enpresa horrek eta berriak berri kontratatu behar dituzte beharginak, eta lan baldintza berberetan. Hori bermatzeko, sektoreko lan hitzarmenean jaso behar da; funtsean, hitzarmenezko subrogazioa litzateke.

Administrazioa. Azpikontratazio agirietan azaldu behar da subrogazio eskubidea.

Eragin nagusiak

- Kontratatzaile berriak lan baldintzak mantendu behar ditu, baina batzuk alda ditzake: soldatak eta lanegunak, adibidez. Hala eta guztiz ere, ezin du sektoreko hitzarmena urratu.
- Langileak ez ditu antzinatasuna eta kategoria galtzen; ez da hutsetik hasten.
- Langile subrogatuaren kaleratzea bidegabekoa da.
- Langileak ez du kitzate agiri edo ordainketarik jasotzen kontratu aldaketan.
- Aurreko kontratatzaileak ordaindu behar ditu langileekin zituen zorrak, subrogazioaren aurretik.

ra oraindik behar bezala egokitu enpresa horien errealitateari. Lantokien eta lantaldeen sakabanaketak, besteak beste, zaildu egiten du sindikatuen presentzia eta lana. «Langile horiek beldur handia izaten dute borrokatzeko; egiten badute, beste enpresa bat kontratatuko dute, eta beraiek kalera joango

trazioak kanpora ateratzen dituzten zerbitzuak», esan du Igeregik. Eskubide hori gauzatu ahal izateko azpikontratazio agirietan azaldu behar du, baina hori ere ez da nahikoa. «Soilik sektoreko hitzarmenak ematen dute benetako segurtasuna».

ELAk herri ekinaldi legegile bat eraman zuen Eusko Legebiltzarrera 2014an, beste hainbat eskaerakin batera subrogazioa ere jasotzen zuena, baina ez zuen aurrera egin. LABek ere hainbat kanpaina egin ditu kontratu publikoetan «klausula sozialak» sartzea eskatzeko. Eta CCOOK 2018ko

Bizkaiko industriaren sektorean azpikontratatu dauden langile guztien erdiei eragingo die neurriak

Sindikatuaren arabera, subrogazio eskubidea bermatzeko modu bakarra da lan hitzarmenetan jasotzea

dira. Horregatik ere da inportantea subrogazio eskubidea, langileei ematen dielako protestarako askatasuna», azpimarratu du Igeregik.

Administrazioko «zuloa»

Administrazioan dago beste «zulo beltza», sindikatuen arabera. Erakunde publikoetan azpikontratatu lan egiten dutenek ere ez dute «guztiz» bermatua subrogazioa. «Gero eta gehiago dira adminis-

trazioko azpikontratatuak jasotzen dituzten publiko guztietan.

Nafarroan, berriz, iaz onartutako Kontratu Publikoen Legeak subrogazio eskubidea jasotzen du zerbitzuetan eta zerbitzu kontzesionunetan azpikontratatuak langile guztientzat.

La Perla
DONOSTIA

OPARITU ETA GOZATU
ONGIZATEA

WWW.LA-PERLA.NET

TALASOTERAPIA | OSASUNA ETA EDERTASUNA
GIMNASIOA | GASTRONOMIA

karioetan prekarioenak», azpimarratu du CCOOKo kideak.

Hala, subrogazioaren aitorza beharrezkotzat jotzen dute sindikatuek. Igeregik gogoratu duenez, urtarriaren 30erako Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak —ELA eta LAB tarteko— deitu duen grebaren «aldarrikapen nagusienetako» bat izango da.

Mariano Rajoyren gobernuaren (PP) erreformak eman zuen modua azpikontrata dituzten enpresetan ituen desberdinak aplikatzeko langilei; enpresa nagusiarena batzuei, eta azpikontratarenak beste batzuei. Hala, sektoreko hitzarmenean jaso ez ezean, azpikontratatuak eskubideak. Besteak beste, lanean eta baldintza berberetan segitzea kontratatzaile aldatuz gero. «Azken urteetan azpikontratatuak langileen kaleratzeak oso ohikoak bihurtu dira. Produktzio kostuak merkatzeko, azpikontratazio merkeenak aukeratzeko dituzte enpresek», gogoratu du Espejok.

Garbiketa sektorean izan ziren



Fridays For Future plataformako kideek ostiralean Madril en egindako elkarretaratzearen irudia. FERNANDO VILLAR / EFE

Herrialdeak trabatuta daude klima larrialdiaren inguruko goi bileran

COP25ek ez du espero zitekeen emaitza izan, bi asteko negoziazioen ostean eta egun bat luzatuta ere • Gobernuz kanpoko erakundeek salatu dute azken zirriborroa «erabat onartezina» izan dela

Kristina Berasain Tristan

Parisen duela lau urte, ozta-ozta izan bazen ere, klima larrialdiaren aurkako «lehen akordio unibertsala» adostu zuten estatuek. Nahiz eta hasieran uste baino lausoagoa izan, itunak, lehen aldiz, marra gorri bat ezarri zuen: mende amaierarako planetaren tenperatura bi gradu baino gehiago ez igotzea. Parisko akordioa, baina, zaharkituta geratu da artean martxan jarri ez arren. Berez abiatzearen dagoen urtean sartuko da indarrean, eta, data horren atarian, estatuak ohartu dira, adituek premiaz jokatzeko ohartarazi ondoren, isurketak murrizteko hartutako konpromisoak ez direla aski. Parisen adostutako neurriekin, 3,2 gradu igoko litzateke planetaren tenperatura mendearen amaierarako.

Parisko COP21 hartan, berez, goiera 1,5 gradukoa izateko aha-

legina egiteko promesa baino ez zuten egin. Madrilgo COP25 goi bileran, bada, ezinbestean, promesetatik haratago joateko garaia zen. Bi asteko negoziazioen ostean ostiralean amaitu behar zuten goi bilerak, baina, beste egun bat luzatuta ere, ez du espero zitekeen emaitza izan.

Jarrera antagonikoak

Carolina Schmidt Txileko Ingurumen ministro eta goi bilerako presidentek bezperan desadostasunak zeudela ikusita, gauean ere negoziazioetan aritzeko eskatu zien nazioarteko ordezkariak, goizalderako itun bat izango zuten itxaropenarekin. Goizean, baina, zirriborro bat baino ez zuten. Schimdek aitortu zuen ordezkarietako «lan handia» egin zutela, baina agerikoa da bi jarrera antagonikoekin ezin dela aurrera egin. Batzuek asmo handiagoko ekintzak eskatzen dituzte,

eta beste batzuek, berriz, malgugaro jokatzeko eskatzen zuten. Neurri batean, abiadura ezberdinetan garatu diren bi munduren ordezkariak talka egiten dute.

Atzo arratsaldean beste testu bat aurkeztu zuten. Haren gainean eztabaidan aritu ziren, baina adostu ezinik, eta gauerdia atzeratu zuten itxiera ekitaldia. Oro-tara 200 bat herrialdetako ordezkariak daude goi bileran, eta horietatik 84 prest agertu dira gas isurketak murrizteko konpromisoak areagotu eta nazio planek jada martxan jartzeko. Tartean daude Alemania, Frantzia, Erresuma Batua eta Espainia. Txinak, Indiak eta Errusiak, aldiz, epeak luzatzeko eskatzen dute. Aintzat hartu behar da, gainera, Ameriketako Estatu Batuak Parisko akordiotik at daudela, eta lau herrialde horien emisioak batuz gero, berotegi gasen isurketen %55 direla. Afrikako hainbat esta-

tuk, berriz, azkarrago garatu diren herrialdeek duten erantzukizuna handiagoko dela argudiatuz, eskatzen dute haietako eskakizunak malguagoak izateko.

Karbono merkatua

Karbono merkatuaren arauketa da negoziazioa zailtzen ari den beste puntuetako bat. Parisko Hitzarmeneko 6. artikulua tresneria juridikoa da negoziazioen traba handiena. Kyotoko Protokoloak 1997an aurrekusi zuen isurketak erosteko aukera, baina, salerosketa horretan herrialde batzuek kredituak pilatu dituzte, eta horiek erabiltzen jarraitu nahi dute aurrerantzean ere. Brasil tesi horren alde dago, herrialde hori baita kreditu gehien pilatu dutenetako bat. Beste herrialde batzuek, ordea, uste dute horiek agortutak eman behar direla, gauri berri bat ekin behar zaiola. Costa Ricak, adibidez, mekanis-

mo «justu eta egonkor» bat eskatu du, eta estatu horrek horren harira aurkeztutako printzipioekin bat egin dute beste 27 estatuk, horien artean Alemaniak, Frantziak, Erresuma Batua eta Espainiak. Testuak jasotzen dituen 11 neurrien artean kontabilitate bikoitza ekiditeko neurria da aipagarriena, erosleek eta saltzaileek murrizketak puzea eragozteko.

Gobernuz kanpoko erakundeek kritika erabatekoa egin diete negoziazioei. Azken zirriborroa «erabat onartezina» zela salatu zuten: «Parisen duela lau urte hitzartutakoaren copy paste bat da. Txileren eginkizuna zen akordio hura babestea, zinismoak suntsitu ez zezan, baina horretan ere huts egin du kutsatzaileen alde jarritako». Zientziak esan eta gizarteak aldarrikatzen duenaren eta estatuek eskaintzen dutenaren arteko arrakala inoiz baino handiagoa dela ohartarazi dute.

LEKU-LEKUTAN
Urtzi Urrutikoetxea



Faroeraz bizi

Faroeharteko lagun batekin hitz egiten dut tarteka. Kazetaria da, duela urte pare bat bisitatu gintuen Kataluniako egoeraren aitakian, eta noizean behin han goian gauzak zelan doazen galdetzen diot. Lortu ote duten buxadura politikoa gainditzea behingoan erreferendum batera deitzeke –independentsiatik oso hurbil jartzen zituen estatus bati buruzkoa iragarri zuten, baina gero alderdiek ez zuten horretarako beharrezko adostasunik lortu–.

Faroetako unibertsitateko irakasle baten kontaktua eman dit egunotan, eta hizkuntza normalizazioaz aritu gara. Faroetarrek badute euren hizkuntzarekiko harrotasuna eta hari eusteko sena, baina ez dute euren burua hizkuntza gutxitua duen nazio gisa ikusten, faroera nagusi baita uharteetan. Arnasgune handi bat da artxipelagoa; uharteen subiranotasuna daukan estatua urrun daukate itsasoz beste aldean. Historikoki garrantzia izan badu ere, egun daniara ez dago munduko hizkuntza aipatueneren zerrendan, nahiz eta eskandinaviarren artean jokatu izan duen zubi-lanen bat.

Arriskutsua ere bada nagusitasun irudipen horrekin bizitzea, minorizazioaren kontzientzia galtzea eta egoeraz ezin jabetzea ere ekar baitezake. Bai, faroeraz bizi dira uharteetan ia erabat. Baina umek daniaraz ikasi behar dute eskolan, eta telebistan eta zinemetan eta literaturan daniara dute mundurako zubi.

«Danimarkako telebista guztiak ikusten ditugu hemen, eta nazio-arteak ere, Netflix eta abar, Danimarkako sistematik datoz», esan dit. Hau da, daniaraz azpitatuta. Umeentzako marrazki batzuk faroerara bikoizten badituzte ere, beste askotan zuzenean daniaraz emittitzen dute, telebistan zein zineman. Umeak txikitatik daniararekiko igurtzi horretan hazten dira, aisialdirako hain garrantzitsu zaien tresna horretako gehiena beste hizkuntza batean datorrela barneratuta lehen urteetatik. Kopenhagetik 1.300

kilometrora daude airez zein itsasoz, baina «natural» itxura daukan era horretan murgiltzen dira faroetar umek Danimarkako kulturari.

Egia da, lehen begiratuan, horrek guztiak ia ez diola higadura-rik ekarri Faroetako hizkuntzari: uharteetako lehen hizkuntza da, bertako guztiak dakite eta egunerokoan nagusi da leku gehienetan. Baina txikitatik hebiditeetan ikasitako jokabideak eta hizkuntzen mailakate horrek badu eraginik danimarkarrek Faroetara doazenean, bai bisitan baina baita bizitzera ere. «Asko kexu dira zail zaiela ikastea, hizkuntza-familia berekoa izan arren, askotan errotulazioak daniaraz direlako eta jendeak daniaraz egiten dielako».

Horratx Islandiarekiko aldean: Kopenhageren menpeko kolonia ziren duela mende bat, baina islandiarrek lortu zuten independentzia gauzatzea 1946an (Faroehartean ere orain arteko aha-

legin serioena egin zuten II. Mundu Gerraren osteko testuinguru horretan: han ere erreferenduma egin eta irabazi egin zuten, baina ozta-ozta lortu zuten garaipena, Islandian ez bezala. Kopenhagekin onartu ez, hauteskundeetara deitu, eta unionistek irabazi zituzten). 73 urtez estatu independentea dauka Islandiak, eta ia mende batez egon da Danimarkatik bereizita, I. Mundu Gerra ostean burujabetza eskuratu baitzuen. Ordutik islandierak bere bidea egin du, daniararen morrontzitik kanpo. Agian arriskutsuagotik den ingeles hegemonikoarekiko herrena erakusten du azkenaldian, bertara bizitzera joan diren batzuek islandieraz ikasi ez eta ingelesez egiten ote duten. Edozelan ere, islandiarrek jakin bai baina nekez egiten dute ingelesez elkarrekin –norvegiarren edo nederlandarren antzera–.

Faroetarrek euren hizkuntzarekiko harrotasuna dute, hari eusteko sena, baina ez dute euren burua hizkuntza gutxitua duen nazio gisa ikusten

Faroetan ere daniarari bizkar ematea ingelesaren bidetik omen dator, gazte askok ez dutelako daniarazko bertsiarik nahi, eta gurasoek ere, daniarara bikoiztutako marrazki bizidunen ordez, ingelesezko jatorrizkoa hobesten dutelako. Datozen asteetan udalerrri euskaldunenetakoa gurasoek ere espainolik ez dakiten umeak poz- pozik eramango dituzte herriko zinemara, gurasoei errazago zaien hizkuntzan murgiltzera. Euskaraz beharko lukete, baina inork ez du exijitzen, Katalunian ez bezala. Eta gurean egon ezean, igurtzi hispanikoa mugatu eta europar gehienekin hitz egiteko balioko liekeen hizkuntzara hurbiltzeko aukera ere galtzen dute.

Azken ohar bat: behin baino gehiagotan kritikatu izan ditut bazterrotan diren zinemaldiek euskararekiko duten jarrera. Mendi Film Festivalen programa begiratura, itzelezko urratsak egin dituzte, hizkuntza-egoera konplikatuak daukan herrialde bateko errealitatera egokitzeko: euskarazko eta espainiarazko azpidatziekin proiektatu filmen erdiak, jaialdia bera arduratuta ingelesez edo beste erdara batzuetan igorritako testuak euskaratzeaz. Beste erdia dago egiteko, baina borondate argiaren adierazle da; orain arteko jaialdiek, zinema arteok, eta udal euskaltzaleek ere erakutsi ez duten legez. Bejondeiela.

2014tik protestarik handiena egin dute Thailandian

BANGKOK • Thailandian 2014an estatu kolpea eman zutenetik, protestarik handiena egin zuten atzo. Oposizioeko Etorkezuna Aurrerera alderdiak deitutako manifestazioak milaka lagun elkartu zituen. Junta Militarren kontrako ahots kritikoa da.

Al-Baxir presidente ohiari lehen zigorra ezarri dio Sudanek

KHARTUM • Omar al-Baxir Sudango presidente ohiak apirillean eman zuten dimisioa kalean bere kontrako protestak zabaldu ostean. Justiziak lehen zigorra ezarri zion atzo: bi urteko kartzela zigorra ustelkeriagatik. Beste auzi batzuenatik ere epaitzen ari dira.

PDeCAT alderdia JxCren barruan arituko da

BARTZELONA • PDeCAT Alderdi Demokratikoa Europar Katalana JxC Junts per Catalunya barruan arituko da aurreratzean. Convergencia desegitean sortutako alderdiak, beraz, Carles Puigdemontek sortutako alderdia sendotzeko egin du urratsa.

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEAK IKUS-ENTZUNEZKOEN SAILERAKO ERREDAKTOREA BEHAR DU

Egitekoak:

1. Ikus-entzunezko kazetaritza lana (telebistarako, webetarako...).
2. UKTko erredakzio taldean sortzen diren kazetaritza lanak.

Bete beharreko ezaugarriak:

1. Kazetaritza edo ikus-entzunezko komunikazioan goi titulua izatea eta esperientzia bermatua ikus-entzunezkoen arloan.
2. Euskaraz hitzez lan egiteko gai izatea eta gaztelania egoki menderatzea.
3. Gidabaimena eta auto propioa.
4. Taldean lan egiteko eta ardurak hartzeko gaitasuna.

Aintzat hartuko dugu:

1. Frantsesa edo ingeleza menderatzea.
2. Kazetaritza idatzian jarduteko gaitasuna.

UKT

Hautagaiak bere CV abenduaren 20a baino lehen bidali behar dute zuzendaritza@ukt.eus helbidera

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEAK IKUS-ENTZUNEZKOEN SAILERAKO ZUZENDARIA BEHAR DU

Egitekoak:

1. Telebista edo ikus-entzunezkoen arloko antolatzaile eta koordinatzaile.
2. Ikus-entzunezkoen arloko estrategia garatu lan taldean.
3. UKTko erredakzio taldeari dagokion lanak egin.

Bete beharreko ezaugarriak:

1. Kazetaritza edo ikus-entzunezko komunikazioan goi titulua izatea eta esperientzia bermatua ikus-entzunezkoen arloan.
2. Euskaraz hitzez lan egiteko gai izatea eta gaztelania egoki menderatzea.
3. Gidabaimena eta auto propioa.
4. Proiektuak gidatzeko ekimena eta taldean lan egiteko gaitasuna.

Aintzat hartuko dugu:

1. Frantsesa edo ingeleza menderatzea.
2. Proiektuen kudeaketa estrategikoa edo antolaketan ikasketak edo esperientzia izatea.

UKT

Hautagaiak bere CV abenduaren 20a baino lehen bidali behar dute zuzendaritza@ukt.eus helbidera

Kontsultatu gure gaitasunak

2020rako egutegi pertsonalizatuak egiten ditugu

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

paretekoak, mahai gainekoak...

bidera@bidera.eus
943-30 35 55 / 607-78 73 04
berria taldea
www.bidera.eus

bidera
zerbitzuak

Noiz arte?

Suposatzen da banana bat zinta itsasgarriaz hormari lotzea artetzat jotze-ri buruz ni hemen idazten egoteak bezar arte bilakatzen duela, artistaren burutazioak artearen kontzeptuaren gaineko inarrosaldia eragin omen duelako. Ez nago ados.



JIRA
Angel Erro

Egunotan notizia izan da gorago deskribatu duen bezalako artelana 120.000 eurotan saldu dutela arte galeria batean. Hau egia bada, eta ez autpromoziorako salmentasmaturia (ez zen lehen aldiz izanen), eskandalagarria iruditzen zait, baina ez ni XIX. mendeko burges zurrun bat banintz bezala eta hormari itsatsitako bananak nire hatsarre moralak edo artearen inguruko nire ikusmoldea astinduko balitu bezala. Artea ekonomia espekulatibo eta hitzontzikeriaren mailara eramaten duelako baizik. Galeriak saldatuko obra berez kontzeptua da. Erosleak ez du banana eramanen etxera, obra erreproduzitzeko eskubidea baizik. Obra salmentaren agiria baino ez da. Eragin dezakeen ezinegon edo eskandalua ere bai.

Cattelan artistak (edo Perrotin galeriak) obra beraren beste bi ale jarri ditu salgai. Bigarrena saldu omen dute. Hirugarrena museo batek erostea nahi dute. Arte erakundeen bermea behar dutelako (legitimaziorako, balioa handitzen jarraitzeko). Lortuko dute. Hori ere da eskandalagarria.

Babesa

Denok gaude beraz maiteminduta. Umea da oraindik, baina parte hartzen duen gauza guztietan berea ematen du. Bertsolaritzan izan dituen irakasle guztiak maite dute, eta bestelako herri ekimenetan ezagutu dugunoi atentzioa eman digu bere jarrera baikorrak, beti irribarre egiteko joerak.



BIRA
Onintza Enbeita

Ez dakit norbaitek esateko zain egon garen edo, baina batek aipatu du babestu egin behar dugula. Eta orduan, denok esan dugu baietz; denok hitz egin dugu hari berean. Ez da bere adineko mutilen prototipora eraikitako umea: desberdina da. Eta guk, helduok, horretaz konturatu behar genuke enok hurbiletik zaindu behar dugu egoera. Ezer inbaditu gabe, jakina. Ez genuke bazterketarik eta intentzio txarreko barrerik onartu behar.

Ez, ez dira umeen kontuak. Guk urteetan onartu nahi izan ez ditugun gauzak ordaintzen dituzte orain umeek; oso garesti ordaindu ere. Guk normaltzat hartu nahi ez duguna da umeentzat barregarria dena. Eta ez dago eskubiderik. Ez dago eskubiderik gure itxikeria eta utzikeria guztia etorkizunean proiektatzeko. Eta nik uste dut hori dela saihestu behar duguna. Babestu egin behar ditugula gizartearentzat normalak diren gauzetatik urruntzen diren umeak. Horiek direlako libreen heziko direnak eta benetan normalenak: euren bulkaden arabera biziko direnak.

Alizia, eta Marmota, Godoten esperoan

Jule Goikoetxea
EHUko irakaslea

Gortina ireki da. Marmota bat ageri da banku batean eserita; bat-batean, eskal txapel kiribildua daraman hankarik eta besorik gabeko pampina ilehori bilakatu da eta bere kotoizko altzotik konstituzio bat eta hiru ispilu atera ditu.

Obraren izena?

Alien Godoten esperoan. Hotz. Alizia marmotaren lurralde miresgarrian? Epel. Acción mutante? Bero. Alizia mutantea espainiar konstituzionalismo godotiar, zaharruno eta patriarkalean? Erreta!

EAEko estatus politikoa berritzeko hiru testu artikulatu aurkeztu dira, baina bakarrak du EAJren, PSOEren eta Podemosen adostasuna. Legebiltzarrak 2018an onartutako ponaentzia zilegiarekin apenas zerikusirik duen testu adostu horrek ez du herriarren %70ek eskatzen duen erabakitzeko eskubidea efektiboki (eta ez erretorikoki) barneratu, eta herriarren %75ek eskatzen dituen politika sozialak egiteko behar diren mekanismo blindatu oro neutralizatzeke berme juridikoa berretsi du. Ez da konfederalismoa aipatzen (Legebiltzarreko ponaentzian hainbatetan aipatzen zen), ezta Kontzertu Politikorik ere. «Zaintza» ez da agertzen erdigunean jarri beharreko lan eta kontzeptu politikoa gisa, ezta eskubide/gaitasun bermatu gisa, Mexikoko hiriko konstituzio berrian agertzen den moduan. Akaso, eskal konstituzionalismoa espainiar konstituzionalismoa bezain zaharrunoa, liberala, teknokrata eta patriarkala delako. Edo, beharbada, XX. mendeko señore-marmota mentalitatetik egiten diren konstituzio eta estatutuak XX. mendeko señore horientzako bakarrak eginak direlako.

Espainiar autoritarismo neoliberal eta katoliko-nazionalaren irmotze fase honetan, zeinetan eskal elite ekonomiko eta politikoa haren gonapean bakarrak biziraun dezakeen... Zer espero genuen?

Surprise! (gortina irekitzen da, barreak, globoak eta serpentinak azaldu dira agertokian, espainiar armadak kalejira bat egiten du Ertzaintzari be-

sarkatuta, estatu judikatuarak trikitia dantzatzeko bitartean PSOEren eta EAJren abesbatzaren erritmoan. Tra, tra).

Zer ari dira ospatzen?

Demokraziaren festa da! Eguno Espainian, erabakitzeko eskubidearen alde ekiteagatik kartzelara joan zaitezkeela ospatzen da (agur bero bat hemendik preso politiko katalane), eta, beste hainbat berritasunen artean, EAJren, PSOEren eta Podemosen *testu-petatxoan*, eskumenak bermatzeko dauden tresnen kaltzifikazioa adostu dela (agur eta ohore Auzitegi Mistoari); eta, osterantzean, ezingo dugula gure lan esparru propioa, berrezko pentsio eta hezkuntza sistema eta egitura, garapen eta planifikazio sozioekonomikoa erabaki orain arte ez bezala (karkarkar); ezingo dugula merkataritza, kontsumo eta industria ereduaren inguruan erabaki, ezta Gizarte Segurantzaren eta gaitasun lege-gile eta exekutiboaren inguruan.

Hau parrandatar demokratikoa! Espainiarekiko aldebikotasuna eta berdintasuna mamitzen saiatzeak (egiakzi saiatzea) delitu izaten jarraituko du, espainiar konstituzioaren (Alien, ezizenez) kontrakoa baita, eta, Urkulluk (lagunartean, Marmota) esan bezala, demokrazia (Godot, goitizenez) bai, baina moderazioz: sufragista zoro halakoak! Orain, bozkatzaz gain, eskal herritarrek beren burua gobernatu nahi dute, duintasunez kobratu eta lan egin, berdintasunean erabaki eta, gainera, eskaldun bezala bizi. Maximalista zoroak!

Alabaina, dena ez da haragi iraungia! Hala nola, EH Bilduren (Untxi zuri konfederala, birrizenez) testuan <170. artikuluan xehatzen da zer prozedurari jarraitu Euskal Estatu Erkidegoak Espainiarekiko harremana eten dezan. Batetik, Eusko Legebiltzarrak egitasmoa onartu beharko du, gehiengo absolutuz, eta, legebiltzarra desegin eta hauteskundeak egin ostean, parlamentu berriak berriro onartu beharko du, gehiengo absolutuz. Hala onartzen bada, Espainiako Estatuarekiko ituna berrikusteko borondatea jakinaraziko zaie Europako Batasunari eta nazioarteko beste erakunde batzuei, eta, sei hilabeteko epean, herri-tarrek erreferendum bidez berretsi beharko dute erabakia». Jakina, EAJ, PSOE eta Podemoseko adituek adostutako *testu-petatxo-mutantean* Alienek irabazi du, Marmota buru.

Podemosek (Tweedledee eta tweedledum, izengoitiz) esan du hiru adituek adostutako testua eskal gizartearen isla dela: testu artikulatua zaharrunoa, liberala, teknokrata, patriarkala eta espainolista baldin bada, eskal gizarte halakoxea delako ei da. Akaso. Zergatik ez diegu eskal herritarrei galdetzen, hori hala den edo ez erabaki dezaten? A! Erabakitzeko eskubidea ez dutelako efektiboki barneratu. Gora demokrazia deliberratzalea eta parte hartzailea!

Gogoan al duzue Eusko Legebiltzarrak 2004an Estatu Elkartuaren alde bozkatu zueneko aharretze lehendakaria zelarik? Orain kartzelara joan zaitezke horrelakoak egiteagatik. Gero demokratiko, atsegin, ez-hertsatzaile eta lasai honetan idatzi da Euskadiko proto-Estatutu berriaren inguruko testu adostu hau.

Oso pozik gaude burujabe izan ezin gaitzekoen guztiok, denbora apur bat eman baitigute –Podemos desagertu eta eskumak espainiar gobernu hartu arte– nora exiliatu erabaki ahal izateko. Espainiar Estatuaren etorkizuna ez baita berdintasunetik, askatasunetik eta demokraziatik pasatuko, eta adostasun zabalenak, azken hau bezalaxe, antidemokratikoak izango dira, bere burua gobernatu ahal izateko erabakitzeko eskubidea eta gaitasuna bermaturik ez duen herria ezin baita herri demokratikoa izan.

Zein jenio distiratsuk uste du *status berria* *statu quo*-aren zaindarien eskutik etorriko dela: Aliziak, Godotek, Marmotak edo Alienek?

Zein jenio distiratsuk uste du 'status berria' 'statu quo' aren zaindarien eskutik etorriko dela: Aliziak, Godotek, Marmotak edo Alienek?

De Rerum Natura

@zaldieroa



HIZPIDEAK

Morroiek ezin

Mikel P. Ansa @peruarenaansa

Nazio Batuen Erakundeak duela ia mende erdi bat egin zuen ingurumenaren egoerari buruzko aurreneko nazioarteko topaketa. 1972an izan zen, Stockholmen. Sumatzen hasiak ziren arazo batzuk, eta proposatu zuten erregai fosilen alternatiba izango ziren energiak sustatzea eta garraio publikoa bultzatzea, besteak beste. Hogei urte geroago egin zuten hurrengo nazioarteko topaketa, 1992an, Rio de Janeiran. Bost urte gehiago behar izan ziren Kyotoko Protokoloa sinatzeko; CO₂ isuriaren merkaturak arautu zuten han, 1997an –helburuak lortzeko guztiz herrena suertatu dela orain denek badakitenean, baina hori hankaz gora jartzera inor ausartzen ez den merkatu hori bera—. Urrats oso sendorik gabe, beste hamahiru urte joan ziren, Parisko Hitzarmena sinatu zuten arte. Ambizioa zerbait handitu zen orduan: berotegi gasen isuriak mugatzeko neurriak hartzeko prest agertu ziren munduko estatu gehienak, humanitatearen historian aurreneko aldiz. Bost urte eman zieten buruei akordioa indarrean jartzeko. Iritsi da momentua. Horretarako balio izan behar zuen COP25 honek, baina porrot egiteko bidean doa. Lerrook idazteko momentuan ez dago argi akordiorik egongo den edo ez, baina, etortzen bada ere, eskasa izango da. Stockholmeko hartatik 50 urte pasatu dira, eta estatuek erakutsi dute ez direla gai ez herritarrei entzuteko, ez zientzialarien abisu gero eta larriagoei kasu egiteko. COP25 honek gauza bat erakutsi du garbi: korporazio eta multinazional handien morroi besterik ez direla estatuak.

Haizetea



HITZ ETZANAK
Andoni Egaña

Natura Trumpak marraztera dedikatu zen herenegun gurean. Asko eta ongi irten zitzaizkion. Zenbat arbola erdi etzanak, adar bat alde batera eta bestea bestera, orri bakoitza autodeterminaturik, zer nahi, huraxe eginez! Zenbat olatu, hai-zeak bitsak harroturik, aparra kalpar! Hedabideentzat pagotxa. Irudiz eta argazkiz josi zizkiguten albistegi eta egunkarietako hostoak. (Orri deitza gehitxo litza-

teke urtero tankera bereko argazkiak dakartzaten paper horiei). Natura fenomenotzat hartzen dugun unetik bihurtzen zaigu albiste.

Fenomeno batzuk naturalizat hartzen ditugun momentutik, al-diz, mundua okerrera doa. Horrexek eraginda burutu da Madrilen COP25 delako hori, klima larrialdiari buruzko jardunaldi erraldoia. Ez «ez» eta ez «bai». «Baibaina» bat suertatu omen da garaile. Ezer gutxi eraginkor-

tasunari dagokionez. Babeslearen artean Iberdrola, Endesa eta enparauak zeudela jakinda, ez da harriztekoa ere. Iraultzaren bat espero zuenak...

Esku banatan begi bat marraztu dute klima aldaketaren larrialdia zinezkoa dela aldarrikatzen dutenek. Begirale, behatzaile, ikuskatzaile... direla gogorazazi nahi diete agintariei. Baina begirik gehienei eragiten dieten begiak –kamerenak– haizete eta uholdeei begira daude jarriak...

Baloiaren pisua

Badira ia hiru urte Ignacio Robles suhiltzaileak mugarrizko ezarri zuela kontzientziaren borrokan. Bilboko portura bidali zutelarik zamatzeko lanak zaintzera, eta kontainerreie susmoa hartuta, uko egin zion zegokiona betetzeari. 730 tona ziren guztira, bonba eta mortero proiektilen artean, Saudi Arabiara zihoazena; duda izpirik gabe, Yemengo gerran erabiltzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak ireki zion espedientea Robles kaboari, «bere lana ez betetzearren». Salaketak bere literatura du: ontzieren maniobra 14 minutuz atzeratu zuen uko harekin, «arriskuan jarri baitzuen biztanleria». Presioak portuko agintarizatik ere



LARREPETIT
Iñigo Aranbarri

heldu ziren. Saudi Arabiako Bahari konpainia ez da zillorrekotako litxa Bilbokoan. Bisnessa bisnessa da.

Ordurako, Europako Parlamentua bazebilen akordio baten bila erotik eteteko Saudi Arabiara egiten ziren bidalketak. Nazio Batuen Erakundeak ematen zion bermea: Yemengo gerra «egun munduan den hondamendi humanitariorik nagusia da», eta Riadeko gobernuak da erantzule handienetarik milaka zibilek heriotzean. 2018an eman zuen azkenik debeku agindua. Baita eskual enpresentzat ere.

2015ean heldu zen Xavi Hernandez futbolari Barçatik Qatarreara, entrenatzaile aritzeko. Beste europar jokalariek askorentzat bezala, erretiro atariko lantoki

bihurtu dira Oman golkoko emirerriak. Beroak bero, zakarra galanki irabazten da. Ikuskizunaren begi-begian dago han, gainerra. Qatarren ospatuko da 2022ko Munduko Futbol Txapelketa. Iza esklabo gisa ari diren bi mila langiletik gora hil dira dagoeneko estadioak eraikitzen. Ikusminez hartuko dugun estreinaldirako, lau mila izango direla pentsatzen da, atzerritarrek guztiak. Baina Xavi Hernandez bertakotuta bizi da: «Qatarrek dena eman digu, arantoki tokirra da bizitzeko».

Eliteko futbolarik badu hori. Eguneroko bizitzan onartezinak diren jardunak, barkagarri zaizkio. Galde diezaiotela bestela Saudi Arabiaz Aperiñari Realeko presidenteari.

Aldaketak

Artikuluak idazten ari naizela ezin jakin atzo Gipuzkoako txapela buruz aldatu ote zen. Finalean bai, finalean badakit aldatetak izan direla. Gustuko ditugu aldatetak, nahiz eta beldurra ere eragiten diguten. «Aldaketak beti dira onak» sarri esan ohi da, batzuetan konbentzimenduz eta besteetan autokontzentzitate nahian-edo. Nafarroan itzaropena piztu zigun gobernuari ere hala deitu genion: aldatetaren gobernu. Aldaketa oro, baina, ezin onerako izan; eta azken boladan aldateta hitzak gehien darabilen abizena «klimatikoa» da.

Baina zer da aldateta bat? Edo nola neur daiteke aldateta baten nolokotasuna, magnitueda? Matematikan hori egiten duen tresna bat deribatua da. Gogoan duzue nola sinuaren deribatua kosinua den eta kosinuarena minus sinua? Eta nola x karraturrena bi x den eta logaritmo nepertarra-

rena bat zati x ? Bada, ezertarako balioko ez zizuete la sinistuta ikasi zenituzten deribatu horiek hori neurtzen dute: funtzio baten aldateta puntu batean.

Akaso era, elaboratuagoan azaldu zizueten bere garaian: «Funtzio baten deribatua puntu batean puntu horretan funtzioaren grafikoarekiko ukitzaila den zuzenaren malda da». Baina funtzioaren aldateta adierazten duela esateko modu bat baino ez da. Izan ere, deribatua puntu batean magnitudez handia izateak hazkunde edo beherakada handia adierazten du, deribatuaren sinuaren arabera. Magnitude txikiak aldateta txikia.

Azken batean, aldatetaren definizioa zein litzateke gutako edonorentzat? Bi gauza elkarrekin konparatu eta berdin ote dauden ikustea. Deribatuak hori egiten du funtzioarekin puntu batean, aurreko eta osteko puntuak hartu eta konparatu, nolabait. Beraz, fenomeno baten bila-



ARKUPEAN
Jone Uria Albizuri

Denborak esango digu aldateta klimatikoaren kasuan esponenzial batean harrapatuta gauden, maximo batean ote gauden edo inflexio puntu bat baino ez den. Tira, denborak, eta hartuko ditugun erabaki politiko eta jarrera pertsonalek

kaera azaltzen duen funtzioa ezagutuko bagenu, bere deribatua fenomeno horren aldateta nolakoa izan den deskribatuko luke.

Horregatik da fisikan ere abiadura posizioaren deribatua. Abiadurak hori adierazten baitu, nola aldatzen den posizioa. Deribatu handia, abiadura azkarra. Deribatu txikia, abiadura motela. Eta seinuak norantza. Azele-razioa posizioaren bigarren deribatua da abiaduraren aldateta deskribatzen duelako. Hala, berez, beti deskriba genezake aldatetaren aldatetaren aldatetaren aldateta nolakoa den, nahi izatera.

Hori, baldin eta gure funtzioa nahikoa «ona» bada. *Ona* diodenean propietate jakin batzuk betetzen dituena esan nahi dut. Izan ere, badira deribatuen bidez deskriba ezin daitezkeen aldatetak ere. Baina demagun, une batez, edozein fenomeno funtzio deribagarri batez deskriba dezakegula. Zein litzateke bertso txapelketetan ematen diren fenomenoen deribatua? Zein gobernuetan ematen direnena? Eta, zein aldateta klimatikoarena?

Aipatu dizuet deribatua magnitudez handi eta txiki denean zer gertatzen den. Baina gauza bat ez dizuet aipatu. Zer gertatzen da deribatua zero denean? Galderak tranpa izan dezake bere baitan. Deribatua puntu denetan bada zero, orduan fenomeno konstante bati buruz ari gara. Aldaketarik ez duen fenomeno batez, alegia. Fenomeno monotono eta aspergarri batez.

Baina gerta liteke deribatua puntu batean zero izatea fenomeno konstante izan gabe. Oroitzen baduzue, kasu horietan posible da gailur batean egotea, maximo edo minimo batean. Baina posible da inflexio puntu batean egotea ere. Inflexio puntu batean fenomenoak hazteari uzten diotune batez gero hazten segitzeko. Tarte batez pentsakor geratuko balitz bezala da, baina ez du jarra aldazten puntu horretan.

Denborak esango digu aldateta klimatikoaren kasuan esponenzial batean harrapatuta gauden, maximo batean ote gauden edo inflexio puntu bat baino ez den. Tira, denborak, eta hartuko ditugun erabaki politiko eta jarrera pertsonalek.

Gehiengo berrirantz?

Oso sarrera indartsua eduki zuten Espainiako 2016ko hauteskundeetan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan irabazteraino, urte askotan EAJk eduki zuen hegemonia hauteskundeetan. Gizarte horren esparru askotan ilusio freskoa sortu zutelarik ikusita, jeltzaleen alderdia ordezkatzeko bokazioa zeukatelarik esaten zuten urte haietan Ahal Dugu-ko buruzagiek, emaitza onak eskuetan.

Estatu mailako fenomenoak zela zioen tesiari arrazoiak emanez, emaitza bikain haiek ez zituzten berritu Hego Euskal Herriko erakundeetako hurrengo hauteskundeetan. Gora egiteko eragin zien neurri berean eragin zien behera egiteko Espainian Ahal Dugu- k hartu zuen beherantzko joerak.

Duela aste gutxi itxi zuten Pedro Sanchezek eta Pablo Iglesias-ek Espainian koalizio gobernu osatzeko akordioa. Bikote berriak EAJren baiezko botoa beharko du hurrengo asteetan Espainiako

Kongresuan Sanchez presidente izendatzeko. Asteon sinatu dute Eusko Jaurlaritzak eta Elkarrekin Podemos-ek 2020rako aurrekontuen akordioa. Zaila da ez ikustea lotura estua bi gertakizunen artean, bata bestearen ondorioa izatea, alegia; EAJk ez lukeelako inolaz ere onartuko bere botoarekin Pablo Iglesias egitea presidenteorde eta alderdi bereko euskal kideek atzera botatzea Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak, iaz egin zuten bezala.

Autonomia Estatutu berria da euskal agenda politikoan dauden gai indartsuetako bat, eta, orain arte ikusitakoaren arabera, badi-rudi erabakitze eskubidearen auzian gertuago egon litekeela Elkarrekin Podemos EAJ-PSE ardatzetik, EH Bildutik baino.

Akordioa aurrekontuetan eta, gauratzen bada, akordioa estatutu berrian, gehiengo zabal bat egituratu liteke mendealdeko hiru lurraldeetan, alde banatan, onerako eta txarrerako, PP eta EH Bildu utziko dituen.

ENBAXADA BILA



Vicent Partal
VilaWebeko zuzendaria

Mugimendu independentistak izugarriko erresistentzia gaitasuna du, eta gaitasun horrek sendotasuna ematen dio luzera begira



Martxelo Otamendi
BERRIAko zuzendaria

Gehiengo zabal bat egituratu liteke mendealdeko hiru lurraldeetan, alde banatan, onerako eta txarrerako, PP eta EH Bildu utziko dituen

Astea

Datorren astea oso berezia izango da Katalunian. Bihar, Puigdemont estraditatzeko oraingo eskaeraz ebazteko auzi saioa izango da Bruselan. Asteazkenearako, Tsunami Demokratikoak ekintza batera deitu du Bartzelonaren eta Real Madrilen arteko futbol partidari. Ostegunean, Europako Batasuneko Auzitegiak ebazteko du ea Junqueras presidenteordeak baduen Europako diputatu gisa dagokion imunitatea; eta, asteburuan, ERCK kongresu ezohiko bat egingo du, bereziki garrantzitsua Pedro Sanchez inbestitzeari buruzko negoziazioen erdian.

Hortaz, tentsio politiko handiko aste bat izango da, eta nabarmendu nahiko nuke nolabait ari diren independentismoaren erantzun politikorako bide nagusiak independentzia aldarrikapenaren eta 155.aren ondotik. Egun gutxiko epean, bat egingo dute marko juridikoaren nazioartekotzeak, kaleko erresistentziak eta

hauteskunde garaipenetatik eratorritako presio politikoak. Kataluniaren eta Espainiaren arteko talkan, argi dago behatzaileek eta analistek bi urteotan etengabe azaleratu dituzten independentismoaren flakiak. Halakoak badira, eta ezin uka daitezke: zatiketzea, analisi bateraturik ez, alderdikeria, garatu beharreko metodoa zehaztu gabe egotea...

Baina, ahulezia horien aldamean, bada beste errealitate bat sarri gertatzen dena, eta oso errealitate trinkoa dena, heldu den asteak argi utziko duen bezala. Zera da: mugimendu independentistak izugarriko erresistentzia gaitasuna duela, eta gaitasun horrek sendotasuna ematen diola hurrengo begira. Hainbestekoa, non aste honetan erakutsiko baitu zein zokoraturik dagoen Espainia fronte guztietan: politikoki, Kataluniaren mende dago; independentismoaren jardunak arazoak sortu dizkio European, eta kalea edozertarako prest dauka, eta ezin kontrolaturik.

+

**EZTABAIDA
GELA**

Ekonomia zirkularra • Klima larrialdiari aurre egiteko giltzarrietako bat izan daiteke. Beñat Irasuegi eta Jesus Losadak heldu diote gaiari, norik beretik.

Eztabaidan parte hartu edo iruzkinak egin nahi izanez gero, sartu honako helbide honetara: www.berria.eus/iritzia

Ekonomiaren ertzak borobil ditzagun



Beñat Irasuegi
Talaio Kooper.

Ekonomiak ez du funtzionatzen, eta modu askotara sentitzen dugu hau gure gorputzetan. Denbora falta dugu harremanak ongi lantzeko. Ezin ditugu gure inguruko pertsonak ondo zaindu, edo beste pertsonen esplotazioa beharrezkoa da gehien behar dutenen zaintza bermatzeko, beste aldera begiratzen dugu noski. Aisialdi askatzailea proposatzen digute, baina horrek ez du gure bizitza bizigarriago egiten.

Krisi konplexuen aurrean paralisia edo sumisioa izaten da jendartean orokortzen diren joeretako bat, baina zorionez, mobilizatorako, kontzientzia hartze kolektiborako eta aldaketa estrukturalak gauzatzeko gogoia pizteko arrazoia ere izaten da. Bide horretan kokatzen dut ekonomia zirkularra bezalako proposamenak hartzeko ari den indar berrieta.

Definizioz, ekoizpen prozesuetan materialen sarrera nahiz erabili gabeko hondakinak murriztea helburu duen estrategia da, gaur egungo kontsumo eredu linealaren aurrean, materialen fluxuen itxiera efizientea proposatzen duen eredu ekonomiko jasangarria. Baina joera dugu pentsatzeko soluzio teknologikoez konpondu ditzaketela arazo estrukturalak, eta ez, eredu krisi baten aurrean, proposamenak politikoa izan behar du.

Horregatik, ekonomia zirkularrak proposatzen dituen estrategia teknikoegi gehitu beharko diegu ikuspegi soziala, feminista, kolektiboa. Ekonomia eredu eta praktika eraldatzaileak proposatzen ditu-

gunean, ziklo zirkularren ideia txertatua izan beharko dute, benetan eraldatzaile izateko asmorik badute, eta hori gure jardunaren egunerokoan erakutsi, hondakin gutxitzea, harreman ekonomikoak tokiratzea, eta baliabide materialen erabilera efizientea gure estrategietara eramanez.

Ekonomia Sozial Eraldatzailean jarduten dugun enpresa, eragile eta kooperatibek rol garrantzitsua daukagu ekonomia zirkularren politizazioan eta praktikan jartzean. Banaketa kate motzetan oinarritutako elikadura sistemak sustatzean, software libreko tresnak garatzean, eredu produktibo iraunkorrak sustatzen dituzten kooperatiba industrialekin saretzen garenean, edo gure lurraldeetan bizitzeko beharrak asetzeko proiektu komunitario berriak sustatzean, ekonomia zirkularra lurreratzen ari gara, eguneroko praktika bihurtzen, modu iraunkorretan, eta ez merkatuaren azken apateren barnean.

Klima larrialdian gaude, eta horrek gauzak aldatzeko aukerak sortzen ditu, baina oportunisten bazkaleku ere izaten da, eta ekonomia zirkularren kasuan iraunkortasunarekin ikustekorik ez duten helburuetarako erabiltzen da. Izan ere badago pentsatzen duenik hondakinaren errausketan oinarritutako baliabide materialen kudeaketa zirkularra dela. *Ekonomia eta etorkizuna* hitzak lapurtu zizkiguten bezala, ekonomia zirkular kontzeptua edonork erabiltzen du, eta diskurtso faltsuak balio du batzuentzat erroko eztabaida estaltzeko: ekonomia zertarako? Kapital metaketa prozesu efizienteagoak egiteko, edo bizitzaren iraunkortasuna eta herritarren beharrak asetzeko. Hor bi aukerak, ez bateragarriak.

Abizenetan kateatzen bagara ere, ekonomia bizitzaren zerbitzura jartzea da herritarren eronka, zirkularra, iraunkorra, eraldatzailea, soziala, solidarioa bizigarria, borobildua izan dadin, bizitza bizigarriak denontzat izango badira.

Euskadi, ekonomia zirkularrerantz



Jesus Losada
Ihobeko zuzendaria nagusia

Oraingo eredu ekonomiko linealaren oinarria da baliabideak erazte, prozesatzea, erabiltzea eta baztertzea. Eredu horren ondorioa da baliabide naturalen gainera presioa gero eta handiago dela, kontuan hartuta materialen *per capita* kontsumoa bikoiztu eta energia primarioarena hirukoiztu egin direla azken ehun urteetan mundu mailan, eta biztanleria ia bost halakotu dela.

Lurreko baliabideak mugatuak direnez, eredu lineal hori ez da jasangarria, eta, hortaz, eredu ekonomiko zirkularrerantz migratu behar da, horren bidez murrizteko baliabide naturalen kontsumoa eta bai ondasunek euren bizi-zikloan sortzen dituzten ingurumen-inpaktuak.


Ekonomia zirkularrak zirkulua itxi nahi du. Kontua ez da zirkulu nagusia soilik ixtea, amaierako puntua (hondakinak) hasierako puntuarekin (lehengaien erazketa) konektatuz, birziklapen-prozesuen bitartez, baizik eta egon daitezkeen zirkulu guztiak ixtea. Horrek barne hartzen ditu iraunkortasuna-

ren luzapena, konpongarritasunaren sustapena, bigarren eskuko salmenta, ekipa eta osagaien birmanufaktura, eta ekodiseinua, horren bidez murrizteko bai materialen eta energiaren erabilera eta bai ingurumen-inpaktuak.

Euskadik 20 urtetik gorako ibilbidea egin du ekonomia zirkularren alorrean, eta horrek, gaur egun, erreferente bihurtzen du eremu horretan, batez ere industriari arloan. Euskadiko 239 enpresa industrial –horietako 177 ETEak dira– jadanik aplikatzen ari dira praktika edo eredu zirkularrak, batez ere sektore hauetan: automobilgintza, garraio-ekipoak, ekipo elektriko eta elektronikoak, makina-erreminta, metalgintza, kimikoa, altzariak, eraikuntza eta ingurumen-zerbitzuen azpisektorea. Izatez, 68 euskal enpresak ekodiseinuaren UNE-EN ISO 14006 arauaren ziurtagiria dute; horrek esan nahi du Espainia osoan ziurtatutako enpresa guztien %54 euskal enpresak direla.

Bere ekonomia zirkularren politikei esker, Euskadik frogatu du posible dela hazkunde ekonomikoa materialen kontsumotik desakolozteaz. 2000 eta 2016 bitartean, euskal ekonomia %26 hazi zen; garai berean, materialen kontsumoa %25 gutxitu zen eta zabortegira eramaten diren hiri-hondakinaren bolumena %56 jaitsi zen. Garai horretan, Euskadiko produktibitate materiala –kontsumitutako materialaren kilogramo bakoitzeko sortutako euroko erlazionatzen dituen adierazlea– 1,3€/kg-tik 3,3€/kg-ra igo zen, eta, beraz, nabarmen gainditu zuen Europako batezbestekoa (2,21€/kg). Hala eta guztiz ere, ekonomia zirkularrak badu oraindik ere potentzial handi bat Euskadiko jasangarritasuna eta lehiakortasuna hobetzeko. Euskal industriari inportatutako lehengaiekin duen mendetasuna %77 da; aldi berean, baina, urtero ia 45 milioi euroko balioa duten materialak botatzen dira euskal zabortegietara. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak Ekonomia Zirkularrerako Estrategia bat abiatatu du hemendik gutxira. 2030erako ezarritako helburu handinahiekin.

Beharrezkoa da eragile ekonomiko, instituzional eta sozial guztiok elkarrekin lan egitea asmo handinahi horretan, hau da, ekonomikoki lehiakorra, sozialki bidezkoa eta ingurumen aldetik jasangarria den ekoizpen- eta kontsumo-eredu berri horretara aldatzeko asmo handinahi horretan.



Ekonomia zirkular kontzeptua edonork erabiltzen du

Beharrezkoa da eragile ekonomiko, instituzional eta sozial guztiok elkarrekin lan egitea

Zozketak

berria laguna
berria.eus/berrialaguna

ABIZENA, IZENA
01234567

bl

> OPARIAK

PARTE HARTZEKO: igandetik asteartera berria.eus/berrialaguna edo 943-30 43 47
SARIDUNAK ostegunean argitaratuko dira. **Adi!** Erabili zure **BERRI**lagun kode berria.

01 MAHALA BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK



Bi sorta

Mahala baserria
Leaburu
Tel.: 943-67 07 24
Mahala.eus

02 LUR-LAN



Bi saski

Bulebarra, 7 • Donostia • Tel.: 943-42 86 48

03 JAKION



Bi sorta

San Migel
plaza, 4, etxabea
Leintz Gatzaga
Tel.: 943-71 46 86
Jakion.es/eu

04 PEDRO LUIS SORTA



Lau saski

www.conservaspedroluis.com

05 SOLAGÜEN

Sei sorta ardo

Bastida
Tel.: 945-33 11 61
Solaguen.com



06 LASA ANIAK - LAPIKO

Lau sorta

Florida, 30
Hernani
Tel.: 943-33 20 05



07 RAFA GORROTXATEGI TURROIAK

Hamar sorta



Tolosa • Tel.: 943-89 03 06 • Rafagorrotxategi.com

08 REMELLURI ARDOA

Hiru botilako kutxa



10 ALFAR OLIOA

Oliba olio birgina estra (6 botilako kutxa)



Mendabia • Tel.: 948 68 58 46 • Aceiteslamaja.com

11 TOLOSAKO BABARRUNAK

Hamar babarrun poltsa Eusko labelarekin



San Esteban, 29 • Tolosa • Tel.: 943-65 02 53 • Tolosakobabarruna.com

09 TALAIBERRI TXAKOLINA

Bi kaxa

Tel.: 943-13 27 50
Talaiberri.com



13 NARDIN

Bi sorta



Conservasnardin.com

14 MARTIKO

Bi sorta



Zalain industrialdea z/g • Bera • Tel.: 948-62 50 16 • Martiko.com

15 I.URROZOLA txakolina

Bi kaxa (6 botilako kaxa)

Alkiza
Tel.: 943-73 44 71



Eztarriak eta puntua urratu ditu

Realak merezitako berdinketa erdietsi du Bartzelonaren aurka • Ordu erdiren faltan neurketa orekatu, eta aurrea hartzeko aukerak izan ditu azkeneraino

2

2

Reala	Bartzelona
1 Remiro ●●●	1 Ter Stegen ●●●
2 Zaldúa ●●●	20 Sergi Roberto ●●●
3 Zubeldia ●●●	3 Pique ●●●
4 D. Lorente ●●●	15 Lenglet ●●●
20 Monreal ●●●	18 Jordi Alba ●●●
21 Odegaard ●●●	2 Semedo (74) ●●●
00 Gebara ●●●	4 Rakitic ●●●
8 Merino ●●●	22 Arturo Vidal (79) ●●●
7 Portu ●●●	5 Busquets ●●●
11 Januzaj (59) ●●●	19 Aleña (73) ●●●
19 Isak ●●●	21 De Jong ●●●
9 W. Jose (66) ●●●	10 Messi ●●●
10 Oiarzabal ●●●	9 Luis Suarez ●●●
22 Barrenetxea (85) ●●●	17 Griezmann ●●●

Golak. 1-0: Oiarzabalek, penaltiz (12. min). 1-1: Griezmannek (38. min). 1-2: Luis Suarezek (48. min). 2-2: Isak (62. min). **Epaila.** Alberola Rojas. Txartel horiak: Bartzelonako Luis Suarez. **Bestelakoak.** 36.639 ikusle Anoetan. Inoiz ez ziren horrenbeste ikusle izan.

Jon Ander De la Hoz Donostia

Argigarria izan zen epaileak atzo Anoetan amaiera adierazi zuen unea. Harmailetatik inor gutxi alde egin zuten, eta zaleek txalo artean agurtu zuten Real. Jokalariak, berriz, Aitor Zabaleta harmailarako bidea hartu zuten, haien babesa eskertzeko. Donostiarren uen onaren adierazpide nabarmena izan zen. Atzokoan ere, Bartzelona ahalguztidunaren aurka puntu bat erreskatatzea lortu zuten txuri-urdinek, markagailuan atzetik joan eta gero, eta erakutsi zuten denboraldi honetan egindako lan ona ez dela kasualitate izan. Talde serioa da Real, eta berdin zaio zein aurkari duen aurrean: sasoi amaieran sailkapenaren goialdean egon nahi du.

Aurkariaren beldurrik gabe aritu zen Reala norgehiagoka hasi eta buka. Etxean jokaturako neurketa batean inoizko zale gehien joan zen txuri-urdinak hauspotzera (36.639 ikusle), eta

haiek emandako arnasa ezin hobeto etorri zitzaion Imanol Alguacilen taldeari norgehiagoka hasieran. Lehen minutuetan bikain aritu zen Real; Donostiako taldeak bazekien Bartzelona estu hartzekotan, lan handia egin behar zuela, eta horretarako prest zelairatu zen. Txuri-urdinek erritmo bizia ezarri zioten neurketari lehendabiziko minutuetatik; Bartzelonaren atera bidertzeko zirrikituren bat zabaldu beste xederik ez zuten, eta ondo moldatu zen horretan.

Hasierako minutuetan, elkar hartuta aritu ziren erasoko jokalaririk; Martin Odegaardek, Alexander Isak eta Mikel Oiarzabalek izugarri ondo ulertu zuten elkar. Hiru haiek itsasargi hartuta, etxekoek Marc Andre Ter Stegenen arearantz jo zuten etenik gabe. Txuri-urdinek arriskua sortu zuten estreinako minutuetan; konbinazio onak eginda saiatu ziren min egiten.

Neurketaren hasierak traza ona hartu zuen etxekoentzat, eta berehala berretsi zuten hori. Bartzelonaren areara egindako erdiraketa baten alderatzean elastikotik heldu zion Sergio Busquets Diego Llorenteri, eta epaileak Realaren aldeko penaltia adierazi zuten. Mikel Oiarzabalek ez zuten hutsik egin, eta aurretik jarri zituzten txuri-urdinak.

Abantailak ez zuten Realaren lausaitzea ekarri. Bere horretan segitu zuten txuri-urdinek, eta nagusitasunez aritu ziren zelaian hurrengo minutuetan ere. Haiena zen baloia, baina Bartzelonak erakutsi zuen kalitate dagoen lekuan edonoz egin daitekeelamin. Kontreraso batean Antoine Griezmannek jaso zuen baloia, eta frantziarrak ez zuten barkatu bere talde ohiaren



Martin Odegaard eta Alexander Isak, aurrelariaren gola ospatzen, binakoa, atzo, Anoetan. JUAN HERRERO/EFE



GoiEner kooperatibako hainbat bazkide. GOIENER

Nor bere energiaren jabe GoiEner kooperatibarekin

Subirotasun energetikoa lortzea eta energia berriztagarriak sortzea eta kontsumitzea dira GoiEner kooperatibaren xedeak.

Energia, batik bat elektriko, oinarritzko ondasun bat da gaur egun, ura edo elikagaiak bezain beharrezkoa. GoiEner kooperatibaren xedea da hiritarrek oinarritzko ondasun honekiko kontrola berreskuratzea, energiaren kontsumo arduratsua eta iraunkorra sustatzea. GoiEner kooperatibak subiranotasun energetikoa berreskuratu nahi du egun sektore elektrikoan liberalizatuta dauden esparruetan arituz: merkaturatzea (energiaren erosketak) eta sorkuntza. Izan ere, garraioa

(goi-tentsioko azpiegiturak) eta banaketa (tentsio ertaineko eta behe-tentsioko azpiegiturak) erregulatuak eta konpainia handien kontrolpean baitaude oraindik. GoiEner irabazi asmorik gabeko kooperatiba izanik, elektrizitate berdea merkaturatzearen bidez lortzen diren etekinak kooperatibaren itzultzen dira berriz. Era berean, bazkideek sorkuntza berriztagarrien arloko egitasmoetan inbertitu ahal izango dute, eta sortzen den ekoizpena kooperatibak berak kontsumituko du.

aurka. Bi taldeak berdinduta joan ziren atsedendira.

Hozka egiteko asmoz zelairatu zen Real bigarren zatian ere, bai-

ezin okerrago atera zitzaion apustua. 48. minutuan, erasora egin zuten bisitariek, eta atzelarien bizkarrera emandako pase

bat jaso zuen Lionel Messik. Argentinarrak Luis Suarezri eman zion baloia, hark nahieran errematatu zezan. 1-2. Maldan gora jarri zitzaion partida Realari.

Aurkako golak ez zuten Real kizildu, eta Bartzelonarekin nor baino nor gehiago aritu zen. Hain justu, hori zen txuri-urdinek nahi zutena, prestatzaile oriotarrak partida amaieran prentsaurrean adierazi zuten: «Aurkaria ona zen, baina guk ere talde ona dugu; nire beldurra zen gu geu ez izatea, baina nortasunarekin atzera gara. Sekulako partida egin dugu, eta gozatzekoa izan da. Pena, irabazteko aukerak izan ditugulako».



Aurkaria ona zen, baina guk ere talde ona dugu. Gu geu ez izateko beldur nintzen, baina nortasunez aritu gara»

Imanol Alguacil

Realeko entrenatzailea

Irabazteko ez, baina berdintzeko moduan izan zen Real. Partida 60. minutura iristear zela erdiraketa bat egin zuen Natxo Monrealek, eta Ter Stegenek ez zuten hura ondo urrutitzea lortu. Isaki iritsi zitzaion baloia, eta aurrelari suediarrek sareetara jaurti zuten. Handik aurrera bititu egin zen partida, eta bi taldeek izan zituzten hiru puntuak eskuratzeko aukerak. Inork ez zuten lortu, ordea, eta sari bera jaso zuten maila handiko bi taldeek.



Athleticeko eta Eibarreko jokalariek, lehia, atzo, bi taldeek San Mamesen jokatuako derbiaren jokaldi batean. ARITZ LOIOLA / FOKU

Baten ahalegina, bestearen damua

Puntuak banatu dituzte Athleticcek eta Eibarrek San Mamesen jokatuako derbian • Kanpokoak erosoago aritu dira lehen zatian, baina bigarrenen gehiago izan dira etxeakoak • Dmitrovickek geldiketa erabakigarriak egin ditu

Athletic		Eibar	
1 Unai Simon	•••	1 Dmitrovic	••••
21 Capa	••••	20 Correa	•••
5 Yeray	•••	12 Oliveira	•••
4 Inigo Martinez	••••	3 Bigas	••
17 Yuri	••	2 Burgos (20')	•••
6 San Jose	••	24 Tejero	••
14 Dani Garcia	••••	10 Exposito	•••
8 Unai Lopez	••	5 Escalante	••
25 Villalibre (64')	•	21 Pedro Leon	•••
11 Cordoba	••	16 De Blas (82')	•
19 Ibai (45')	••••	22 Inui	••
22 Raul Garcia	•••	9 Sergi Enrich	••
9 Williams	••••	17 Kike Garcia	••
		19 Charles (87')	•

Epailea. Melero Lopez. Txartel horiak: Athleticceko Raul Garcia, San Jose eta Capa; eta Eibarreko Kike Garcia, Dmitrovic eta Tejero.
Bestelakoak. 43.203 ikusle San Mamesen.

Eñaut Agirrebengoa

Estua, lehiatua eta orekatua. Halakoa izatea espero zen Athleticen eta Eibarren aurkako derbia. Eta halakoa izan zen. Gipuzkoarrek ahalegin bete jarri zuten

ten, eta meritu handiko puntuak lortu. Ez ditu ase, jaitziera gain-gainean dutelako, baina San Mamesen berdintzea bada zerbaitek. Bizkaitarrek, berriz, bi aurpegi erakutsi zituzten. Apal aritu ziren lehen zatian, eta horren damu izango dira. Estutu egin zuten gero, baina ez zitzaizkien aski izan.

Garitanok bi aldaketa egin zituen hasierako hamaikakoan. Bata, espero zitekeen: Kodro kendu, eta haren tokian fisikoki osatutako Raul Garcia ipini zuen. Ordea, harrigarriagoa izan zen San Jose Sanceten ordez ipintzea. Eibarren, berriz, Expositok eta Inui bete zituzten Diop eta Orellanaren hutsune garrantzitsuak. Enrich eta Tejero izan ziren Mendilbarrek txertatutako beste berritasunak. Eraldaketak ez ziren kalterik egin gipuzkoarrei; aitzitik, zuri-gorriek baino hobeto hartu zioten neurria partidari, ohiko jokoz biziaren bidez.

Talka asko eta eten ugari izan ziren lehen zatian. Epailea oso zorrotza izan zen faltak adierazteko orduan, eta hala, neurketari asko kosta zitzaion erritmoa hartzea. Eibar gurguratu zen egotera horretan, kontrako zelaian gogor estutu, eta eskuin hegaletik barneraldi arriskutsuak eginga. Pedro Leonen agerraldiak izan ziren kanpokoan baliabide nagusia. Hark areaz kanpotik atera egindako jaurtiketa indartsua izan zen partidako lehen gol aukera, 17. minutuan. Athleticcek, berriz, zailtasunak izan zituen aurkariaren area ingurura hurbiltzeko. Baloi gehiago eduki zuen, baina ez zuen erabiltzen asmatu. Zehaztasuna falta izan zitzaion Eibarren amarauna apurtzeko. Luze jokatzeko saiatu zuen, baina erabakimen handirik gabe.

Zuri-gorrien ezinak ezinezona sortu zuen San Mameseko harmailetan. Edonola ere, atsenden-

dira 1-0ekoarekin iristear izan ziren: Cordobak baloia sareratu zuen Raul Garciaen jaurtiketa arriskutsu baten ostean, baina joko kanpo zegoen. Imintzio horrek iratzarri egin zuen Athletic, eta bestelako jarrerarekin itzuli zen aldageletatik. Neurketa lehiatua eta estua zen oraindik ere, baina etxeakoak askoz ere sakonagoak izan ziren. Espazio gehiago sortu zituzten, besteak beste Dani Garciaen joko aldaketen bidez. Eta zuloak sortzen direnean, dis-tira egiteko tartea zabaltzen zaie jokalariei azkarrei. Hala egin zuten Williamskek eta Capak, eskuin hegala autobide bihurtuta.

Etxekoaren ahalegina

65. minutuan, jokaldi ikusgarria egin zuen aurrelariak, zelaia alde-rik alde zeharkatuta. Ginga jartze-ko aukera izan zuen Ibai Gomezek, baina buruz burukoan gailendu egin zitzaion Dmitrovic. Es-

tutzen jarraitu zuten etxeakoak, eta 72. minutuan, Escalantek bere atean sartu zuen baloia, Caparen erdiraketa moztzen saiatzean. Al-ta, gol horrek ere ez zuen balio izan, hegalekoa aurreratuegi baitzegoen. Eta 84. minutuan, berriz ere Dmitrovickeen egin zuten to-po bizkaitarrek. Atezainak bikain erantzun zion Raul Garciaen bur-rukadari. Azken hatsera arte saia-tu zen Athletic, baina Eibarrek ez zion beste aukerarik eman. Kan-pokoak indarrez hustu egin ziren, eta etxeakoak, kamustu.

SAILKAPENA

EUSKAL HERRIA TXAPELA										
	Pt.	J	I	B	G	A	K			
1. Athletic	10	4	3	1	0	6	1			
2. Reala	6	3	2	0	1	7	3			
3. Osasuna	4	3	1	1	1	5	4			
4. Alaves	3	4	1	0	3	4	9			
5. Eibar	2	4	0	2	2	1	6			

○ Finalera



Ruben Garcia eta Kieran Trippier, lehian, atzo. RODRIGO JIMENEZ/ EFE

Saririk gabeko ausardia

Osasuna lehiakor izan da, baina huts egin du erasoan, eta Atletico Madrilek ordainarazi egin dio • Ikusgarri aritu da Sergio Herrera

2		0	
Atletico Madrid		Osasuna	
1 Oblak	•••	1 S. Herrera	•••••
23 Trippier	•••••	12 Roncaglia	•••
18 Felipe	•••	5 David Garcia	•••
2 Gimenez	•••	3 Raul Navas	•••
35 Manu Sanchez	••	30 Estupiñan	•••
16 Herrera (63')	••	10 Torres	•••
8 Saul	•••••	17 Rober (73')	•••
6 Koke	•••••	6 Oier	•••
5 Thomas	•••	22 Adrian (73')	•••
11 Lemar	•	20 Brasanac	•••
10 Correa (54')	•••	8 Fran Merida	•••
7 Joao Felix	•••	21 Inigo Perez (79')	••
22 Hermoso (82')	•	14 Ruben Garcia	•••
9 Morata	•••	9 'Chimy' Avila	•••

Golak. 1-0: Morata (66. min.). 2-0: Saulek (74. min.). **Epailea.** Munuera Montero. Txartel horiak: Atletico Madrileko Manu Sanchez eta Si-meoneri, eta Osasunako Sergio Herreriari. **Bestetelakoak.** 46.033 ikusle izan ziren Wanda Metropolitanan.

Julen Etxeberria

«Gu geu izatea eta aurkariaren zelaian jokatzea nahi dut. Halako zelaian, zertarako gai garen erakustea gustatzen zaigu». Jagoba Arrasatek abisua eman zuen Atletico Madrilen aurka jokatu bezperan. Beldurrik gabe ariko zen Osasuna Wanda Metropolitanan. Esan eta egin. Ausart eta lotsagabe aritu zen atzo Iruñeko taldea Atletico Madrilen zelaian, eta estu hartu zuen etxeko taldea minutu askoan. Estu hartu bai, baina ez zion

kolpea eman, eta aurkari indartsuen aurka garesti ordaindu ohi da hori. Eta atzo larrutik ordaindu zuten gorritxoek.

Arrasatek agindu bezala, ausart zelairatu zen Osasuna, eta lehen zazpi minutuetan gola sartzeko bi aukera izan zituen, baina bai Ruben Garcia, baita Brasanacek ere ezin izan zuten Oblak gainditu. Ondo aritu zen Atletico Madrileko atezaina, baina Sergio Herreriak txiki utzi zuen lan hori, Osasunako atezainak erakustaldia eman baitzuen atsedendaldia iritsi arteko minutuetan. Etxekoak zazpi aukera garbi zapuztu zituen: Joao Felixen hiru –zutoinera urrundu zuen bat–, eta Morata, Lemar, Saul eta Thomas bat.

Bigarren zatia ere gogotsu ekin zion Osasunak, eta Chimy Avila eta David Garcia aukera bana izan zuten. Morata ere gertu izan zuen gola, baina huts egin zuen, baita Joao Felixek ere, Sergio Herrera eta David Garcia nahastu ondoren. Atezainak hutsa konpondu zuen jarraian, Correaren jaurtike-ta geldituta. Baina ezin izan zuen ezer egin 66. minutuan falta batean Morata buruz eginiko errematea gelditzeko. Zortzi minutu geroago, Saulek errematea eman zion Osasunari, bigarren gola sartuta.

SAILKAPENA

ESPAINIAKO LEHEN MAILA (G.)

17. JARDUNALDIA		Jokatutakoak		Emaita	
Alaves-Leganes					1-1
Granada-Levante					1-2
Reala-Bartzelona					2-2
Athletic-Eibar					0-0
Atletico Madrid-Osasuna					2-0
Gaur	Ordua	TB			
Getafe-Valladolid	12:00	La Liga			
Celta-Mallorca	14:00	Gol			
Bartzelona-Betis	16:00	La Liga			
Sevilla-Vila-real	18:30	La Liga			
Valentzia-Real Madrid	21:00	Partidazo			

	Pt.	J	I	B	G	A	K
1. Bartzelona	35	16	11	2	3	43	20
2. Real Madrid	34	15	10	4	1	32	11
3. Sevilla	31	16	9	4	3	20	15
4. At. Madrid	29	17	7	8	2	18	10
5. Reala	28	17	8	4	5	28	20
6. Getafe	27	16	7	6	3	24	16
7. Athletic	27	17	7	6	4	19	12
8. Valentzia	26	16	7	5	4	26	23
9. Granada	24	17	7	3	7	24	22
10. Osasuna	23	17	5	8	4	22	20
11. Levante	23	17	7	2	8	22	26
12. Betis	22	16	6	4	6	22	27
13. Vila-real	19	16	5	4	7	28	24
14. Valladolid	19	16	4	7	5	14	18
15. Alaves	19	17	5	4	8	18	24
16. Eibar	16	17	4	4	9	15	28
17. Mallorca	14	16	4	2	10	16	28
18. Celta	13	16	3	4	9	12	23
19. Leganes	10	17	2	4	11	12	28
20. Espanyol	9	16	2	3	11	10	30

○ Txapeldunen Ligara ● Europa ligara ● Bigarren Mailara

Realak aise irabazi dio Logroñori, eta Nahikarik hiru gol sartu ditu (5-0)

J.E.

Sailkapenari erreparatuta, Realaren eta Logroñoren arteko partida parekatua izatea espero zen. Baina inondik inora ere ez. Txuri-urdinak goitik behera nagusitu zuten atzo, eta oso erraz irabazi zuten: 5-0. Realak ez zion aukera txikienarik ere eman Logroñori.

Txuri-urdinek oso partida ona jokatu zuten, baina Nahikari Garcia nabarmendu zen guztien gainetik. Aurrelari urnietarrak hiru gol sartu zituen, Realak sartutako lehen hirurak –penaltz sartu zuen hirugarrena–. Lehen 37 minutuetan egin zituen, gainera. Nahikari sasoi beteaz itzuli da bi hilabetez min hartuta egon ondoren. Hiru norgehiagoka jokatu ditu ordutik, eta lau gol sartu ditu.

Nahikarik atzo sartutako hiru golekin erabakita utzi zuten neurketak atsedendaldia iritsi aurretik. Realak, hala ere, egurrean jarraitu zuen bigarren zatian, eta beste bi gol sartu zituen: Barbara Latorrek egin zuen laugarrena, 62. minutuan, eta Carla Bautistik bosgarrena, 78. minutuan.

Atzoko emaitzari esker, Realak bolada onari eusten dio, eta Rayoren emaitzaren zain, seigarren da sailkapenean, hemeretzi punturekin, Athleticekin berdinduta.

Athletic, bolada luzatzen

Zuri-gorriek, berriz, gaur jokatu dute, Lezaman, Sevillaren aurka. Athleticek bolada onari eutsi

nahi dio, hiru jardunaldi baitaramatza galdu gabe. Bederatzi puntuetatik zazpi lortu ditu, eta horri esker, gora egin du sailkapenean, eta bosgarren postuan da. Bost koska beherago dago Sevilla, baina konfiantzaz iritsiko da, azkeneko norgehiagokan Madrili 1-0 irabazi eta gero.

SAILKAPENA

ESPAINIAKO LEHEN MAILA (E.)

13. JARDUNALDIA		Jokatutakoak		Emaita	
Reala-Logroño					5-0
Espanyol-Bartzelona					0-4
Betis-Sporting Huelva					1-1
Gaur	Ordua	TB			
Athletic-Sevilla	11:00				
Madrid-Deportivo	12:00				
Rayo-Tacon	12:00				
Valentzia-Levante	13:00	Vamos			
Granadilla-At. Madrid	18:30	Gol			

	Pt.	J	I	B	G	A	K
1. Bartzelona	34	12	11	1	0	50	4
2. At. Madrid	26	11	8	2	1	24	12
3. Levante	22	11	7	1	3	18	12
4. Deportivo	22	11	7	1	3	21	18
5. Athletic	19	11	6	1	4	18	12
6. Reala	19	12	5	4	3	17	13
7. Rayo	18	11	5	3	3	14	17
8. Logroño	17	12	5	2	5	19	23
9. Granada	13	11	3	4	4	9	14
10. Sevilla	12	11	4	0	7	17	17
11. Tacon	12	11	3	3	5	15	27
12. Valentzia	11	11	3	2	6	16	18
13. S. Huelva	11	12	3	2	7	6	14
14. Madrid	10	11	3	1	7	7	21
15. Betis	8	12	1	5	6	11	19
16. Espanyol	2	12	0	3	9	7	28

○ Txapeldunen Ligara ● Bigarren Mailara

Bidasoak Asobal kopako finala jokatu du gaur


Irundarrek 30-33 irabazi diote Valladolidi luzapenean, eta Bartzelona izango dute arerio, bigarren urtez jarraian

ESKUBALOIA • Bidasoa-Irunek bigarren urtez jarraian jokatu du Asobal kopako finala, gaur, Valladoliden (Espainia), 17:00etan. Iaz, Lleidan (Herrialde Katalanak) gertatu bezala, Bartzelona ahalguztiduna izango du aurkari.

Irundarrek etxeko taldea kanporatu zuten atzo finalerdietan: 30-33. Asobal ligan, azken segunduan nagusitu zen Bidasoa, eta atzo ere gogotik sufritu ezu-

ten irabazteko. Bost golen alde zuten zortzi minutu falta zirela (20-25), baina etxekoek luzapena behar zuten (28-28). Zorionez, Bidasoa hobeto aritu zen luzapenean.

Irundarrek ezustekoa eman nahi dute gaur finalean. Kostako zaie, aurkari beldurgarria baita Bartzelona. Atzo erraz kanporatu zuen Ademar Leon: 39-30. Iaz, katalanek 37-23 hartu zuten mendean Bidasoa.



Jokin Altuna, pilota jotzen, atzo, Labriten jokaturako partidari. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Altuna III.ak egin du alde

Amezketakoak erakustaldia eman du, eta hark eta Ladis Galarzak 22-16 irabazi diete Aimar Olaizolari eta Andoni Aretxabalari Iruñean • Baikokoeak goitik behera egin dute

Julen Etxeberria

Pattal hasi ziren Jokin Altuna eta Ladis Galarza, Binakako Txapelketaren lehen ligaxkako aurreneko bi partidak galduta, baina pixkanaka-pixkanaka ari dira gora egiten. Irabazi egin dituzte azkeneko bi neurketak; azkena, atzo: 22-16 Aimar Olaizolari eta Andoni Aretxabalari, Iruñean, Labriten. Horri esker, Aspeko bikoteak irabazitako eta galdutako partida kopuru bera du.

Baiko Pilotako bikotea, berriz, goitik behera dator sailkapenean, ligaxkako aurreneko norgehiagoka irabazi eta gero galduta egin baititu hurrengo hirurak. Askok falta da oraindik, baina suspertu beharrean da, ligaxka osoan kontrarrean aritu nahi ez bada.

Atzo ere antzeko gertatu zen: Aspekoek behetik gora egin zuten, eta Baikokoeak, goitik behera. Altuna III.a eta Olaizola II.a izan ziren onenak bikote bakoitzean, baina alde egon zen baterean eta bestearen jardunaren artean: amezketarrak hamasei tanto egin zituen, eta goizuetarrak bost gutxiago, 11. Hori gutxi ez, eta atzean ere alde egon zen. Izan ere, Galarzak ondo lagundu zion Altuna III.ari: tanto bat egin zuen, eta bi besterik ez zituen huts egin. Aretxabaleak, aldiz, nahi baino gutxiago lagundu ahal izan zion Olaizola II.ari: ez zuen tantorik egin, eta hiru huts egin zituen. Batez ere neurketako azken txanpan igarri zen atzelariaren txakalaldia, eta hori aprobetxatu zuten Aspekoek, markagailuan 14-15

atzetik zirela 8-1eko partziala lortu eta garaipena lortzeko.

Gaur eta bihar, partidak

Laugarren jardunaldiak gaur eta bihar izango du segida. Gaur, Jaka-Zabaleta eta Laso-Albisu ariko dira Eibarren (Gipuzkoa). Aspekoek indartsu ekin diote ligaxkari, hiru partidak irabazi baitituzte. Baikokoeak, berriz, garaipen bakarra dute, azken jardunaldian Olaizola II.a-Urrutikoetxearen aurka lortutako.

Bihar, berriz, Irribarria-Rezusta eta Artola-Imazek neurtuko dituzte indarrak Tolosan (Gipuzkoa). Bi bikoteek oso bestelako lana egin dute orain arte: Aspekoak neurketa bakarra irabazi du; Baiko Pilotakoa, aldiz, hiru partidatan nagusitu da.

BINAKAKO TXAPELKETA

LEHEN LIGAXKA (4. JARDUNALDIA)

Herenegun, Urretxun

Bengoetx.-Mariezku. 19; Ezkurdia-Martija 22

Atzo, Iruñean

Olaizola-Aretxa. 16; Altuna-Galarza 22

Gaur, Eibarren (17:00, ETB1)

Jaka-Zabaleta / Laso-Albisu

Bihar, Tolosan (16:30)

Irribarria-Rezusta / Artola-Imaz

	J	I	G	T	A	T	K
1. Jaka-Zabaleta	3	3	0	66	42		
2. Artola-Imaz	3	3	0	66	45		
3. Ezkurdia-Martija	4	2	2	85	80		
4. Altuna III.a-Galarza	4	2	2	78	77		
5. Laso-Albisu	3	1	2	61	58		
6. Bengoetx.-Mariez.	4	1	3	76	87		
7. Olaizola-Urruti.	4	1	3	65	87		
8. Irribarria-Rezusta	3	1	2	44	65		

○ Finalerdietako ligaxkara

● Finalerdietako atariko kanporaketara

Emakume Master Cupeko bi finalak, gaur, Barakaldon

J.E.

Gaur da eguna. Gaur jokatuko dituzte Emakume Master Cupeko Lau eta Erdiko Txapelketako bi final nagusiak, pilota gozokoa eta pilota mistokoa; azken hori, lehenbiziko aldiz. 12:00etan da ekitaldia, Barakaldoko (Bizkaia)

udal pilotalekuan, eta ETB1ek zuzenean emango ditu bi partidak.

29 pilotarik ekin zioten bi maila horietako txapelketari: hamarrek pilota gozokoa, eta hemeretzi mistokoa. Asteek aurrera egin ahala, galbaheak lana egin du, eta, azkenean, lau pilotari ailega-

tu dira azken partidara, txapelak jokatu egongo diren norgehiagoka erabakigarria. Patri Espinar eta Leire Etxaniz ariko dira pilota gozoarekin lehen finalean, eta Miren Larrarte eta Miriam Arrillaga mistoarekin, bigarrean.

Espinarrek txapela jantzi zuen iaz, baina Etxaniz aurkari gaiztoa

da, lau txapel jantzi baititu azken hiru urteetan: hiru binakakoan, eta bat lau eta erdikoan. Espinarren oldarkortasunaren eta Etxanizen sendotasunaren arteko lehia izango da.

Norgehiagoka oso berezia izango da, berriz, Larrarteren eta Arrillagaren artekoa. Izan ere, talde berekoak dira biak, Anoetako (Gipuzkoa) Su-Berrikoak, eta elkarrekin entrenatzen dira. Beraz, sekretu gutxi dago baterean eta bestearen artean. Arrillagak sarka eta joa ditu indargune, eta Larrarterek, lehiakortasuna.

Urriza-Larrañaga finalerako sailkatu dira

ERREMONTA • Urriza-Larrañaga binakakoaren finalean ariko dira hilaren 28an. Atzo, nahikoa zuten Juanenea-Azpiroz 32 puntu egitea, baina, horrekin konforme ez, eta irabazi egin zuten: 40-38. Juanenea-Azpiroz eta Matxin III.a-Barrenetxea IV.ak finalerako beste tokia izango dute jokoa datorren larunbatean.



Alex Mumburu, atzo. SANTI OTERO / EFE

Bilbo Basketek bolada txarra eten du: 93-95

SASKIBALOA • Denetarik izan zen atzo Espainiako maila nagusietan ari diren euskal taldeen artean. Bilbo Basketek eta Araskik irabazi egin zuten. Bilbotarrak 93-95 nagusitu ziren Burgosen (Espainia), eta, horri esker, eten egin zuten bolada txarra, galdu egin baitzituzten azken hiru partidak. Gasteiztarrek, berriz, bigarren garaipena lortu zuten jarraian, Mann Filterren aurka: 65-60.

Gernikak eta IDK-k, aldiz, galdu egin zuten, Perfumerias (63-59) eta Valentziarren aurka (57-58), hurrenez hurren. Donostiarrena izan zen porrotik mingarriena, azken segunduan galdu baitzuten. Baskoniak Murtziari egingo dio bisita gaur (17:00).

Urteko azken lehia dute gaur Ordiziak eta Hernanik

ERRUGBIA • Ampo Ordiziak eta Hernanik gaur jokatu dute urteko azken partida. Ordiziarrek sailkapeneko goialdean egoten segitu nahi dute, eta, horretarako, Santboianaren zelaian irabazi behar dute (12:00). Hernaniarrek, berriz, lehen neurketa irabazi nahi dute, Bartzelonaren aurka (13:30). Anoetako estadio txikiaren ariko dira, euriaren eraginez ezinezkoa baita Landaren jokatzeara.

Nasoin

Musika • 34

'I Made a Place',
Bonnie Prince Billyren
itzulera goxoa

Literatura • 36

Guy de Maupassanten
ipuinak euskaratu ditu
Jesus Mari Mendizabalek

27

IGANDEKO BERRIA
2019ko abenduaren 15a

Beñat Gaztelumendi, bigarrenez

Xabier Gaztelumendi aitak jantzi dio Beñat semeari Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako txapela. Agin Labururekin jokatu du buruz burukoa. Final estua izan da: Alaia Martin puntu batengatik gelditu da buruz burukotik kanpo. • 28



◎
**Gipuzkoako
Bertsolari Txapelketa**
Finala



Beñat Gaztelumendiren azken agurra, finalista guztiak atzean dituela. Bertsolarien arteko giro bikainean jokatu zuten finala. GORKA RUBIO / FOKU

Lehenago burutik txapela

Beñat Gaztelumendik irabazi du Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, bigarren ez • Xabier aitak jarri dio txapela; Pili amari eskaini dio semeak • Buruz burukotik kanpo gelditu da Martin, puntu bakarragatik

Manex Mantxola Donostia

Astiro joan da berotzen zezen plazako giroa, Anoetako hooliganen inbidi gutxi izan diete Illunbekoek. Bestalde, tamalez, irristadak ere ez dira Txuri-Urdinera mugatu. Dena den, final aparta eta oso maila altuko eskeini dute zortzi bertsolariek.

Agurretan, Aitor Sarasua, Juanito Mitxelena eta Jon Barberena izan ditu goaian Jon Maiak, eta sortuko direnei egin die erreferentzia. Laburuk Donostiako norria «haundi bezain garestia» hartu du aitzaki «behekoak igo eta goikoak jeitsi» daitezkeela nabarmentzeko. Elustondok aurreko faseetan geratutako kantuki-deak oroitu ditu. Martinek bertsoaren nutrizioaz eta piramideen borobiltasunaz kantatu du. Lizaso, azpeitiartasunaz, *capote*

gabe eta *puertagayola* egin du salto zezen plazara. Iguaranek «esan nahi dudan hori daukat irabazteko» eta «gaur egun ederra da mugak hausteko» bota du. Labaka «gorputzetik» abestea eta «hitzei behar adina asterisk» jartzera etorri da eta Gaztelumendik Anoeta eta Illunbe alde-eratzearekin batera, talde sena helarazi nahi izan die kantukideei.

Zortziko handian zertzelada txukunez aritu dira bertsolariak. Gehiegi arriskatu gabe, finala pauso sendoz hasi nahian. Aipatzeokoak Elustondo eta Martinek haurdun dauden bi emakumeren rolean osatutakoa, baita Lizaso eta Iguaranek eskiatzera joateko gurasoei dirua eskatu behar dieten bikotearen paperetik botatakoak ere.

Zortziko txikian etorri da final osoko bertsoaldi umoretsu bezain

surrealistenetako bat, entzuleak gogotik eskertu duena. Martin eta Maia, lehena okina, iluntzero isteko ordua heltzen zaionean saldu gabeko ogiak oparitzen dituen; bigarrena, bezeroa, azkenaldian itxi baino bost minutu lehenago azaltzen zaiona. Umore absurduko hitz-jokoan hartu eman batean mamitu dute saioa. Martinek ireki dio absurduari atea «Altu duzu umorea ta koles-

terola./ Doainik lortzea da zuretzat kirola./ Ez dizut bada gratis emango hola-hola./ Hurrena esango dizut txapata dagola». Jarraian Maiak apustuari eutsi «emaidazu mesedez Alaia txapata,/ inoiz ez dizut sartu hainbeste txapa ta.» eta hordagoa Martinek «ni jator jatorra naiz eta eskuza-bala/ eta zu berriz zara xuhurra integrala». Une batez, 6.000 laguneko bertso-afari bilakatu dute Illunbeko plaza.

Puntu erantzunen txanda heldu da jarraian, luzimendurako baino irristaldirako aukera gehiago ematen dituen ariketa izangatik ere, izan da ateraldi ederrik. Esaterako, Elustondok kirol arroparen inguruan botatutako erantzuna «pjoen kontra egin ohi degu jarduna,/ baina Goretexduna, hoi da diruduna», aldarri dotorea eta egia borobila. Saio ede-

rra osatu du legazpiarrak eta buruz burukotik ez da urrun ibili. Lizaso eta Laburu ere ziur bezain dotore aritu dira.

Hamarreko txikian, guztiak izan dira goi-mailako saioak. Gai-notzekoen sakontasunetik ihesi, nabarmentzekoa izan da Iguaran eta Gaztelumendik osatu dutena bi pailazoren rolean. Gaia entzun eta segituan bideratu du Iguaranek nondik heldu «jendeari eskerrak indartsu gaude gu,/ udalak hustu zuena herriak bete du.». Jarraia Gaztelumendik «Anaitasuna bete degu hola-hola:/ lehenengo filan haur bat, baba dariola,/ hango muxu gorria ta horko pottola,/ nahiz ta aulkitan ez den ikusten inola, ziur Enrikek Maya begira dagola.» oraindik kasua zein zen harrapatu ez bazenik bazen. «Ea kutsatzen zaion gure kolorea» bota dio

SAILKAPENA

1. Beñat Gaztelumendi	940 puntu
2. Agin Laburu	916 pt.
3. Alaia Martin	576 pt.
4. Nerea Elustondo	656,5 pt.
5. Oihana Iguaran	560 pt.
6. Ane Labaka	552 pt.
7. Beñat Lizaso	541 pt.
8. Jon Maia	533 pt.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa Finala

ANALISIA
Gorka Azkarate



Irabazle nekaezina

Udaberrian hasitako ibilbide luzeak merezi neurriko amaiera izan zuen atzoko finalarekin: amaiera hunkigarria bezain ederra, inondik ere. Beñat Gaztelumendi zen faborito nagusietako bat, atzo arte txapelketetan buruz-burukoan kantatutakoa baitzen. Eskarmentuak paper garrantzitsua jokatu ohi du halakoetan eta aňorgarrak ez zuen hutsik egin. Saio oso erregularra josi zuen. Bertsotan egiteko makina koi-

peztu perfektu bat da Beñat, akats teknikorik egiten ez duena. Besterik da bertsosaldi guztietan bete-betea asmatzea. Atzoko finalean, bakarkako lanetan atera zuen koska, modu izugarri sinesgarrian kantatu baitzuen, beretik. Bistakoa da orain 12 urte erdi ustekabean bere burua buruz-burukoan ikusi zuen txahal haren eta atzoko Beñat Gaztelumendiren artean dagoen alde. Lanketa latza dago atzean, bere burua berrasmutzen egindako ahalegin alimalekoa. Emaizta, txapela.

Agin Laburu eta Alaia Marti-
nen artean berdinketa teknikoa
egon zen zortzi bertsolariek egin
beharreko saio puntuagarria
amaitutakoan. Laburu izan zen
Gaztelumendirekin batera
azken txanpan kantuan aritu
zena, bere estilo propioari iskin
egin gabe uneoro. Buruz-buru-
koan baino, lehenagoko bertsos-
aldietan izan zuen agian dirdira
handiagoa, bidean punturen
batzuk galdu bazituen ere akats
teknikoren bat tarteko (nora iri-
tsiko zen bestela?). Txapelketa-
ko saioak plazako saio arrunte-
kin alderatuz zurrun xamarrek
direla kontuan hartuz, ordaine-
zina da Labururen freskotasuna.

Puntu bakarra, Laburu eta
Alaiaren artean buruz-buruko-
rako lehian. Alaiak ez zuen ber-
tso bakar bat bere ere alperrik
galdu, zuen guztia eman zuen,
bakarkako ikaragarria osatu eta
oso hurbil izan zuen saria.
Gozamena izan zen oartzuarra
bere mailarik onenean kantuan

entzutea. Pozez zorutzen egon-
go zen atzo Nerea Elustondo
ere, laugarren sailkatua. Bakar-
kako lanean aukeratu zuen doi-
nuak nahastu eta buruz-buru-
kora sailkatzeko aukerak ihes
eginagatik, bere maila agerian
utzi zuen, ofiziotan batez ere.
Bertsolari handia da Nerea eta
hori berretsi zuen atzo Illunben.
Oihana Iguaranek ere eman
zuen beretik, uneren batean
lotu xamarrak somatu bagenuen
ere. Koska txiki bat falta izan
zitaizan bere bigarren finalean,
pauso bat aurrera eman eta hel-
buru potoloagoei begietara
begiratzeko. Ane Labakarentzat
gozoa izan zen lehen final han-
dia, eta datozen urteetan asko
eman dezakeela iradoki du bere
bertsoekin txapelketa honetan.
Beñat Lizasok "bere egun
handi" gisara bataiatu zuen
atzokoa, baina ez da bazterte-
koa txapelketa honetan eman
duen maila eman eta gero hala-
ko egun gehiago bizi izatea

azpeitiarrak. Plaza handia zen
beretzat, baita Labaka eta Elus-
tondorentzat ere, eta espero iza-
tekoa zen gutxieneko mailatik
dezente gorago jardun ziren
bertsotan hirurak ere. Betera-
noa izan zen azkena sailkapene-
an, baina nori axola dio horrek?
Jon Maiaren presentzia hutsak
puntutan neurtzea zaila den
beste zerbaiz eman baitzion,
izan ere, finalari: belausaldi
ezberdinen arteko lotura eta
kohesioa.

Bide luzea izan du txapelke-
tak, bertsosai asko eta bertsos-
aldi on ugari pilatu ditu udabe-
rrian hasi eta atzoko finalera
arte. Antolakuntza taldea pozik
egoteko moduan dela esan dai-
teke, Gipuzkoako bertsolaritza-
ren egoeraren eskaparete bikai-
na izan baita hilabete hauetan
guztietan txapelketa. Atzoko
final jendetsuak oihartzun bere-
zia izatea normala da, baina
finala baino askoz gehiago izan
da txapelketa. Zorionak denoi!



Alaia Martin puntu bakarragatik ez zen buruz burukoan sartu. GORKA RUBIO / FOKU



Bertsos munduko kide ezagunek adi jarraitu zuten saioa. GORKA RUBIO / FOKU

Iguaranek eta «haien mundua
baita zuri beltzekoa» gehitu dio
Gaztelumendik. «Zuk begira jen-
deak ze poz dakarrena./ Haurren
irriparra da mendeku ederrena.»
egin du aldarri lehenak eta
«UPNk nahi zuen gurea gelditu./
Opusi ohi diote errez obeditu./
ta sudur gorri batek ikaritzen
ditu.» Borobildu dute saioa.

Bakarkako gaien umea heldu da
ondoren. Bi nabarmente aldera,
Gaztelumendirena: langabezia
saria kobratzen ari da eta sari hau
baino soldata baxuago duen lan-
postu bat eskeini diote. «Gaur
egun lana deitzen diote esklabu
izateari» bota du lehenengoan,
«nahiz ta saiatu aurrezten eta
bankuan daudenak pizten./ beti
gordetzen beti gordetzen ta inoiz
etzait iristen». Bigarrenean, au-
rreko txapelketan etorkinarene
rolean kantatu zuen bertsosaren

eskemari keinu eginaz. Amaitze-
ko «ta ezezkoa erantzun diot zer-
gatia garbi dago./ duintasunak
balio baitu lan batek baino gehia-
go.» borobildu du ariketa.

Aipatzeko bigarren bakarka-
koa, Martinek iritzia publikoki
ematen duen eta etxe parean pin-
tadak egin dizkioten feministaren
rolean botatakoak. «Beldurra
daukat baino amorrua askoz
handiagoa da.» bota du lehenen-
goan, «baina txikia da azken ba-
tean gure euskal jendartea/ ta fe-
minista batentzat zail da gauzak
argi esatea.» bigarrenean eta
«eta barkatu jendarte maite ez
bazaude hain ados./ nire iritzia
emango baitut gero ta indar han-
diagoz.» aldarri eginez amaitu
du. Saio aparta osatu du oartzua-
rarak, amaieretan adina bidean jo-
siz. Buruz burukorako hautagai
zuten askok eta hain zuten puntu

bakarrera geratu da, batzuetan
matematika ez da hain zientzia
justua.

Buruz burukoa

Laburu eta Gaztelumendik batu
dituzte puntu gehien eta, beraz,
buruz burukoan abesteko esku-
bidea. Seiko motzean Lurra pla-
neta bizitoki modura erabaki au-
keratu edo ez eztabaidan dabil-
tzen bi extralurtarren rolean
kantatu dute, umoretik eta bizi
biak ala biak, baina batez ere La-
buru. Puntuka ere beste hainbes-
te, Errealaren eta Barsaren parti-
da ikustera doazen bi futbolzale
katalanen roletik abestu dute, na-
hastu eta Illunbeko finalean
amaitu dutenak. Gaiak berak
nahiko irri eragin du entzuleen
artean.

Amaitzeko, kartzela heldu da.
«Esan eta esan aritu arren, ez en-

tzunarena egiten dizute.» zioen
gaiak. Laburuk seme autista duen
guraso baten rolean kantatu du
«Gure sistema ez da aldatzen
eguzkitik eguzkira/ ta hezkun-
tzara ez dakit zenbat dei egin de-
dan guztira./ Soilik laguntza es-

katzen det nik, ez det eskatzen
gupida./ Baino jende ona badira,
joan gabe urrutira/ ondore rugby
inklusibora joaten da Hernanira/
ta irripar bat ateratzen zait har-
mailetatik begira», bota du azken
bertsoan.

Gaztelumendik eman dio bu-
kaera saio puntuagarriari. Ikus-
pegi pertsonaletik, edo bederen,
oso sinesgarritik heldu dio gaiari.
Bizi-gidoi alternatibo baten auke-
ratzearen zilegitasunaz kantatu
du beretik bezain gordinetik. Ho-
nela borobildu du bakarkako ari-
keta bikaina: «eta berdin zait nik
diodana besteek etzuten duten./
Nik nahikoa lan badaukat eta
nere burua entzuten».

Berak bildu ditu puntu gehien
eta «nahiz ta igual ez zenuen gaur
protagonismorik nahi./ ama hau
zuri eskeini gabe ez nengoke la-
sai./ Xabierren semea naiz ta Pili-
rena ere bai», kantatuz eman dio
amaiera txapelketari.

ARZAK

www.arzak.es

Juan Mari eta Elena ARZAKek atseginez adierazi nahi
dizue bere bezero zein lagun zaretenoi oporraldietako
itzulera dela eta etzitik, abenduak 17,
gure atak berriro zabalik izango dituzuela. Zure zain
gaude.

Agur bero bat.

Alto de Miracruz, 21 - Tel. 943 27 84 65 - 943 28 55 93 - Donostia

6.000 pertsonak jarraitu dute zuzenean Illunbeko finala. Alai Martin finalera ez sailkatzeak harridura sortu du askoren artean. Xabier Gaztelumendik Beñat semeari txapela jantzi dionean lehertu da plaza.

Goitik eta goian ikusten direnak

Amagoia Gurrutxaga Uranga
Donostia

Hemen goitik, Anoeta ikusten da. Eta Itsaso. Eta eguzki izpiak Illunberako bidetako espaloio gainetako auto ilaretan bristadaka. Tokitan daude bezperako haize ufadak; bertso-suma dator jendea. 15:15 dira. «Libre» dio oraindik parkineko seinaleak.

15:24an, Imanol Lazkano eta Laxaro Azkune Azpeititik ekarri dituen autobusetik jaitsi dira. Ilarrak luzatzen hasiak dira sarrera desberdinetan. «14:45ean etorri gara. Toki ona hartu nahi dugun», 9. ateko soka hasiera-hasieran dagoen Tolosako hirukoteak.

Toki ona zer den. Batzuentzat, hondarreta; besteentzat, harmailak. Denentzako bada txoko bat. 15:35etik aurrera, zezenketetan basamortu izan ohi den Illunbe betetzeko lanean hasi dira bertsozaleak. 16:05erako, heren bat okupatuta dago jada. 16:25ean, erdia baino gehiago. 16:30ean, sarrerak kontrolatzeko sistema etori da. Panikorik ez, faborez. Bost minutu, eta hemen ez da gertatu ezer. Lineako autobusak jendez beteta datoz, gero eta gertuago dago hasiera ordua. 6.000 lagun daude hemen, guztira.

17:03. Megafoniatik, musika ozendu dute. Erritmoa txaloka eramanez erantzun dute bertaratuak. Gogoz daude. Entzuleentzako mezuak. «Gogoratu gune honetan ezin dela erre», aurkezpen hitzaldian gutxien txalotu duten mezua.

Denentzako mezuak

Illunbeko ateak ireki direnean sarrera guztietan irakur zitekeen leloa. *Donostia San Sebastian modan dago* tapatzeko modua egin dute bateko eta besteko pankartek. *Gaur UGALDETZO... inoiz baino Alaiagoa izanen da eta Liluratu baietz flamengo ta hango! Maite zaitugu Ane 1. atean. Aldamenekoan, Nerea Elustondo sudur gorria jantzita, Aupa Nerea bat; eta Bihotza, burua, eskuak, sentitu, pentsatu, ekin ezpain gorriekin!* Aupa Ane! 3. atean: Nola-

ko egurra halako ezpala! AUPA ATTE!!! 4.ean: Hariz ari, txapela josi. Aupa Oihana. 5.ean: Manifestazioa-- Atera bidera. Presoak etxera! 10.ean, Txapela Añorgara!

Goi-goiko eraztunean, pankarta gehiago: *Gu beti izenikbe... baina gaur ez geratu hitzikgabe aupa Oihana-; Aupa Laburu txapela seuru. Eurre!; Hementxe dala, hementxe dala... Aupa Beñat!!!; eta ...ze besarkada ote dator ki "k" txapela irabaztean!!!*

Behean, hondarretan, *Gaur bai... KatedrAL bat in zure hitzekin!*

17:08. Badator zortzi bertsolariak. Jon Maiari egokitu zaio lehendabizi kantatzea; azkena izatea, txapeldunari. Ion Zaldúa aurkezleak denek izenak ematean, Azpeititik etorritako hiru autobuskadak bereziki nabaritu dira. Burladeroa da oraintxe hutsik ageri den bakarra.

17:13. Hasi dira agurrean. 17:28. Hasi dira egurrean. Beñat Gaztelumendik finaleko lehen parteko azken bertsoa bota bitartean,

20:15 bitartean, oso gutxitan piztu dira harmailak eta egin dute ez-tanda txalo zartadek. Beñat Gaztelumendi eta Oihana Iguaran pailazo rolean jarri eta UPNkoek sudur gorri dieten ikara kantatu dutenean, hortxe izan da unerik beroena. Bakarkako azken lane-

Finaleko lehen partean, gutxitan piztu dira harmailak eta gutxitan egin dute ez-tanda ikusleen txalo zartadek

Xabier aitak jantzitako txapela Pili Arandia amari eskaini dio Beñat Gaztelumendi txapeldunak

an Elustondok doinuarekin tustut egin duenean eta jendeak txaloka animatu duenean, beste momentu berezi bat sortu da. Gutxi gehiago, hiru orduko tartean. Boxeoan hasi nahi duen alabaren eta erabaki hori gustuko ez duen aitaren arteko saio umoretsuan, bere aurkako pintadei erantzun dien emakume ezagunaren saioan... Bristada batzuk izan dira.

Entzuleek ere izaten dituzte beren tarte bitxiak halakoetan, eta Illunbeko honetan ere bai. Pasillora irten eta puntukako saio osoa burladeroko ate zirrikitutik entzuten aritu dira asko, esaterako, lepoa luzatuta eta belarria are luzatuago, zezen plaza barruko punturik ez galtzeko; batek bi garagardo baso eskuan, besteak patata tortilla pintxoak. Eta atzera begiratu eta *segurata* ere bertsoak entzuten ari da.

Segi bertsoak entzuten. Azken txanpa. Bakarkako lanak bukatu dituztenean, finalera nor iritsiko esan zain, jendea tabernara edota erretzera. Berriz. Komuneko ilarako katedran, Martin denen ahotan. Gaztelumendi ere bai. «Nik ez dakit. Oso txarra naiz halakoetan», dio batek. Isilik gertatu da atzekoa.

20:26. Komuneko kinielak ustel gertatu dira. Laburu eta Gaztelumendi pasatu dira buruz burukora. Txalo zaparrada. Beste

planeta batera bidali ditu gai jartzaileak biak, eta Anoetara beharrean Illunbera heldu diren bi Bartzelonazale izatera gero. Umorea pizten saiatu dira biak. Labururen alde ez ote dagoen jende gehiena.

20:43. Kartzelako lana. «Esan eta esan aritu arren, ez entzuzarenaren egiten dizute». Illunbe osoa entzuten. 21:07. Itziar Etxezarreta Arakistain oholztan, txapeldunaren izena esatera: «940,5 puntuarekin, Beñat Gaztelumendi!». Ez-tanda bat. Martini puntu bakarreko aldea aterata pasatu da buruz burukora Laburu, hala ageri da *bertsozale.eus* webgunean. Agurretan, Joxe Lizaso, zaintza sareak, lagunak, bertso-eskolak, etxeok atera dira plazara. Xabier Gaztelumendik Beñati. Pili Arandia amari eskaini dio txapela txapeldun berriak.

Hemen behetik hondarretan altxatutako oholztza bat ikusten da. Eta oholztza gainean, aita bat semeari txapela hunkituta jantzen. Eta, goi-goian, Illunbeko kristalezko sabaia.



Garazi bete zuten bertsozaleek atzo Illunbeko zenen plaza, eta izugarri gozatu zuten.. GORKA RUBIA/FOKU

Gorde data

Elkarriketa egin ziguten Harkaitz Cano eta bioi *He-gats* aldizkarirako, Lubaki banda hizpide hartuta, orduko kontuak gogora ekarri. Memoriaren lausoak harritu ninduen gehiena: ez nintzen akordatzeko garai hartako gauza askorekin. Beste batzuekin, aldiz, primeran akordatzeko naiz: non biltzen ginen, nolakoa zen orduan Donostiako bulebarra, nola bidaltzen genizkion elkarri testuak postaz. Astebetean sei errezitaldi eman genituela akordatzeko naiz. Buruz dakit oraindik Harkaitzen gurasoen etxeko telefonoa, aldatu ez badiete behintzat.

Elkarriketa bukatuta, bi argazki eskatu zizkiguten: bat oraingoa, bestea garai hartakoa. Bilatuko dut, pentsatu nuen, baina hurrengo abisua iritsi zenean, presaka jada, hasi nintzen etxean aztarrika eta garai hartako argazkien arrastorik ez inon. Gurasoen etxera joateko aukera bakarra, baina ez nuen tarterik hartu. Hartuta ere, joanda ere, banekien orduko argazki gutxi edukiko nuela, eta ez nekien gainera non egongo ziren gordeta. Zapata kaxaren batean akaso, ganbaran, ohe azpian, armairu zokoren batean. Baliteke bateren bat mesanotxean geratzea oraindik, txikitako bat hala gorde nuen urtetan maitez-maitez, baina ez nekien non ibiliko zen hura ere.

Nola egingo dut memoria argazkirik gabe? Larritu egin nintzen.

1992an joan nintzen lehen aldiz Londresera. Kodak makina bat eraman nuen; hiru karrete bota nituen, eta argazki bakar batean ere ez nintzen agertzen ni. Autobus gorriak, parkeko katta-gorri grisak, Tamesis ibaia, zubiak, plazak, kaleak, etxeak... argazki horiek bai ikusiko nituzke gustura gaur. Orduko turista batek aterako zituen argazkiak, niretzat aldaketa sakon baten az-tarnak baziren ere.

Urte berean jaso nuen Urruzuno saria, beste hogei bat lagunekin batera. Sari ematea Jaurritzan izan zela uste dut, oso urduri nengoela akordatzeko naiz, nire

orduko tutorea etorri zela, eta aitari bost aldiz jo ziola metal-detektagailuak, atzeko poltsikoan zeraman orraziagatik. Dirua eman ziguten, eta bidaia. Paris, Brusela, Amsterdam... ahaztezina izan zen, jende on asko ezagutu nuen, eta ondo gordeta eduki nituen orduan ateratako argazkiak, hurrengo urteetan tarteka haiei begira irail hartako zorientasuna berritzen nuelarik neure kautan.

Horren ondoren etorri zen Lubaki, nik hala daukat gordea memorian. Baina ez daukat garai hartako argazkirik. Gaur egun ezinezkoa litzateke. Telefonoa gainezka neukake lagunekin egindako selfiez. Eta argazkiak barreiatuak neukake hainbat sare sozialetan. Sarean neukake memoria, data bilakatu.

1992an BBBko hirugarren mailan nongoen, Letrak aukeratu nituen baina Matematika ere ematen genuen. Joxerra zen irakaslea, abizena ez dut gogoan, zarauztarra. Ona zen azalpenak ematen, eta ez soilik matematikari zegozkionak. Lepoko zaina puztu egiten zitzaion berotzen zenean. Ez zen askotan gertatzen. Baina egun hartan bai. Zer nahi duzue, galdetu zigun. Aberatsak izatea? Bildu zuen inguruko datuak, hasi familiarik, lagunak gero, lagunak familiarik, auzoak gero, herritarak hurrena. Bildu ahal duzuen jende gehienaren ahalik eta datu-rik gehiena, eta saldu, aberastu egingo zarete, enpresek datuak nahi dituzte, zuen datuak.

Joxerra, abizena ez dut gogoan, Informatikako irakaslea ere bazen. Diskete zapal batzuekin hasi ginen. Pantailak beltzak ziren, eta berdez ageri ziren han hizkiak, zenbakiak, marrazkiak. Etorkizuna zela esan zigun.

Orain alabaren argazkiak telefonotik inprimatzen ditugu, paperean ere edukitzeko. Argaz-



Edozein telefonotan aurki daitezkeen argazkietariko bat. X.G.

kiak telefonoan dauzkagu, eta beraz sarean, lainoan, auskalo nongo zerbitzari batean. Eta argazkiak ez dira gehiago gure.

Gure datuak, gure bizitza eman diegu enpresei, eta pantailan egiten dugun keinu bakoitza gordetzen du makinak. Gailuei eman diegu memoria gordetzeko ahala, eta gure memoria galtzen ari da. Gailuei eman diegu gure bizitza, eta gure bizitza gailuena da orain.

Ingrid Guardiolen *Begia eta aitzoa* ari naiz irakurtzen. Eta miraz nauka zein zorrotz aztertzen duen (geure) irudiarekin daukagun gatazka egunerokoa. Nola eraikitzen eta hedatzen dugun (gure) irudia, nola bizi garen besteren erantzun positiboen behar-rean, zain: errekonozimendu zain, dopaminaren zain. Eta nola geure memoria bera horren arabera eraikitzen duten sare sozialek, urtearen bukaeran, sasoi betegarri honetan, urtean zehar erantzun positiboen gehien jasotako kontuak ekarri gogora, adibidez.

Gailuek, sareek, enpresek esaten dizute zer den gogoratzeko modukoa. Eta eskerrak, pentsatzen duzu batzuetan, bestela ho-

rrekin ere ez nintzateke gogoratu. Esaten dizute 2019, eta auskalo, hor doa, ur uherreko ibai lasterra, mendi negarrak eta erreka garbiak jaso arren, lohi, zikin, ezer antzeman ezinean, denbora pixeletan neurtzen den garaiotan.

Telefonoak gordetzen du data, eta ordenatzen dizu memoria,

urteka, hilabeteka, asteka sailkatzen dizkizu argazkiak, jendearen arabera ere bai, eta lekuaren: abuztuan Portugalen egon ginen, egia. Laster gauzak tatuatzen hasi beharko duzula ere pentsatu duzu, *Memento* filmean bezala.

Badaukazu non: argazki denda zegoen lekuan tatuatu denda jarri dute.

RKLAMATU
HEGALDIEN ATZERAPENEN KALTE-ORDAINAK
94-402 75 96 • BILBO • www.hiruabokatuak.com

LOTU ERRESISTENTZIARA

BATU
auzolanera

Denon artean
Denak etxera

HTXROCK

IZENA EMAN ZURE AUZO EDO HERRIAN EDO WWW.HATORTXURROCK.EUS HELBIDEAN

**THE ZOMBIES****Bost hamarkadako
ibilbidea, eta
oraindik gose**

Abenduak 16: Bilboko BBK aretoan, 20:00etan. 25 euroan.

Musikagintzaren historiako mazken bost hamarkadak zaharkatu ostean, oraindik ere

agertokira igotzen jarraitzea bada, bere horretan, aski meritu. The Beatles taldearen garaikide eta herrikide izateaz gainera, The Zombies taldea ere Erresuma Batuko eta AEBetako zerrendetako lehen postura heldu zen, 1964an, *She's Not There* singlearekin. 1968an desegin zen taldea lehenengo, eta elkartu eta berreizi ibili dira geroztik, harik eta 2000. urtean taldea heriotzatik enagarrenez berpiztu zuten arte.

2019an sartu zuten beren izena Rock and Roll Hall of Fame entzutetsuan, eta, bost hamarkadaren ostean, biran jarraitzen dute oraindik, eta baita diskoak ateratzen ere. Printzipio deklarazio baten airea du horregatik Bilboko kontzertuan aurkeztekoak diren azken estudio lanak: *Still Got That Hunger* (Oraindik badut gose hori).

NIRE HEMERETZI**Nire
'Hemeretzi'**

Argitaratzailea: Bidehuts.

Ihintza Orbegozo

Lisabo edota Donut taldeetan batera jotzaile ezagutu dugu askok Ivan Zabalegi, eta, horren motxila ezinbestean beti presen-

te izango badu ere, bere-berea duen proiektuan ari da buru-belarri, eta azaro amaieran argitaratu du bere bigarren lan luzea: *Hemeretzi*. Nire-n gitarra eta ahotsa nahikoa dituela erakutsi duen arren, inguruko lagunak lana borobiltzen lagundu diote intentsitate handikoa bezain intimoa eta zirrarragarria den rockaz beteriko bederatzia abestitan. Aurreko *Hamabost* hura baino disko bizkorragoa argitaratu du oraingoan. Hainbatetan irakurri dut ezertan pentatsu gabe gitarra hartzean ataritzen zaiona, errailetan daukana kanporatuz sortzen dituela kantak; bada, talentuz beterik dauzka zainak.

**The Jay Vons
'The Word'**

Argitaratzailea: La Castanya.

Julen Azpitarte

Bi single argitaratu ostean, New Yorkeko bandak lehen lan luzea plazaratu du; European La Castanyak merkaturatu du, eta AEBetan Daptone zigilu pres-

tigiotsuak. Reigning Sound, Naomi Shelton & the Gospel Queens eta Robbers on High Street taldeetako musikarien egitasmoa da The Jay Vons, eta proiektu horien aztarna nabarmena da 60ko rocketik eta souletik edaten duten hamabi doinuotan. Orriotara ekarritako Durand Jones & the Indications-en *American Love Call* diskoarekin aldera daiteke *The Word*, baina jario beltza gordinagoa da, rhythm and blues zaleagoa; halere, musikariok badakite beren alde sofistikatuen ere agertzen, flautarekin jantzitako *American Love Call* balada ederra horren erakusgarri. Nire kopia etxera bidean da.

**BI AHOTSETARA
Jaione Dagdrommer****Xerkan**

Lo ezinaren atzaparretan kulunka, inoiz baino gehiago ari da irakurtzen eta idazten, baina, batez ere, inoiz baino musika gehiago entzuten. Ez du sentitzen, ordea, lotan pasatu beharko lituzkeen ordu horiek alferrik galtzen ari denik. Hitzek eta diskoek uzten dioten abagunean gogoeta egiteko beta du. Pentamenduen anabasan ez daki zeren bila dabilen, ordea; erantzunak baino galdera gehiagoren bila agian? Askotan ez al dugu bilatzen badakigulako ez dugula aurkituko?

Finean, kulturak ba al du hel-

buru zehatzik? Norabiderik eza bere horretan ez al da norabide bat? Mundu honetan zertarako dagoen galdetuko balioite, behar-bada esango luke ahalik eta disko gehien entzuteko dagoela. Musikaren bitartez estimulu berriak bilatzeko, besterik gabe. Maite du beste pertsonen mundu ikuspegiak arakatzeko, hausnartzeko, haietan galtzea. Kulturazaleak voyeur emozionalak gara. Mundu ezberdinak bisitatzeo aukera ematen digute melodiek eta hitzek. Liburu edo disko batek hegazkin txartel batek

**Erantzunak
lasaigarriak dira
denbora labur batez,
baina azkar
agortzen dira**

baino gutxiago balio du. Kulturaren helburua bere bitartez hausnartzeko dela iruditzen zaio, bere bitartez besteen emozioekin gozatzeko, negar egitea, masturbatzeko eta aurkikuntzak merezi duten pertsonekin partekatzea.

3:01. Emozioz mozorrotutako galderak izarren pare bere gaua argitzen. Horiexek nagusitzen zaizkio disko eder bat edo liburu on bat irakurtzen duenean. Gogoko ditu galderak, beti dira zerbaiten hasiera. Erantzunak lasaigarriak dira denbora labur batez, baina azkar agortzen dira. Zoriontasuna etengabeko galderak dira, erantzuna mihi puntan edukitzea. Benetako poza oraindik ezagutzen ez duen hurrengo sortzaile gustukoaren xerkan etengabe ibiltzea da, eta horixe eskaintzen dio, hain justu, musikak, disko edo artista berrien aitzakian, bere buruaren ezagutza etengabea.

**Erresuma
babesteko****Inaxio Esnaola Aranzadi**

Erregearen magiak bermatzen du Dravernue erresumaren segurtasuna, eta gaizkileen etengabeko erasoerik aurre egiteko gai den bakarra da. Oinordekorik ez dauka, eta, ordezkioa topatzeko, erresumako gazteei emango die aukera. Horien artean bada jaiotzetik elbarria den haur bat, eta begiak harengan dauzka jarrita erregeak. Horrela abiatzen da Donostiako Dravernue heavy metal taldeak argitaratu duen *Proyecto D.A.G.D.A.* izeneko disko-liburuaren kontakizuna.

Raul Gil eta Unai Iglesias musikariak irudimena eta sormena landu dute, abentura entretenigarria lortzeraino. Heiko eta Anuhi pertsonaia dira, hurrenez hurren. Idatzi duten istorioak gogora ekar ditzake azken urteetan zineman estreinatu diren film distopiko batzuk (*The Hunger Games*, *Divergent*...). Horrela, kontaktuzun propioa aurkeztu dute, eta baditu bereizgarriak. Esanguratsuen da gaztelaniazko hainbat bikoizle ezagunen parte hartzea: Pepe eta Nuria Mediavilla, Jose

Posada, Ramon Langa eta Nerea Alonso, besteak beste.

Dravernue bandaren estreina-ko erronkarekin musikari eta lagunek ere bat egin dute. Esate ba-

terako, bitxia da Aitor Gorosabel (Su ta Gar) eta Mikel Bizar (Aurritz, Idi Bihotz) gaztelaniaz abesten entzutea. Isra Ramos (Avalanch), Arkaitz Zayas (Hiverland) eta Raquel Reyche (Song of Anhubis) abeslariak ere parte hartu dute. Taldeak egindako lan aparta aberasteko baliagarriak izan dira.

Erreparto zabalarekin erreperitorio are zabalagoa osatu dute, eta hasieratik bukaeraraino gozaten da. *Huye* sarrerarekin hasten da kontakizuna, eta Heikoren ibilerak ezagutuko ditugu hemezortzigarren eta azken atalera bitarte. Bidean pasarte zein abesti ederrak daude, betiere heavy metal melodikoarekin lagunduta. *El inicio*, *Las pruebas*, *El aprendizaje*, *Los remordimientos*, *Proyecto D.A.G.D.A.* eta *La quimera* dira istorioaren atal adierazgarrienak. Ez dute azalpenik merezi istorioaren inguruko spoiler-ik egon ez dadin.

Zuzenera eramateko erronka polita dute gipuzkoarrek, eta urtarrilaren 3an izango da agertokian ikusteko lehen aukera. Istorioaren parte diren gaingitu beharreko proben antzerakoa izango da. Antiguako Doka antzokian izango dira bost kideak. Raul Gil abeslariarekin eta Unai Iglesias gitarristarekin batera, Alex Rodriguez (baxua), Ekaitz Acedo (bateria) eta Eider Bailador (pianoa) ariko dira. Erresumaren aldeko borroka agertokira eramateko unea da.

**Dravernue
'Proyecto D.A.G.D.A.'**

Argitaratzailea: Egilea editore.

ERAKUSKETAK



**SISTEMEN DISEINUA:
ULM ESKOLA ETA
BRAUNEN DISEINUA
MUGAK**

San Telmo Museoa
Urtarrilaren 12a arte

GAUR



**KIPUTZ.
AMILDEGIA
HISTORIAURREAN**

San Telmo Museoa
Otsailaren 9a arte

GAUR
HOY

EUSKARA IBILTARIA

San Telmo Museoa
Otsailaren 23a arte

GAUR
HOY

**LUR:
KULTURA HERRIARENZAT**

Ernest Lluch K.E.
Urtarrilaren 18a arte

LITERATURA

ORDESA

MANUEL VILAS
LITERATUR SOLASALDIA:
bertan egongo da idazlea
San Telmo Museoa (Eliza Iglesia)
Abenduak 17. 19:30
● gaztelania

Gidatzailea: Amaia García

ANTZERKIA



TRAIDOR
TEATRO CORSARIO

Antzoki Zaharra
Abenduak 15. 19:00
● gaztelania

GAUR



**FELICIDAD
TENEMOS GATO**

Imanol Larzabal (Lugaritz)
Abenduak 15. 19:30
● gaztelania

GAUR

**LA CULPA
TALYCUAL & PENTACIÓ**

Victoria Eugenia
Abenduak 27-28. 20:00
● gaztelania



MOKO ZORROTZA
AITZIBER GARMENDIA &
JON PLAZAOLA

Antzoki Zaharra
Abenduak 27-29
27, 28: 20:00
29: 19:00
● euskara

MUSIKA



JUDITH JÁUREGUI
Victoria Eugenia Club
Abenduak 18. 20:00



**EÑAUT ELORRIETA:
IRTEERA ARGIAK**

Victoria Eugenia
Abenduak 22. 19:00
● euskara



ALOS QUARTET 20 URTE
Victoria Eugenia
Abenduak 23. 20:00

**JUAN MARI BELTRAN:
KOSTALDEKO SOINUAK**

Victoria Eugenia Club
Abenduak 26. 20:00

HAURRAK

GABONAK ZURETZAT

Donostia
Urtarrilaren 6a arte
www.donostia.eus/gazteria

DANTZA



**STILL LIFE &
NO HALF MEASURES**
TAIAT DANSA

Victoria Eugenia
Abenduak 20. 20:00

+ KULTURA

HAMAIKA ENTZUTEKO!

Sari banaketa eta irrati-antzerkia
Victoria Eugenia Club
Abenduak 17. 19:30
● euskara + gaztelania
Zuzenean FM 107.4
(DK Irratia / irratia.donostiakultura.eus)

ZINEMA

VIVIR SU VIDA
(VIVRE SA VIE: FILM
EN DOUZE TABLEAUX,
1962)

NOSFERATU: FASSBINDER
Tabakalera
Abenduak 15. 19:00
● JBA gaztelania

**KRESALA ZINEKLUBA
SARIAREN EMATE EKITALDIA
VOLVER (2006)**

Antzoki Zaharra
Abenduak 16. 19:30
Saritua: Yuyi Beringola

**ZULATZAILEAK
INGOLSTADTEN**

(PIONIERE IN
INGOLSTADT, 1971)
NOSFERATU: FASSBINDER
Tabakalera
Abenduak 18. 19:00
● JBA euskara

**LOS TOMATES
ESCUCHAN A WAGNER**
(WHEN TOMATOES MET
WAGNER, 2019)

Hileko Dokumentala
Tomasene K.E.
Abenduak 19. 19:00
● JBA gaztelania



Will Oldham musikariak Bonnie Prince Billy ezizenarekin sinatu ditu bere azken diskoak. Askotariko izen artistikoak izan ditu, hala ere. BERRIA

Hainbat urtez abesti propiorik sortu eta argitaratu gabe egon ondoren, Will Oldham musikari estatubatuarrek lan berria kaleratu du: 'I Made a Place'. Hamahiru kantuk osatzen dute diskoa.

Denborak ondutako abestiak

Aitor Biain

Itzulera bat da, baina ez da itzulera bat oinarrian. Tira, itzulera bat da, bai, baina Willd Oldhamen estilokoa (Louisville, Kentucky, AEBak, 1970), bizi den unibertso propioan berak jartzen baititu arauak. Hala egin izan du musikari estatubatuarrek hastapen-tatik, eta modu bertsuan jarraitzen du oraindik ere. 2011. urtean argitaratu zuen kantu propioz osatutako azkeneko diskoa: *Wolfroy Goes to Town*. Ordutik ez dio utzi musika egiteari, are gutxiago lanak argitaratzeari; askotariko abesti eta bertsio bildumak kaleratu ditu. Zazpi urteren ostean, ordea, sorkuntza propiora itzuli da, eta soilik bereak diren kantuen bilduma bat aurkeztu du orain: *I Made a Place*.

Bonnie Prince Billy ezizenarekin sinatu du lan berria, azken urteetan egin moduan. 1990eko urteen hasieran musikaren bideari ekin zionetik gaur arte, izen artistiko ugariarekin aurkeztu izan du bere burua. Batzuetan, bere benetako izena erabili du; beste ba-

¿CUÁNTA ÓPERA CABE EN UNA TARJETA?

La mejor forma de regalar ópera con un amplio abanico de posibilidades. Para que quien la reciba pueda elegir el espectáculo que más le apetezca.

Triunfa esta Navidad con un regalo de altura.

Compra ahora tu tarjeta ABAO en nuestras oficinas o llamando al T. [944 355 100](tel:944355100)

Regala ópera. Regala ABAO.

Colabora /
Laguntzailea

berria

ZENBAT OPERA SARTZEN DA TXARTEL BATEAN?

Opera oparitzeko modurik onena, aukera ugariarekin. Jasotzen duenak nahi duen ikuskizuna aukeratu ahal izateko.

Egizu opari aparta Eguberri hauetan.

Erosi orain zure ABAO txartela gure bulegoetan edo [944 355 100](tel:944355100) zenbakira deituz

Oparitu opera. Oparitu ABAO.



ABAO | BILBAO OPERA

tzuetan, Palace Brothers edo Palace ererabilizatu du, bere anabasa propio hori gehiago nahastuz.

Oldhamen lan berriak AEBetako herri musika du oinarri, ohi legez. Folk, country eta pop musikaren arteko uztarketa berezi bat entzun daiteke haren estudioko 26. diskoa osatzen duten hamahiru kantuetan. Delikatua bezain nahasgarria da lana; orain malenkoniatsua eta sakona, orain alaiatsua eta askea. Maitasunaz mintzo da, eta etorkizunaz.

Elsa Hansen bikotekidearekin batera orain bi urte Hawaiiin egindako egonaldi baten ondorio da diskoa. Beka bati esker, musikariak hilabete eman zuen Ozeano Barearen erdian dagoen uharte multzoan, ezerezaren eta osotasunaren artean. Han sortu eta idatzi zituen orain eman dituen abestiak, bilduma berri baten ideia oraindik buruan ez zuen arren. «Aske sentitu nintzen, eta idatzi egin nuen. Gerora, abestietan lanean segitu nuen, sakontzen, baina asmo jakirik gabe. Inoiz ez nuen pentsatu grabatuko nituenik». Azkenean, ordea, grabatu egin zituen, «baina argitaratzeko asmorik gabe». Denborak eman dio kantuak behar bezala ondu eta pauso erabakigarri hori emateko adorea. «Egin dudan urrats bakoitza autonomoa izan da».

Unean uneko beharren arabera antolatu izan du lana Oldhamen. Ez du talde finkorik, eta lan berrirako Louisville jaioterri eta bizilekuko musikari zenbaiten laguntza izan du: besteak beste, Nathan Salsburg, Mike Hyman, Joan Shelley eta Jacob Duncan izan ditu taldekide. Elkarren arteko uztarketak emaitza solidoa bezain delikatua eman du, soinuari dagokionez. Louisvillen bertan grabatu zuten diskoa, Oldhamen «etxetik bost kilometrora». Domino Records etxearekin kaleratu du.

Musikaren geroaz kezka

Asko aldatu da mundua Oldhamen azken diskotik, eta ere gehiago musikari dagokionez. Baina musikaria bera ere aldatu da azken urteetan. Elsa Hansen bikotekidearekin ezkondu da, esaterako, eta bi urteko alaba bat du orain. Bada, aitortu duenez, ingurune berri horrek nabarmen eragin dio arlo pertsonalean nahiz profesionalean, deseroro ere sentitzeraino. Hori horrela, adierazi du disko berria osatzen duten kantuak «oso garrantzitsuak» direla beretzat, bereziak direla «onerako nahiz txarrerako», eta zalantza izan duela argitaratu ala ez.

Zalantza horretan, baina, kontu pertsonalek baino zeresan handiagoa izan dute Internet bidezko musika plataformen «monopolio» berriek. «Grabatutako musikaren unibertsoa atomizatu egin dute. Arnasari eusten saiatu naiz, ekaitza pasatu arte itxaro-

ten, baina ekaitza hemen geratu ko da, eta haren suntsiketa da gure paisaia berria». Streaming-aren aroan arnasa hartzeko parada eman gura dio entzulari musikariak, nabarmendu duenez.

Batzuek zein besteek aro digitalaren aurrean amore eman ala

ez eztabaidatzen duten bitartean, musikari estatubatuarrek bere arauak ditu, eta bide propio bati jarraitu dio oraingoan ere, kezka iturri dituen aldaketak gertatu izan ez balira bezala. Illo horri lotuta uler daiteke, esaterako, diskoko kantuen izenak argitalpen

egunera arte isilean eustearen «estrategia». Oldhamek argi izan du beti zer egin duen eta zertarako, eta ez dirudi norabidea aldatuko duenik orain. «Hau da nik eginen dakidana, eta esan dezaket aurrerantzean ere hau egingen segituko dudala».

ZIZITU
BATEAN
eskaintza onenaren bila



Zatoz Euskaltelera

 200 MEGA	 20GB DEI MUGAGABEAK	 AISIA TBa ANDROID 4K	14'9€ /hil 6 hilabetez
---	--	--	-------------------------------------

Kontratatu hemen
EUSKALTEL.EUS | DENDAK | 900 840 246



Zatoz Euskaltelera 2019/12/20 baino lehen, eta sei hilabetez izango duzu sustapen hau. Irupen-konpromisoa: 12 hilabete besterik ez. Gero, prezioa 63 €/hil izango da. Prezioek sartuta dute BEZA (2019/12/22tik aurrera egongo dira indarrean). Informazio gehiago, hemen: www.euskaltel.eus



Guy de Maupassanten bederatzi narrazio «bizi bezain bitxi» euskarara itzuli ditu Jexuxmari Mendizabal 'Bizargorri'-k, eta 'Vendetta eta beste ipuin batzuk' lanean bilduta plazaratu.

Baso eremuak, itsaslabarrak, Parisko kaleak

Ainhoa Sarasola Donostia

Ama xaharrak, bere semearen gorpua, parean bidezko tokatu ziren batzuek ekarria, jaso zuenean, ez zuen negarririk egin; baina luzaro mantendu zen geldi-geldi begira; ondoren, hilotzaren gainera esku zimurra luzaturik, *vendetta* aginduzion, mendekua, bengantza». Herria eta mendeku gosea ditu gai nagusi *Vendetta* ipuinak. Guy de Maupassantek idatzitako hiru-rehundurik gora narrazioen artean dago, eta, idazlea nobelagintzan ere aritu zen arren, hain zuzen bere ipuingintzarako trebeziagatik da laudatua. Narrazio hori eta beste zortzi euskarara itzuli ditu Je-

xuxmari Mendizabal *Bizargorri* itzultzaile eta idazleak, eta *Vendetta eta beste ipuin batzuk* liburuan jaso ditu. Albedania argitaletxeak plazaratu berri du ipuin bilduma.

Mendizabalek hautatu ditu liburuko bederatzi narrazioak, eta, azaldu duenez, «gorrotoa, mendekua, diru gosea, alkohola, pasio sexuala, inbidia» eta beste dituzte hizpide. «Ez dago gai bakarra, baina Frantzia kokatutako egoera gogorak edo gordinak dira ia beti». Ipuin «bitxiak bezain bitziak» dira liburuan bildutakoak haren ustez, eta «urrutikoak, aspaldikoak, XIX. mendekoak iruditu arren, gaur egungo gertakariak, pertsonaiak, akzioak» kontatzen dituzte. «Beraz, oso balio handikoak dira gaur egun ere».



Guy de Maupassant idazlearen erretratu bat. PAGINAS DE ESPUMA ARGITALETXEA / EFE

Hautatutako ipuinok hiru paisaia nagusitan girotuta daudela ere azaldu du itzultzaileak. Batek, Normandiako landa ingurua ageri da, «bera jaio zen iparraldeko inguru hori, baserri eta nekazari mundua, basoan galdutako etxeak...». Gogorarazi duenez, Frantziaren eta Prusiaren arteko gerran (1870-1871) soldadu ibili zen Maupassant, eta bere narra-



«Ipuinotan ez dago gai bakarra, baina Frantzia kokatutako egoera gogorak edo gordinak dira ia beti»

Jexuxmari Mendizabal, 'Bizargorri' itzultzailea eta idazlea

zio askotan ageri dira gerrari lotutako kontakizunak. Tartean, Normandian girotutakoak. «Gizon gehienak frontean ziren, eta, baserri askotan, aita ez bazen, semea hila zen; beraz, etxe horiek hartzen zituzten Prusiatik etorritakoak, eta bertakoekin bizi izan ziren. Egoera gogorak ziren».

Paris da bigarren jokaleku nagusia, «Sena bazterreko Paris, hiriko kaleak, harribitxiak, dirua, militarrek, burgesia txikia...», itzultzaileak zehaztu duenez. Senaren bazterretan eta hiriko kaleetan girotutako istorio batzuk daude libururako hautatuen artean, «egoera gordin samarrak» kontatzen dituztenak horiek ere. Eta Korsikako eta Frantzia Hegoaldeko kostaldean litzateke hirugarren paisaia, «mendi harkaitzetatik zintzilik dauden herriak eta kosta latz horretako arrantzaleen bizimodu gogorra» erakusten dituzten istorioetan ageri dena. Hain justu ere, paisaia horretan girotuta dago *Vendetta* ipuina, beste hainbaten artean.

Dela baserri giroa, dela kostaldeko bizitza, dela Parisko burgesen zein ez-burgesen bizimodua, horiek guztiak eta beste edozein giro zein paisaia deskribatzeko idazlearen gaitasuna nabarmendu du Mendizabalek. «Tokiak, esaterako, zoragarri deskribatzen ditu». Esaldi bakoitzean justu-justuko hitzak baliatzen dituela ere azpimarratu du. «Ez da galtzen edertasuneko hitz barrokoetan. Esaldi guztietan hitz doia erabiltzen du, ederkerietan galdu gabe. Horregatik gertatzen da, nire ustez, irakurketa hain atsegina, erraz eramaten zaituelako».

Hain zuzen, idazlearen ezauga-

berria laguna



eizmendi anaiak
kirolak eta armategia

Kale Berria, 19-21
20150 Villabona

armeria_eizmendi@telefonica.net

T. 943-69 26 23
M. 688-84 49 83



BORDA
ARDOAK

Foruen kalea 12, beheha • ZARAUTZ • Tel.: 943-13 42 05

IG
karratu
ARKITEKTURA

EIT - PROIEKTUAK
BIRGAIKUNTZA
PASSIVHAUS
BIOERAIKUNTZA

igkarratu.com
945 245 641
arantzabal 8, 3C
Vitoria-Gasteiz

hamaika mountain

alpinismoa
eskalada
trekking
trail running
nordic walking
mendiko eskia

info@hamaikamountain.com
www.hamaikamountain.com
944978988



Doctor Areilza, 9
BILBAO

rien artean, deskribapenatarako bere abilezia eta hitz doia bilaketa nabarmen ditu Anjel Lertxundi idazleak ere, libururako idatzi duen hitzaurrean. Haren hitzetan, «Guy de Maupassant da *France profonde*-ko izaera sakona modu fidelenean jaso eta deskribatu zuen idazlea. Gustave Flauberten miresle eta laguna, le mot juste bilatzea zen Maupassantentzat ere idaztea (...)».

Flauberten eskutik

Maupassanten bizitzaren inguru-ko arrasto batzuk ere eman ditu Mendizabalek, argitu gabeko zalantza ugari daudela ohartaraziz. Jaio zen lekutik hasita. Tourville-sur-Arques eta Dieppe inguruan sortuzen, Normandian, 1850. urtean, «Paristik Londreserako mapan erdi-erdian, Mantxako kanalaren ertzean». 13 urte zituela, gurasoak banandu egin ziren, eta amarekin bizi izan zen ordutik aurrera. «Klasikoen irakurle amorratua» ei zuen ama, eta harengandik jaso zuen literaturarako zaletasuna.

Gaztetan seminario batera joan zen, baina bota egin zuten handik. «Geroztik, erlijio edo apaiz usaineko guztiari halako herra bat hartu zion». Lizeo batean hasi zen ondoren, eta bere bizitza literaturara bideratzeko hautuan eragin handia izan zuten bi lagun ezagutu zituen han: Louis Bouilhet eta Gustave Flaubert. Azken hori «lagun, gidari eta aholkulari» zuela sartu zen literatur munduan, aldiakari eta liburuen edizioan, baita idazten ere, ez lehenago gerratik eta funtzionariotza lanetik pasatu gabe. Hamabost ipuin-bilduma – hirurehunik gora ipuin, lehenik egunkarietan eta gero liburu gisa argitaratu zirenak –, eta sei nobela idatzi zituen, baita kronika ugari ere. Gaztetatik jasan zituen sifilisa eta neurosirako joera. 1893. urtean hil zen, 42 urterekin, Parisko erietxe psikiatriko batean.

Lehenago ere euskaratua zuen Maupassanten lanik Mendizabalek; 1992an, *Roke txikia* plazaratu zuen, Erein argitaletxearekin. Azaldu du lan berriko ipuinak duela zortzi bat urte hasi zela itzultzen, baina gero «lotan» geratu zirela, hari eta orain Alberdaniak horiek «esnatu» eta, beste hainbat gehituta, argia ikusi duten arte.

Maupassanten narrazio gehiago ere badaude euskaraz irakurgai: besteak beste, Joakin Balentziak, Felipe Juaristik, Xabier Monasteriok, Juan Kruz Igerabidek, Mikel Garmendiak, Matias Mujikak, Pedro Diez de Ultzurrunek, Joseba Urteagak, Josu Zabaletak eta Koldo Izagirik urteotan egindako itzulpen lanei esker.

Neurtitzaren jolasa

Joannes Jauregi

Josteta dario Louis Aragonen poesia kaierari, Itziar Diez de Ultzurrun itzultzaile apartak ekarri digun honi; josteta, eta hitzen lilura, hala Aragonen irudi-kadentzia azkengabea nola Diez de Ultzurrunen itzulpen neurtuan. Liburu honetan, gutxi dira orrialde bakarrean kabitzen diren poemak, eta halere haien eritimoaren biziak trostan bezala darama irakurle liburu osoan barrena. Izan ere, kaier honetan itzultzailearen hautu printzipalak ematen du atentzioa gehien: alegia, hitz neurtuz itzultzeko hautuak, poema gehienetako silabaz silaba neurtu eta errimaz ebakitzeko. Arin esaten da, baina itzulpen-lanari metrika eta errima eranstea, edukia zertxobait behartuagatik ezinbestean, ez da lan makala.

Gaur egun, poesiak lerroa nahi (edo behar) duenean ebakitzen duen honetan, irakurleak agian galduxeaz izango du ohitura silabaz silabako kadentzia eritimiko



'Louis Aragon'

Itzultzailea: Itziar Diez de Ultzurrun.
Bilduma: Munduko Poesia Kaierak.
Argitaletxea: Susa.

Egun goibelak, irudi beltzak

Aiara Sampedro

Harkaitz Canok duela urtebete argitaratu zuen *Fakiraren ahotza* eta duela hilabete batzuk nobelaren gaztelaniarako itzulpena, baina hori gutxi balitz, idazlea ez da egon geldirik. Hain zuzen, Durangoko Azokan bertan, hiru lan aurkezten ikusi genuen: batetik, *Amets alokatuak* komikia; bestetik, Berri Txarrak musika taldearen agurrerako prestatutako liburu bat; eta azkenik, dembora hartu du argitaratutako artean hemengo komikia aurkezteko: Canoren eta Adur Larrea marrazkilaria artean Txalpartak azaroaren 20rako argitaratutako *Antzara eguna* komikia.

Santi Brouarden hilketa ezagutzen diren nondik norakoa azaltzen ditu lanak; izenburuak ere politikariaren hilketa baino egun batzuk lehenago Lekeitioko



'Antzara eguna'

Idazlea: Harkaitz Cano. **Ilustratzailea:** Adur Larrea. **Argitaletxea:** Txalparta.

bati segitzeko eta hoskidetasunean laketzeko: «Tristura histuak du ahazten, / Bihotz hautsiak hotza apaltzen». Errima hoskidea eta asonantea beldurrik gabe tarikatzen dira, eta bada lerroen barneko hoskidetasunak ere: «Abesti bat garbia nola ur berria / Eta txuria nola behialako ogia / Jaiotzaren gainetik dakikeena hegan / Artzainek ikusteko ongi den maneran». Bertso-lerroen neurriak ere askotarikoak dira, orobat hamar silabakoak, hemezortziak edo hamabikiak, baina doi-doiak guztiak ere, betelarik batere gabeak: «Alferrik dute haizeek uxatzen zeru urdinaren hegina / Artzainek ikusteko ongi den maneran». Bertso-lerroen neurriak ere askotarikoak dira, orobat hamar silabakoak, hemezortziak edo hamabikiak, baina doi-doiak guztiak ere, betelarik batere gabeak: «Alferrik dute haizeek uxatzen zeru urdinaren hegina / Artzainek ikusteko ongi den maneran». Bertso-lerroen neurriak ere askotarikoak dira, orobat hamar silabakoak, hemezortziak edo hamabikiak, baina doi-doiak guztiak ere, betelarik batere gabeak: «Alferrik dute haizeek uxatzen zeru urdinaren hegina / Artzainek ikusteko ongi den maneran».

Hain justu ere, doitze formal horrek berekin dakar beste bertute bat, nik uste, poeta hitz neurtzaile on ororena: formulazioarekin bete-betea asmatzea, hots, hitz-perpauak ezinago egokitzea poemari eta eduki poetikoari berari. Hitzak irudiak bezain ederrak izan daitezela, alegia. Esate baterako, «Batak zerruan zuen sinesten / Ez zen sinestun bertzea» anafara indartsua, edo: «Bihar atzo zer axola /

Aldatuz doa bihotza / Ez barkamen ez errima / Ukitu zure lokia». Metrikaren zorrotzak ez dakar zurruntasunik, aitzitik baikizik.

Joaira horretan, irakurleak kasik tupustean iristen da azken poema erdiragarrietara, ordurako metrika eta errima erantzirik eta olerkion kutsu ilunean sartuta. Beñat Sarasolaren hitzaurreak iradokitzen duenez, egilearen *Les Chambres* azken poema-bildumakoak bide dira, non heriotza baita gai nagusietako bat: «Nire bizitzako gela guztiak / beren hormekin itoko ninduten [...] bada gela zauriak baino ederragoak / Badira gelak hutsak irudituko zaizkizuenak / Badira gelak erreguka aritzeakoak». Azken-aurreko poemaren lehen lerro latzak balio lezake kaieraren akaberako kutsu indartsua laburbiltzeko: «Betor gorroto nauena eta hil nazala».

Hautu ausarta egin du Diez de Ultzurrunek antologia honi ekitean, eta emaitzak ez dio kale egin. Izan ere, ale honetan, Munduko Poesia Kaieran bilduma osoan bezala, argi ikusten da poesia idazteko adina modu daude la poesia itzultzeko ere, poetak eta itzultzaileak bezain ugariak. Beto, bada, gehiago.

jaietan izan zen arrakastarik gabeko saiakerari egiten dio erreferentzia. Bi planotan dago kontatua, Canori gustatzen zaion bezala: alderdi poetiko bat, eta historia kontatzen duen alderdi bat. Historiaren barnean, gainera, bi barne-kontakizun daude kontrajarrira: bi aldeena, Brouard kide zen ezker abertzalearena eta GALEko hiltzaileena.

Alderdi lirikoari dagokion planoan, testu poetikoek Santiago Brouard pertsonaia historikoarekin dute zerikusia. Komikian bertan aipatzen da ekarritako olerkiak Brouard zenaren emazte Teresa Aldamizek, zeina poeta filipinarra den, idatziak izan direla. Horrek idazleari Espainiako estatuak Euskal Herrian baliatutako gerra zikinaren eta Hego Amerikako beste hainbat estatuk aplikatutako gerra zikinaren artean lotura egiteko balioko dio, esanahi zabalera testu bat osatuz irakurlearen tzaiko beste hainbat estatuk aplikatutako gerra zikinaren artean lotura egiteko balioko dio.

Bestalde, narrazioaren planoan ere bi kontakizun banatzen direla esan dugu, hildakoaren eta hiltzailearen planoak, alegia. Eta horietan, hainbat sekuentzia tempo-

ral desberdintzen dira aldi berean: kontakizuna kokatzen den uneko dembora tartea; eta, gerora, Brouarden hiltzailetako batek komunikabideetan egindako aitortpen publikoak biltzen dituen.

Ez da bereziki testu katramilatu, eta hala ere, Canoren estiloa biltzen du: badago lekurik pertsonaien barne-gogoetak azalratzeko, lasartearrak hain berea duen estiloa ikusiz horietan. Irudieki dagokienez, zuri-beltzean daude nobela osoan zehar, eta tonu berekoa da azala ere: irakurlearen begietara kontakizunaren iluntasuna nabarmetzeko balio du. Hala ere, trazu leuneko marrazkiak osatu ditu Larreak, eta zuri-beltzen jolasak lanari histasuna ematen badio ere, irudien xumeak ez du monokromiak eragin dezakeen irudien betekada gerta dadin ahalbidetzen.

Testuak ez du gaiaren gaineko ezer berririk gehituko, ziurrenik ez da idazlearen antologiatarako testu hautatuen artean egongo; eta hala ere, irakurtzen disfrutatzen da. Egileak euskal gatazka inguruaren osatutako lanen azken emaitza, idazleak imaginario kolektiboari egindako ekarpenetan testu beharrezkoa.

50 urte
Petronor
energia
ENERGIA AURREZTEKO
AHOLKUAK
Iturria: Energiaren Euskal
Erakundea

Autoa gidatzean, abian jartzeko baino ez erabili lehen
martxa; ahalik eta lasterren erabili bigarren martxa.



Eguraldia

euskalmet
euskal meteorologia agentzia




Antzera

Giro lasaiak jarraituko du. Mendebaldean, zerua lainotuago egongo da, eta ezin da baztertu bertan euri apur bat egitea. Ekialdean, berriz, hodeitza saretuago egongo da. Hego haizea ibiliko da; goizean goiz indarra izango du, eta, gero, ahulduz joango da. Tenperatura leuna izango da.

ITSASOA

Hego haizea 3-4ko indarrarekin; tarteka ipar-mendebaldekoa mendebaldean. Itsaso kizkurra edo itsaskirria. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-3,5 metro arteko olatuak altxatuko ditu.

ISOBARA MAPA



EGUZKIA SORTU GORDE
08:37 17:37

ILARGIA EGUNA
Ilbehera Abenduak 19, osteguna
Ilberria Abenduak 26, osteguna
Ilgora Urtarrilak 3, ostirala
Ilbetea Urtarrilak 10, ostirala

BIHAR ☁ =

Hodeiak ugaritzen

Hodei gehiago izango dira mendebaldean ekialdean baino, eta arratsaldetik aurrera baliteke euria egitea, bereziki gauean. Ekialdean zerua pixka bat garbiago egongo da, baina iluntzerako baliteke euritara jozea han ere. Hego-ekialdeko haizea ibiliko da beste behin, zakkarrago, oro har, eta tenperaturaren ez da gorabehera handirik izango.

ITSASALDIA ORDUA METROAK

Itsasgora	06:15	4,25
Itsasbehera	12:30	0,82
Itsasgora	18:46	3,99



Egin

TIANTAKA

Antzerkia
Erantzungailuari hizketan

Lau ahotseko istorio bat da Tiantaka antzerki konpainiaren *Utzi zure mezua seinalearen ondoren* antzezlan. Marina, Carmela, Sara eta Viviana dira protagonistak. Ez dira gai dituzten arazoei aurre egiteko, eta nahiago izango dute gertatzen zaaien hori erantzungailu automatiko bati esan. Gaur, Arrasaten emango dute antzezlan.

'Utzi zure mezua seinalearen ondoren'

Gaur, 19:30ean, Arrasateko Amaia antzokian (Gipuzkoa).

Emaguzu zure inguruko ekitaldien berri
<http://berria.eus/zerbitzuak/agenda/bidali/>



EKITALDIAK

ASTIGARRAGA Tomaxen abenturak: Azken balea ikuskizuna.
● Gaur, 17:00etan, kultur etxean.

DURANGO Carion Wind Ensemble.
● Gaur, 19:00etan, San Agustín kultur gunean.

EIBAR Broken Brothers Brass Band.
● Gaur, 19:30ean, Portalean.

GASTEIZ Jorge Salan & B.J.
● Gaur, 19:30ean, Urban Rock Concept aretoan.

LAZKAO Glu Glu: Go!azen 6.0.
● Gaur, 10:30ean, eta 12:30ean, Azeria kultur gunean.

LEIOA Bertso saioa: Miren Amuriza, Andoni Egaña eta Inazio Vidal bertsolariekin.
● Gaur, 11:30ean, Errekalde, Aketxe eta Bulebarreko plazetan.

Agenda osoa ikusteko, hemen duzu www.berria.eus-eko lotura



MUNITIBAR Txalo konpainiaren *Zoaz pake santuan* antzezlan.
● Gaur, 18:30ean, udal aretoan.

OIARTZUN Tralhaires, per-delà lo blu de las Montanhas / mendien urdina baino haratago izeneko ikuskizuna. Juan Mari Beltranez ar-tzaintzaren munduarekin lotura duten hainbat doinu joko ditu.
● Gaur, 19:00etan, udaletxean.

OÑATI Abereh taldearen kontzertua.
● Gaur, 12:30ean, Antixena gaztetxean.

PLENTZIA Charlie Cosh & Mikel Gaztañaga.
● Gaur, 13:00etan, Bahía de Plentzia hotelan.

SONDIKA Glu Glu konpainiaren *Mari Errauskin* antzezlan.
● Gaur, 17:00etan, kultur etxean.

SORALUZE Jon Gurrutxaga & Urbil Artolaren kontzertua.
● Gaur, 13:00etan, Zubian.

ZEANURI Pirritx, Porrotx eta Mari-motots pailazoak: *Bizi dantz* ikuskizuna.
● Gaur, 17:30ean, frontoian.

Euskadi, auzolana

ELUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

Hiria kale gorrian

Gorka Reizabal. Realak Gijonen lehen liga irabazi zuen 1981eko egun epiko hartan entzun genuen irratian lehenbiziko aldiz. Joxean Alkorta zen Herri Irratian Realaren emanaldiak egiten zituena, baina egun hartan Reizabal ondoan jarri zioten, noizean behin euskaraz komentarioak egiteko. Alkortari ez zion batere graziaz egin. Zamoraren bigarren golak eragindako bozkarioak ezta ririk gabe utzi zuen Rei-

zabal, eta mutu geratu zen hurrezkerok. Aurrerago, Iñaki Elorza hasi zen euskara zuzeneko kirol irratsaioei normaltasunez itsastan, eta Reizabalek Radio San Sebastianen kirol sailaren ardura hartu zuen. Hantxe zaildu zen kirol esale irratigintzan, Ser Kateak izan duen euskaltzalerik handiena (bakarra agian...).

Antihagiografia ariketa. Oroimen entziklopedikoa zuela, ate-

raldi txundigarriak zituela, eta, batez ere, realzale amorratua zela era askotara gogorarazi digute hainbatek. Horrela, izugarriak iruditu zaizkit zenbait adierazpen, gizaki eta kazetari miresgarri bat ez, baizik eta gorrotagarri samar bat marraztera iritsi baitarra. Reala familiaren gainetik jarri izan zuela esan du peña bateko ordezkari batek, eta muturrerainoko forofoa zelako harekin nekez egin zitekeela eztabaida arrazionalik aitortu digu Tito Irazusta esatari ohiak.

Kale gorrian. Konformidadea eta poztasuna transmitituz ospatu zuten Hiri Gorrian saiokoek agur festa ostiralean. Zazpi urte-



UHINETATIK TIRAKA
Xabier Lasa

ko ibilbidean Maider Segurola eta Xabi Larrazabalek iraganean, eta Lander Eizagirre eta Amaia Artetxek gaur egun, saioari itsatsi izan dioten labelari eutsi zioten herenegun ere. Alegia, irudimeneren eta ikusminaren faktoreak erabiltzea gai eta gonbidatuen hautaketak planteatzeko orduan.

Bi enpresa likidatzailei galdetu zieten ea asmatu ote duten saioaren akaberaren komunikazio estrategian. Haien aburuz, entzulea argia da eta galdera askori erantzun behar zaie: zergatik, zertarako, nortzuk datozen, nortzuk doazen... Gainerakoan, kabalak egiten hasiko omen da. Egia esan, airean utzi dizkigute zenbait alderdi. Euskadi Irratiko programazio arduradun Garbiñe Uriak badio produktua oso ona izan dela, zer dela eta pertsiana jaitsi? Nahi besteke audientziarik ez badu eduki, zer kostatzen da airtortzea? Bestetik, esan zaigu nortzuk helduko dioten magazin berriari, baina ez nora doazen Eizagirre eta Arretxe.

«Bost atalak jarraian emateak ondo funtziona dezake»

Iñigo Aranbarri • Aktorea

ETB1ek 'Ihesaldia' telesaila estreinatuko du gaur, 22:15ean. Kartzelan dagoen ETako kide baten rola jokatzeko du Aranbarrik. Pozez hartu du euskarazko telesailen itzulera.

Urtzi Urkizu

2007an *Pilotari* telesaila aktore protagonista izan zen Iñigo Aranbarri (Azkoitia, Gipuzkoa, 1983). Azkeneko urteetan antzezlan ugari parte hartu du. Datorren urtean, Xake Produzioak taldearen *Fadoak kantatzen zituena gizona* antzezlan arituko da; lanaren estreinaldia irailean izango da, Tolosan (Gipuzkoa).

Udaberrian eta udan Patria telesailaren grabaketan aritu zinen. Udazken hasieran, Ihesaldia-n. Aldaketa handia izan al da batetik bestera?


Bai, batik bat demboren aldetik. Askori murritu dira denborak ETB1eko telesailen, eta horrek ematen dizu arrapaladan aritzeko sententzia. *Patria*-ren zortzi atalak bost hilabeteetan grabatu genituen; *Ihesaldia*-ren bostak, berriaz, bost asteetan genituen. **Antzerkian aritu zara zenbait ur-**

tez. Duela bi urte itzuli zinen berriaz ikus-entzuzkoetara. Nola-koa izaten ari da itzulera hori?

Modu naturalean etorri da. Ikus-entzuzkoen kodea ikaragarri gustatzen zait; modu sotilagoan egin beharreko aktore lana da. Oso pertsonala da, nahiz eta grabaketan gero aldamenekoak ematen dizkizun pista asko. Eskaini beharreko kontzientzia handiz neurtu behar duzu, sotiletik josten joateko, eta gauzarik txikiak dezente adieraz deza-keela aintzat hartuta.

Ihesaldia-ren kartzelako eszenak Segoviako (Espainia) espetxean grabatu zenituzten. Nola-koa esperientzia izan zen?

Segoviako ihesa filma ez zen grabatu, baina benetako ihesaldi-koek handik egin zuten ihes. Gaur egun kultur zentro bat da, eta, baimena eskatuz gero, aukera ematen dute bertan grabatzeko. Saiatzen zara preso haien aza-



INIGO URIZ/FOKU

lean sartzen, eta pentsatzen dut espetxean bizi izandakoak indar handikoak izango zirela. Politika izan zen benetako kartzela batean grabatzea guretzat, edonola ere. **Istorioren kartzelatik kanpo dauden pertsonaien tramak daude. Biak uztertuta ikusleak kateatuko direla uste duzu?**

Espere dut baietz. Bertsio ofizialak esaten du presoek ihes egin dutela, eta haien senideek hasieran ez dakite non dauden. Frustagarria izan behar du pertsona horientzat. Senideek ulertu behar

dute zer gertatu den, eta, jakiten dutenean espetxean bertan daudela ezkutatu, beste patxada bat izango dute.

Esan daiteke zuk jokatzeko duzun pertsonaia benetako istorioan Patxi Arana ETako kidea izan zela?

Pentsatzen dut harengan oinarritutako pertsonaia dela. Arana bera pertsonalki ezagutzeko aukerarik ez dut izan. Baina jokatzeko ari garen pertsonaia ez dira benetakoak bere horretan, baizik eta gidoi batean sortu diren per-

sonaia berri batzuk dira. Trama asko fikzionalak dira, baita bigarren mailako pertsonaia batzuk ere.

Zer iritzi duzu ETB1 bost atalak errenkadan bost egunetan emateko erabakiaz?

Ikusle moduan, gogoia pizten dit. Egun, zenbait plataformak fikziozko betekadak bultzatzen dituzte denboraldi osoa egun bakarrean jarrita. Bost atalak jarraian emateak ondo funtziona dezake. Ilusioa ematen dit hainbeste denbora atalen zain egon behar ez izateak. Ikusleak nahieran ikusi ahalko ditu gero, gainera.

ETB1 iragarri du beste hiru telesail berri egingo dituela datorren urtean, «fikzio soziala» egingo duela. Hautaprobetara aurkezteko asmorik baduzu?

Ez dakit nondik norakoak diren proiektu horiek, baina, aukera ematen badidate pertsonaia baterako proba egiteko, ez dut arazorik izango. Gero ikusi behar ea istorioak konbentzitzen nauen. Hala ere, galbahea aurretik pasatu ohi dute fikzioaren arduradunek.

Euskarazko telesailak itzultzea berri ona da, ezta?

Bai, dudarik gabe. Fikzioa kulturaren parte bat da. Telebista etxetara iristen da, erosoa da ikusleentzat, eta fikzioa euskaraz izatea herri honi buruzko gauzak kontatzeko aukera bat izatea da.

HBOK iragarri du maiatzean estreinatuko duela Patria telesaila. Iritsi daitezkeen kritikekin kezkarik ba al duzu?

Alde guztietatik iritsiko zaigu zaparrada. Hein batean ulertzen dut, gainera. Herri honetan min handia dago; oso gogorra izan da gatazka guztia. Kontzientzia izan behar dugu min handia dagoela, eta alde guztietatik egingo duela euria.

Hamaika

08:00: TB 3. **09:30:** Asteko kronika. **10:00:** Txanxangorria. **11:00:** Asteko kronika. **11:30:** Musikariak ikastetxean. **12:00:** Hiri baratzea. **12:30:** Asteko kronika. **13:00:** Gogoetaren Plaza. **13:45:** Musika zuzenean. **14:15:** Aritz Irastorza. **14:30:** Asteko kronika. **15:00:** Ttap elkarriketa. **15:30:** 11 leiho. **16:30:** Musikariak ikastetxean. **17:00:** Hiri baratzea. **17:30:** Kolpez kolpe. **18:30:** Asteko kronika. **19:00:** Booktegi: Uxue Alberdi. **19:30:** Gurean gaur. **20:00:** Kiliklon. **20:30:** Asteko kronika. **21:00:** Kolpez kolpe. **22:00:** Hiri baratzea. **22:30:** Musika zuzenean. **23:00:** Musikariak ikastetxean. **23:30:** Lotsagabe. **00:05:** Kolpez kolpe.

ETB 1

07:10: Euskal Herriak. **08:10:** Iparraldearen orena. **08:35:** Herri people. **09:35:** Bizi berria. **09:50:** Egi bidean. **10:00:** Meza. **11:00:** Herri Kirolak. **11:30:** Helmuja. **12:00:** Pilota. Emakume Master Cup. **14:00:** Gaur egun. **14:50:** Eguraldia. **15:00:** Hitzetik hortzera. **16:00:** Herri kirolak Urrezko Atzokariaren Kopa. **16:55:** ETB kantxa, pilota. **20:30:** Gaur egun. **20:55:** Eguraldia. **21:00:** Animaren margolariak. **22:15:** Ihesaldia. **23:15:** Azoka DAI Laburpena. **01:20:** Pilota. Emakume Master Cup.

ETB 2

07:00: Mi vida es un zoo. **07:45:** Una historia de Vasconia. **08:45:** Nueva vida. **09:00:** Palabra de ley. **09:05:** Expedition New Guinea. **09:35:** Naukas Bilbao 2019. **10:20:** Vascos por el mundo. **12:55:** Sustraia. **13:30:** Teknopolis. **14:05:** Atrápame si puedes. **14:58:** Teknopolis. **15:50:** Teleberri kirolak. **16:05:** Eguraldia. **16:20:** Zinema. Alex Hugo: El sol negro. 2019. **18:00:** Zinema. Rumbo a la venganza. 2011. **20:05:** Historias a bocados. **21:00:** Teleberri 2. **21:55:** Teleberri kirolak. **22:05:** Eguraldia. **22:15:** 360°. **23:25:** Basquexperience. **00:25:** Un plan perfecto. **01:20:** El somni - El sueño.

ETB 3

09:30: 3 Ene Kantak. **09:50:** Kaixo Timmy. **10:05:** Patri postaria. **10:40:** Munki eta Trunk. **10:55:** Yeti kontu-kontari. **11:10:** Dimitri. **11:15:** Raa Raa lehoi orrolaria. **11:45:** Olivia. **12:05:** Pingu hirian. **12:15:** Maya erlea. **12:40:** Noddy, jostalandiako detektibea. **13:05:** Yoko eta lagunak. **13:25:** Kaixo Timmy. **13:40:** Fantasia patruila. **14:00:** 3 Ene Kantak. **14:20:** Tib et Tuntum. **15:00:** Kody Kapow. **15:30:** Zinema. Olenztzero eta Amilaren sekretua. **16:30:** Psammyren showa. **16:50:** Spirit, zaldi askea. **17:40:** Cam eta Leon. **18:05:** Doraemon. **18:50:** Home: Tip eta Oren abenturak. **19:15:** Croodarren egungentia. **19:35:** Ozen galduta. **20:15:** Pipi Kaltzaluz. **20:40:** Doraemon.

ETB 4

07:30: Pilota, ETB Kantxa. **08:30:** Area bikia. **09:15:** Girasol. **12:00:** Vaya semanita. **12:50:** Atletismoa. **14:00:** Objektiv Euskadi. **16:00:** Vascos por el mundo. **18:10:** No es país para sosos. **19:15:** Del país de los vascos. **19:50:** Ongi etorri. **21:45:** Zinema. Octopussy. 1983. **23:55:** Zinema. El jinete pálido. 1985. **01:30:** Area bikia. **01:50:** ETB Kantxa, pilota.

Kanaldude

09:00: Lanbide foroa. **11:00:** Et Incarnatus. **13:00:** Musika zuzenean. **14:00:** Elkarriketaketa. **15:00:** Pilota. **18:00:** Hitzaldia. **20:00:** Lanbide foroa. **22:00:** Herenegun.

La 1

06:00: Albisteak. **09:45:** Comando actualidad. **11:50:** Españoles en el mundo. **14:30:** Corazón. **15:00:** Albisteak. **16:00:** Zinema. Una Navidad perfecta. 2015. **17:30:** Zinema. Princesa del corazón. 2010. **19:00:** Zinema. Donde vayas tú. 2010. **20:30:** Aquí la tierra. **21:00:** Albisteak. **22:05:** Zinema. Niños grandes 2. 2013. **23:35:** Zinema. Meni in black 3. 2012. **01:10:** Zinema. Contra las cuerdas. 2018. **03:15:** Albisteak.

La 2

10:30: Meza. **11:30:** Pueblo de dios. **11:55:** Saber vivir. **12:55:** Zoom tendencias. **13:30:** Dokumentalak. **15:35:** Saber y ganar. **16:20:** Grandes documentales. **19:35:** Diario de un nómada. **20:05:** De seda y hierro. **20:35:** El documental de La 2. **21:30:** Imprescindibles. **22:30:** Zinema. Mortadelo y Filemon contra Jimmy el chachondo. 2014. **00:35:** Zinema. Señor Wakefield. 2017. **02:15:** Dokumentalak.

Antena 3

07:10: Erase una vez. **08:40:** Los más... **12:15:**

Hollywood

08:05: Tess y su guardaespaldas. **09:40:** Lorax. **11:05:** Superman. **13:20:** Superman 2. **15:30:** Superman 4. **17:05:** El diario de Bridget Jones. **18:50:** El rey escorpión. **20:25:** Taken. **22:00:** Terminator salvation. **23:50:** Matrix reloaded.

AMC

06:05: Cain. **10:00:** The Terror. **15:00:** Más vale sola que mal acompañada. **15:00:** El pacificador. **17:00:** Amigos de más. **18:40:** U Boat. **20:20:** Código de honor. **22:10:** Los mercenarios 2. **23:45:** La noche más oscura.



Ahora caigo. **15:00:** Albisteak. **16:00:** Zinema. Aires de Navidad. 2017. **17:45:** Zinema. Sueños compartidos. 2018. **19:20:** Zinema. La Navidad más dulce. 2017. **21:00:** Albisteak. **22:10:** Zinema. A la deriva. 2018. **00:05:** Zinema. Asesinato 1, 2, 3. 2002. **02:30:** Live Casino.

Tele5

06:50: Got Talent España. **13:30:** Socialite. **15:00:** Albisteak. **16:00:** Viva la vida. **21:00:** Albisteak. **22:10:** ¡Toma salami!. **22:15:** GH VIP: el debate. **01:30:** GH VIP: la casa en directo.

La Sexta

08:30: ¿Que me pasa doctor?. **09:45:** Erase una vez. **11:30:** Equipo de investigación. **14:00:** Albisteak. **15:30:** Zinema. Jumanji. 1995. **17:30:** Liarla Pardo. **20:00:** Albisteak. **21:30:** El Objetivo. **22:30:** Zinema. La última superviviente. 2011. **00:15:** Navy: Investigación criminal.

Cuatro

07:00: El zapping de los surferos. **07:50:** Malas pulgas. **09:40:** Encantador de perros. **11:05:** Callejeros Viajeros. **14:00:** Cuatro al día. **15:00:** Kirolak. **15:45:** Zinema. Tomorrowland: el mundo del mañana. 2015. **18:05:** Zinema. Un hombre de familia. 2016. **20:10:** Cuatro al día. **21:30:** Volando voy. **22:55:** Cuarto milenio.

TF1

06:30: TFOU. **10:05:** Automoto. **11:00:** Téléfoot. **12:00:** Les 12 coups de midi. **13:00:** Journal. **13:30:** Miss France 2020. **14:45:** Reportages découverte. **16:00:** La vie secrète des chats. **17:10:** Sept à huit live. **18:15:** Sept à huit. **20:00:** Journal. **21:05:** Zinema. Rogue One: A Star Wars Story. 2016. **23:35:** Zinema. La Momie. 2017.

France 2

08:30: Les chemins de la foi. **12:00:** Tout le monde veut prendre sa place. **13:00:** Journal. **13:20:** 13h15, le dimanche... **14:20:** Vivement dimanche. **15:15:** Vivement dimanche prochain. **16:15:** Errugbia. Clermont-Auvergne - Bath. **18:15:** Affaire conclue: tout le monde a quelque chose à vendre. **18:35:** Les enfants de la télé. **20:00:** Journal. **20:30:** 20h30 le dimanche. **21:05:** Zinema. La Première Etoile. 2009. **22:35:** Zinema. Gangsterdam. 2017. **00:15:** Ciné sorties de la semaine.

France 3

08:00: Dimanche Ludo. **10:15:** Parlement hebdo. **10:45:** Nous, les européens. **11:05:** Expression directe. **11:30:** Dimanche en politique en régions. **12:00:** Le 12/13. **12:10:** Dimanche en politique. **12:55:** Les nouveaux nomades. **13:30:** Echappées belles. **15:15:** Des racines et des ailes. **16:15:** Lumières sur Lyon. **17:15:** 8 chances de tout gagner. **17:55:** Le grand slam. **19:00:** Le 19/20. **19:55:** Stade 2. **21:05:** Les enquêtes de Vera. **00:05:** Un monde sans fin. **01:40:** Les enquêtes de Murdoch. **03:15:** Les Forains.

Arte

09:25: Zinema. Jeux interdits. 1952. **11:00:** Cuisines des terroirs. **11:15:** Metropolis. **12:05:** L'Inde, le berceau du yoga. **12:50:** Voyage aux Amériques. **13:20:** Mystères d'archives. **14:15:** La vie sauvage dans la cordillère Cantabrique. **15:45:** Les montagnes bulgares. **17:35:** Pierre Soulages. **18:30:** Le King's College en musiques. **19:15:** Au fil des échères. **19:45:** Journal. **20:10:** Vox pop. **20:40:** Karambolage. **20:55:** Zinema. Ludwig ou le Crépuscule des dieux. 1973. **00:45:** L'Oratorio de Noël: Bach.

Denbora pasak

Sarraskia	Kanpo, landa	Onurgarri	Nafarroako ibaiak	Pl. perretxiko mota	Toki honetarako
Nafarroako udalerria	Mugarritzatua	Antzinako erresuma		Euskara ikastegia	Metal mota
			Errukarri Kamuts		
Selenioa		Ezin sumatuko			
Atlantikoko uhartedia		Zoro		Arrantza lekua Hil aurreko unek	
Lima				Nasa	
Arabako kontzejua				Barazki lekadunak	
					Radona Euritakoa
Erbioa		Abadiñoko auzoa			Bokal birbilba
Toka, zaizu		Iraunkor			Ukazio
			Usaina aditu Egiptoko hiriburua		Trumoiak
Lurrin bainuak hartzeko lekueak	Kolpe onomatopeia			Hegazkin Klariona	
	Abian jarria			Alderantziz gorra Asiako ibai luzea	
Pl. eliza mota					Kontso-nantea Ilion
Musika nota					
				Akabo Zeren	
Ugazama					Argi, hiltz elkarizetan Laborarien lanabes
Moztu	Garraio mota Ohar, jakinarazpen				Osmioa Kontso errepikatua
		Ultzamako kontzejua Ez eme			
Emaitza			Europako estatua Oxigenoa		
Gau guztietan				Senideak	

HITZ GEZIDUNAK

HERRIAN DAUDE ERANTZUNAK

Herrialdearen izena osatzen dutzen letrak erabilita aurkituko dituz proposatzen diretzugun definizioen erantzunak (parentesi artean, erantzunen letren kopurua)

KIRGIZISTAN

- Auhenak, zinkurinak (9) _____
- Istingak, urez estalitako hedadurak (8) _____
- Usteak (7) _____
- Nafarroako udalerria, Bortzirietan (7) _____
- Gaizkile (7) _____
- Bota, egotzi (7) _____

AURREKO ERANTZUNAK

8	9	2	6	1	4	5	3	7
3	7	1	9	8	5	2	6	4
6	4	5	2	7	3	1	8	9
9	8	4	5	3	6	7	1	2
7	1	3	8	9	2	6	4	5
2	5	6	7	4	1	8	9	3
4	6	7	3	2	8	9	5	1
5	3	9	1	6	7	4	2	8
1	2	8	4	5	9	3	7	6
7	4	6	2	8	3	9	5	1
5	9	2	4	1	6	3	7	8
8	1	3	7	9	5	2	4	6
9	8	5	3	6	2	7	1	4
3	6	7	8	4	1	5	2	9
4	2	1	9	5	7	8	6	3
1	3	4	5	7	9	6	8	2
2	7	8	6	3	4	1	9	5
6	5	9	1	2	8	4	3	7

			T	E	A				
			M	O	N	T	O	I	A
			M	A	E	Z	T	U	
			L	A	R	R	E	A	K
			T	A	R	N	E		
	B	S	D	E	M	A	G	R	
X	A	B	I	E	R	A	L	E	A
S	E	G	A	S	T	E	I	Z	
Z	O	K	O	A	K	E	S	K	U
M	A	N	U	D	K	A	R	T	
M	U	T	U	A	L	D	I	A	T
T	O	R	T	A	E	K	A	I	N
B	I	R	A	O	E	L	I	Z	A
L	O	D	I	T	U	Z	I	O	
K	A	S	U	E	R	R	U	D	U
K	A	N	P	A	I	N	O	R	A

«36ko gerrako irabazleek jarraitzen dute botere militarrean eta juridikoan»

Txepe Lara • Zinema ekoizlea

Donostiako Zinemaldian Zinemira saria jaso zuen Larak, zinemaren egindako ibilbidearen aitortza gisa. Haren ustez, «euskal idiosinkrasian» badago zerbait euskal sortzaileak istorioak irudiekin kontatzera eramaten dituen.

Urtzi Urkizu Donostia

Euskal politikagintzarekin eta euskal zinemarekin lotura estua izan du Jose Maria **Txepe** Larak (Madril, 1948). Alemanian bizi zela, ETAn sartu zen. ETApn-ko kide izan zen, eta Nafarroako EE sortzeko lanean aritu zen. Euskal Herriko film askoren ekoizlea izan da -besteak beste, *Urte ilunak*, *Aupa*, *Etxebeste!*, *Zigortzaileak* eta *Arriya* -.

Donostiako Zinemaldian Zinemira saria jaso zenuenean, esan zenuen ETApn-k dirua jarri zuela Segoviako ihesa filmarentzat. Nola izan zen hori?

Dirua Luis Suñer enpresariaren bahiketatik zetorren. 1981ean bahitu genuen, su-eten zegoen garaian. Erakunde armatuek askotan jarri izan dute dirua kultur proiektuetan. Dokumental txikiago batentzat ETAK dirua eman zen urte batzuk lehenago. ETAKo kide batzuen ihesa izaki, erakundeak filmerako dirua jartzea erabaki zuen. Baina pasatu ziguten Suñerren dirua markatua zegoen. **Billeteak markatuta egote horrek ekarri al zuen ezustekorik?** Erakundeak kide bat 10 milioi pezetarekin [60.000 euro] joan zen

Tolosako [Okzitania] banku batera, liberatan aldatzera. Berehala atxilotu zuten, bankariak abisua eman baitzion Poliziari.

Segoviako ihesa-k zer garrantzi izan zuen Euskal Herriko zinemaren zabalkundearen?

Zinema egin nahi zuen jendea ahalbidetu zion Eusko Jaurlaritzari eskatzea bide bat egiteko, eta azaltzea bazegoela non inbertitu. Anjel Amigok Ramon Labaien zena erekin [Jaurlaritzako Kultura sailburu zen orduan] hitz egin zuen, eta ideia batzuk sortu ziren. Handik urtebetera edo bi urtera, laguntzak ematen hasi zen Jaurlaritzak.

Hamaseigarrenean aidanez eta Zergatik Panpox euskarazko filmetan lan egin zenuen.

Anjel Amigoren ideia izan zen hiru film egitea euskarazko eleberrietan oinarrituta. Madrilgo teknikariak etortzen ziren lanera, baina modu bat izan zen Euskal Herriko teknikariak zinemaren lanean hasteko.

Sektoreko jendeak dio funtsezkoa izan zirela Euskal Herriko teknikarien talde bat osatzeko.

ETApn-ko kide nintzen 1980ko hamarkadaren hasieran. 1982an desegin zen ETApn, baina niri ez

zidaten utzi Espainiara itzultzuten 1984ra arte. Ovidoko [Espainia] banku bat lapurtu izana leporatzen zidaten. Epaitegira joan, esan beharrekoa esaten zenuen, eta aurrera. Euskadiko Ezkerrak Iruñera bidali ninduen, Nafarroako EE antolatzeke. Eta, gero, Amigoren ingurukoek zinemaren lanean egiteko aukera eman zidaten kamerari laguntzaile gisa. Ekoizten ere hasi nintzen, Nafarroako Gobernuak laguntzak ematen zizkigun. Eta talde tekniko bat osatu genuen. Era berean, Hego Euskal Herriko teknikarien elkarrekin sortu genuen 1985 inguruan. Gure lanpostuak defendatu behar genituen.

Zergatik erabaki zenuen hamarkada bat lehenago ETAn sartzea?

17 urte nituela, aitak Alemaniara bidali ninduen lanera. Baina handik bolada batera, egoera nahiko zailean nintzen, lan txarrak egiten. Manifestazioetara joaten eta ezkerreko mugimenduetako jendearekin harremanak izaten hasi nintzen. Carrero Blancoren atentatuaren ostean, Espainiako Gobernuak Salvador Puig Antic mendeke gisa hiltzeak kolpatu egin ninduen. Alberto Mendigu-

ren laguna ETAn zegoen, eta haren bitartez sartu nintzen. Sabin Atxalandabaso erakunde nazioarteko arduraduna Alemaniara etorri zen batean, toki batera eta bestera ibili ginen, eta bat-batean konturatu nintzen: «Aiba, ni euskalduna naiz! Aita Bilbokoa da eta ama Nafarroakoa!». Gero, Donibane Lohizunera [Lapurdi] joan, eta han harreman sendoa izan nuen erakundearekin.

Mikel Lejarza Espainiako zerbitzu sekretuetako agentea ETAn infiltratu zen. Ezagutu zenuen.

1975. urtea zen, eta Madrilen geunden. Pertur etorri zen, eta Montxo Reboiras UPG talde galiziarreko militantearekin harremanetan jarri ginen. Mikel Lejarza *El Lobo* etorri zen Madrilerara, eta esan zigun ez zeukala non lo egin; non geunden jakin nahi zuen, noski. Plastifikatzaile bat erosi ostean, auto batean gindoa zen, ikusi genuen poliziak atzetik genituela, korrika hasi eta banandu egin ginen: Josu Mujika Aiestaran kidea hil egin zuten tiroketan, Lejarza ezkutatu egin zen, eta ni atxilotu egin ninduten. Carabanchelgo espetxera eraman ninduten. Hamahiru hilabete egin nituen bertan.



2mó/
progresibo, erreflexuen
aurkako lenteekin **229€**

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA
DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA • IRUN
LASARTE-ORIA • ORDIZIA • TOLOSA

MULTIÓPTICAS

www.multioplicasgipuzkoa.com





JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

Politikoki aktibo jarraitu duzu. Baina Euskadiko Ezkerra noiz utzi zenuen?

PSOEk bereganatu zuenean. Sentitu nuen EEren barnean gero eta jende gehiago zegoela PSOEn ingurukoa. Jendea infiltratzen joan ziren, eta bozketa irabazi zuten. Erdiak sakabanatuta gelditu ginen. Hasieran, Euskal Ezkerra alderdian gelditu nintzen, baina horrek ez zuen ezer irauan. Zinema jarraitu nuen, horrenbestez. **Julia Juaniz zure bikotekideak ere Zinemira saria jaso zuen, duela bi urte. Nola hasi zen zinema munduan?**

Juliaren ahizpa ezagutzen nuen, eta esan zidan Londresen zegoela baina zinema munduan egin nahi zuela lan. *La monja Alférez* filmean, kamera laguntzaile gisa ari nintzen ni. Grabaketako lehen egunean, Donostiako San Sebastian hotelean, Julia Javier Agirre zuzendariarengana joan zen lan egin nahi zuela eskatuz, eta zuzendariaren laguntzaile jarri zuten.

Ekoitzi zenuen lehen film luzeetako bat Urte ilunak izan zen.

Aurretik, 1990ean *El anónimo... ¡vaya papelón!* filma ekoitzi nuen eta diru bat jarri nuen. *Urte ilunak* filmari dagokionez, Arantza Lazkanok proposatu zidan bere gidioa mugitzeko. Gustukoa izan zen, eta aurrera atera zen. Euskaraz eta gaztelaniaz grabatu zen.

Ondoren, urte asko pasatu ziren euskarazko pelikularik egin gabe. Aupa, Etxebeste! arte.

Film labur batzuk egiten ziren euskaraz, baina ez gehiegi. Telmo Esnalen eta Asier Altunaren lehen film laburrak nik ekoitzi nituen. *Aupa, Etxebeste!* egiteko mugitzen ibili ziren, baina azkenean nik ekoitzi nuen.

Euskaraz film luze bat ikusteko egarria zegoen 2005ean, ezta?

Bai, normalena da herri batek bere hizkuntzan ekoiztea. Parte batean, behintzat. Euskal Herria oso garrantzitsua izan da eskultu-

raren munduan. Eta irudiarekin bada zerbait: euskal idiosinkrasian badago zerbait eragiten duena sortzaileek irudiekin istorioak kontatzea. Euskal Herrian jaiotako zinemagile asko atera dira. Victor Erize bizkaitarra hor dago, adibidez, erdi ahaztuta.

Telmo Esnal eta Asier Altuna hazten ikusi dituzu. Harro?

Inbidia sentitzen dut, haiek gauzak egiten ari direlako eta neu ez [barreak]. Iaz, Moriartikoan *Handia* filmak hamar Goya sari irabazi zituen, eta horietatik zortzi nirekin hasi ziren lanean. Horrela gauzak pozzarriki dira.



‘Segoviako ihesa’ filmerako ETAp-tik jarri genuen dirua Luis Suñer enpresariaren bahiketatik zetorren»

«‘Handia’-rekin Goya sariak irabazi zituzten hamarretik zortzi nirekin hasi ziren lanean, eta hori pozzarria da»

Dokumental asko ere ekoitzi dituzu. Zer behar da dokumental on bat ekoizteko?

Denbora, dirua eta istorio on bat izatea. Mercedes Alvarezekin, adibidez, labur bat ekoitzi nuen. Gero, Bartzelonara joan zen: Pompeu Fabra Unibertsitatearen bitartez, eta mugitu nuelako, *El cielo gira* egiteko aukera egon zen. Julia Juanizek montaketan egin zuen lanari esker gelditu zen hain ondo. Montaketa funtsezkoa da pelikula batean.

Jendaurrean ez duzu euskaraz hitz egiten. Baina ulertzen duzu?

Nahiko ondo ulertzen dut hizkuntza, baina hitz egin, ez; ume batek bezala hitz egin dezaket. Hizkuntza bat menperatzeko hitz egin beharra dago, eta ni Madril bizi naiz. Euskara ikasten Carabanchelen hasi nintzen, Josu Muguruza izan nuen euskara irakasle.

Zinemaldiko diskurtsoan preso politikoa aipatu zenituen. Zer diozu Espainiako Gobernuak presoekiko duen jokabideaz?

Kataluniako buruzagi independentistak eta Altsasuko [Nafarroa] gazteak kartzelan sartzeak ez du inolako zentzurik. Espainiak duen arazoa da gerra bat sortzea erabaki zutela: estatu kolpe bat eman zuten 1936an, gerra irabazi zuten, 40 urtez nahi zutena egin zuten, eta Franco hil ostean ere hor jarraitu dute. Horiek jarraitzen dute botere militarrean eta juridikoan. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia aberrazio hutsa da. Espainiako Auzitegi Gorenaren eta Auzitegi Konstituzionalaren abertzarismoa dira. Epailak iraultza bat egiten ez duten bitartean, izorratu egingo gaituzte.

Frankismoaren aurka borrokatu zinen. Borroka armatuaz zer hausnarketa egiten duzu?

Ni istorio batean sartu nintzen, jende bat zegoelako frankismoaren aurka borrokan. Erregimen totalitario eta faxista baten aurka, askatasunik gabe. Diktadura horrek lotsa asko ditu motxiletan, isiltzeko. Iraultza ez genuen lortu, baina euskal herriak oso harro egon behar du frankismoan eta trantsizioan egin zuen borroka. Geroago *miliek* etorri zena beste kontu bat izan zen, eta berenari aurre egin behar diote. **Etxe kaleratze baten inguruko film labur batean ari zara lanean.** Haur baten istorioa kontatzen du. Haren urtebetetzea da. Etxera doala, jende asko ikusiko du, pankartak eta guzti. Amarengana iristen denean, haurrak uste du festa bat dela, eta esaten du: «Hara, zein ongi, kanpin dendarrekin goaz!». Urtarrilerako amaituko dugu. Edonola ere: 700 euroko pentsio bat daukat, eta zozorrak ordaindu behar ditut. Ezin naiz gelditu geratu.



Mundu hobea eraikitzen
laguntzen dugu

www.irizar.com





Egunean Behin aplikazioaren lehen finala jokatu dute 102 lagunek Azpeitiko Sanagustin kulturgunean. Eneko Agirrezabal segurarrak irabazi du txapelketa arrakastatsua.

«Hurrengoa belodromoan»

Jakes Goikoetxea Azpeitia

Ikusleen eta parte hartzaileen txaloak; finalistak, irabazlea eta babesleak oholtzaren gainean; eta Kike Amonarriz aurkezleak, erdi brometan, erdi serio, erronka jodie antolatzaileei, Eibarko (Gipuzkoa) Codesyntax enpresako arduraduneri: «Hurrengoa belodromoan». Donostiako belodromoaz ari da, milaka lagun har ditzakeen kirol azpiegituraz.

102 parte hartzaileko finala ondo atera baita Azpeitiko Sanagustin kulturgunean (Gipuzkoa). Egunean Behin aplikazioko azken hilabeteetako jokalaririk onenak bildu dituzte, final batean. Ez dira edozein. Astean 50.000 pertsonak baino gehiagok jokatu dute partidaren bat sakelakoetarako euskarazko aplikazioan. Berez jo-

ko indibiduala dena, norberak nahi duenean egitekoa, saio kolektibo bihurtu dute.

Parte hartzaile adina ikusle elkartu dira. Finalistak, izena eta zenbaki bat paparrean, mahai txikietan; ikusleak, horietako asko parte hartzaileen lagun eta senideak, mahaien atzean.

Jokalarien artean bi tribu mota daudela esan du Kike Amonarriz: «seguroiak», erantzuna seguru jakin arte sakatzen ez dutenak, eta «behatzarinak».

Txalo artean hasi da finala. Txaloak finalistek eta txaloak Codesyntaxekoei, Amonarrizek nabarmendu duen moduan, «hau ez baita normala, lorpen hau gutxitan izan baita Euskal Herrian euskarazko produktu batekin». Asteko 50.000 parte hartzaileez ari da.

Finalistek lau partida jokatu di-

★ ATZEKOZ AURRERA



Egunean Behineko finalistak, galderei erantzuten. GORKA RUBIO / FOKU

tuzte beren sakelakoetan. Ohi bezala, hamar galdera eta bakoitzean hiru erantzun aukeran, ahalik eta zuzenen eta azkarren erantzuteko. Ikusleek pantaila erraldoi batean ikusi dituzte galderak, banan-banan, Amonarrizek azalduta. Galderak azaldu ahal, ikusleek arteko erantzunak, ahapeka.

Finala ez da ondo hasi. Bost puntu lortu dituzte batez beste, eta ia minutu bat behar izan dute erantzuteko. «Nik uste nuen gaur

onenak etorri direla», kargu hartu die Amonarrizek.

C bitamina eta krokodiloak

Partida bakoitzaren ondoren, sailkapena. Eta mikrofonoa sailkapeneko buruontzat, Amonarrizek eztenak jasotzeko. Bildutakoek ikasi dute mahatsak limoiak baino C bitamina gehiago duela, euskal izena daukan historiaurreko krokodilo mota bat dagoela (Musturzabalsuchus)...

Lau partidaren ostean, hamar lagun sailkatu dira oholtza gaineko azken partidara. Eneko Agirrezabal segurarrak irabazi du. Azken saioaren aurretik ere bera izan da onena. «Zortea izan da asko» esanez arindu nahi izan du emaitza. Erakutsi du Egunean Behinen korrika egiten bezain ondo moldatzen dela -2.14.36ko marka egin berri du Valentziako maratoian, 1.02.18koa Behobia-Donostian-.

Irailean hasi zen jokatzeko, lehengusu batek gomendatuta. «Lehen astean hirugarren bukatu nuen, baina hurrengo asteak ez ziren hain onak izan». Euskal kulturari buruzko galderak kostatzen zaizkio gehien; geografia-koetan, berriz, ondo moldatzen da. Egunean Behineko jokalaririk askok bezala, hainbat taldetan parte hartzen du: herriko batean, unibertsitateko lagunenean, kuadrillakoan eta lanekoan.

Leire Alberdi eibartarra ere sartu da hamar onenen finalean. Finala on ez du nahi bezain emaitza ona lortu, ordea: «Oso urduri nongoen, eta ez dut denborarik hartu galderak behar bezala irakurtzeko. Askotan lehen erantzuna zapaldu dut, bat zapaltzearen, eta emaitza halakoa izan da; hamarretik lau asmatu ditut».

Egunean Behinen erakargarritasuna nabarmendu du, arrakastak zerbaite esan nahi duela: «Euskararekin ondo pasatzeko aukerak ere badauzkagu».



LEHEN HITZAK
BALIO
HANDIA DU

Erraztu dezagun euskarazko kontsumoa

Euskaraz kontsumituz, euskararen mapa osatuko dugu.

#LehenHitzaEUS
Gehitu zaitetz mapara



bai
euskarari

bai.euskarari.eus

f t y u .. i

Ziurtagiri bat baino askoz gehiago